



AUGUSTIN ZUBIKARAI  
JUAN FERNANDEZ EGIGUREN

U  
T  
A  
i  
R  
O  
R  
T  
E  
B  
A

BERPIKUTU

*Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz*



© *Augustin Zubikarai*  
*Juan Fernandez Egiguren*  
***Legerako Gordetza BI 608 86***  
*Depósito Legal*  
*Argitaldaria: GAUBEKA Irarkola - Gernika*  
*Azala: Angel Lertxundi*  
*Argazkiak: J. Fernandez Egiguren*

# BERRIATUA

*Augustin Zubikarai*  
*Juan Fernandez Egiguren*

1986



# SARRERAKO AZALPENA

Liburu au, Berriatua'ko kontuetako asiera baiño ez da edo ez litza-  
ke izan bear.

Igarriko dan lez, geien bat baserriei buruz egiña da. Au  
da, Berriatua'ko baserri etxe eta lurduen etxe diranak aztertut-  
ta

Igaz, au Idatzi eta iruditu dogunok «Ondarroa baserri giroan» libu-  
rua atara gendun. Ain zuzen be il onetan beteko da urtea

Orduntxe pentsatu gendun, gure auzoko erri maite onek, gaia  
emongo euskula, beste antzerako bat egiteko.

Eleiz-ate onek, izen be, istori zarra dauka. Baserri ugari  
be bai. Arrigarri da baserri asko, geienak, orain bosteun urte  
be euren bizi-urratsak agertzea.

Berriatua'ko paperak eta jakingarriak, errian barik, kanpoan billatu  
bear dira zoritxarrez. Errikoak erre ziran, Udaletxea erre zanean.

Amazortzi ta emeretzi garren gizaldiko batzuk, ba dagoz Gernika'-  
ko Artxiboan, au da, Batzar-Etxekoan. Ain geienak, denporaldi onetako  
aurre-kontu eta zentzu batzuen kopiak dira. Angoekin baliatu gara. Pa-  
rrokiko liburuak Derio'n dagoz; Aldundian (Diputasiñoian) agiri batzuk...  
Bear ba da liburu onen osogarri eta geigarritzat, gaurko ikasle barrien  
batzuk azterketa geiago egin nai izango dabe. Ori nai gendu  
ke.

Edozetara be guk jakingarri batzuk lortu doguz, baserri-  
rik baserri, banan-banan etxe guztien argazkiak atara eta etxe bakoitzari  
al danik fitxarik zeatzena egin.

Uste dogu berriatuarrak atsegiñez artuko dabela lantxo au.

Gure errietan, ba doguz erri eta parroki arteko bereizta-  
sun batzuk. Au da, erri-legez bertan sartu ezarren, eleiz men-  
petasunez emen sartzan diranak.

Zorionez, emen, ez dago orretan eragin andirik. Amoro-  
to'ko etxe bi sartzan dira eleizan Barriatua'n, eta Markina-  
Xemein'go zazpi.

*Atal berezi baten izentatzen doguz, baiña zeaztasunetan sartu barik.*

Utsik dagoz etxe batzuk; baten bat barriztuteko asmotan, beste ba-  
tzuk aste buruetako atsegin agunetarako erabilten diranak; edo ta etxe-  
utsen oituraz, barruak galdu eta orma zarrak arrakalatzen bestea.

Batzutan azaletik, bestetan barruari ikututa, onein egoera eta eragi-  
ña be agertu nai izan dogu.

*Gain gañetik, borondate onez, egin dogu gure lana.*

*Akatsen bat egon lei, edo uzkerien batzuk. kanpotik ikusi, edo igarri, edo jakiten ez diran batzuk, barrukoentzat ikutugarri eta sentikor izaten dira, eta batzutan eurak ez agertzea mingarri, edo ta ez agertzea pekatu.*

*Ez genduke nal, eta alegin egin dogu, zabal eta argi edo biotz onez jokutzen. Origaitik, gure borondate au ezagutu dagizuela eskatu ten dautsuegu. Bai eta gogoratu be, errien istoria gertaera (zaten dala, eta gertaera batzuk ez dirala bear ba da ain zuri-zuriak izaten,*



# EGOERA



Bizkai zarreko eleiz- atetan, lur- lauen, Bizkai'ko Jaunak uriak sortu edo sortzea baimendu ebenean, eleiz-ate batzuk min andia artu eben eta euren muga eta inguru kontuetan ia betirako asareak ezagutzen asi.

Ala gertatu jakon, bere lurretan egoan arrantzale auzo bateri, Ondarroa izenagaz ezagutzen zan tokiko auzoari, uri izateko aukera eta baimena emon eutsanean, Bizkai'ko Andere Alargun zan Marina Díaz de Haro deiturakoak.

1327 urteko Irailla'ren 28'an.

Gefenetan era orretan sortzen ziran uriak, mesede askogaz jaioten ziran, ordurarte lurren jaube zan eleiz- atearen kaltez.

Orrela mugaen estutasun ori gure egunak arte eldu da, eta etxe barruko asarre bide izan da 600 urtetan.

Itxas ertzetik asita perra baten irudia darua Berriatuaren inguruak, inguru guzti orren barruan, bere mugaen artean, Ondarroa sartuta daukala.

Saturraran gainean asi, Akilla mendiz gora, Santa Kutz eleiz ondotik zear, Gipuzkoa'ren mugaz dua, Kategi, Iturrino, Arantza zear Plazakola'ra jeisteko. Ortik, Plazakola azpitik, Mereludi'tik zear Amoroto'ri ikutuz, Mendexa'gaz alkartzen asten da, Asterrika barruan artuaz, barriro itxasoari musuka geratzeko.

Beraz Mutriku, Markina- Xemein, Amoroto eta Mendexa dira



kanpo aldetik Berriatua'ren mugak. Eta barru aldetik Ondarroa.

Perra orren barruan dago Berriatua, eta bertan, itxasertz inguruan kokatuta Ondarroa daukela, berrituar eleiz-atea toki batzutan zabalago, bestetan estuago igarten da.



*Ikuspegi eder bat*

Ondarroa uri egitean, nasterik geiena, iraspen edo fundaziño orretan egin zan lurren banaketak sortu eban. Baserritar batzuk ba euken erri barruko legetan sartzeko aukera, besteak ez. Ortik gero konpondu eziñiko eztabaida asko; ortik nasteak; ortik, ezin ukatu, gorrotoak, itsukeriak eta abar, nai ta eguneroko bizitzan, Berriatua'k bere baserri gaiekaz, eta Ondarroa'k itxasoari lortutako emaitzekin, era bateko edo besteko alkarren artu-emon eta beserrotza ondo zaindu eta erabili.

# IZENA

Euskal toponimian, tokien eta lekuen izendegian, izen eta deitura batzuk ez dira argiak izaten eta curen esan-naia edo agerpena ez da erraz ataraten.

Onelakoen artean geratu edo dago BERRIATUA.

Zelan banatu ete leike deitura au, eta zelan bere esan nai zeatza atara?

Ara batzuk emondako esan naiak.

«La anteiglesia de Berriatua, síncopa de Bee-erriatuba, que denota suelo incendiado (lo que denota es localidad baja)...»

BEE-ERRIATUBA, au da, lur-errea, TUA orrek daukan be aldearen ezaugarria erakutsi eta emonaz.

(Juan Ramon de Iturriza y Zabala. -Historia General de Vizcaya, I-259)

Esan bearreko da, Iturriza'ri, kondaira gaietan lotsa eta men euskal-deituren azalpenetan, ez dautsela jarraipen andirik egiten euskera gaietan aitu diranak.

Isaak Lopez Mendizabal'ek, bere aldetik, Berriatua'ri txaraka toki esan naia emoten dautsa. «Berriatua, en la villa de su nombre en Bizkaia», diño bere abizen eta deituren azalpenetan. Jaral, erdezako esan naia emonaz. (De BERRO y los subfijos -TU, -A).

(«Etimologías de Apellidos Vascos» Isaak Lopez Mendizabal).

Eskola orretako agertzen da Endika Mogrovejo, bere Apellidos Vascos liburuko 60 orrialdean:

Berriatua = Zarzal grande; el jaral; *el zarzal*.

Koldo Mitxelena'k, bere abizenen sortze eta egiturako liburuan, deitura oneri buruzkoan, onelako azalpena emoten dau, BARRI, BERRI berbaren jatorria aztertuten: «*Resulta curioso que los nombres de la población vizcaínos, usados también como apellidos, Berriatua y Berriz, tengan o no que ver con BARRI, BERRI, no hayan sufrido ese cambio*».

Eta geroago -TU'ri buruz, au diño: «Terminación frecuente en Abaitua, Anitua, Benitua, Berriatua, Bilbatua, etc.»

(Luis Michelena -Apellidos Vascos).

Beste bat, Jose A. Mugika, ba dirudi BERRITU = barriztu oiñarriztat artuta ibili dala, diñonean:

«Berriatua. Berritu: renovar y a. = El renovado. Reformado».

(«Los Apellidos de Iberia» 255 orrialdean).

Beste aldetik, Jaime Kerexeta'k, Lopez Mendizabal'en bidetik jokatzeko dau esanaz: «Derivado de Berria, con los sufijos -TU y -A, contracción de AGA».



*Umeak be poza eta bakea billatzen dabe emen...*

Orrez gainera Berriatua abizenari dagokion ikusi (eskudoa) era onetan iruditzen dau:

*«En plata, un roble de sinople, frutado de oro y con un lobo, pasante, de sable, atravesando a su tronco».*

Au da, gure berbetan esatea lez:

«Zidar kolorean, aritz orlegi bat, urrezko igali (frutuz) eta otso ibiltari bat, baltzean, bere ondoan igarozá.

(J. Querexeta. Diccionario Onomástico y Heráldico Vasco»).

Beraz, laburtuteko, ba dirudi BERRITUA izenak, toki txaratsatu edo antzerako zerbaiten esan naia adierazten dauala.

# BERRIATUA'KO ETXEAK ETA EUREN JAUBEAK 1704 URTEAN

Urte onetako Irailla'ren 11'an egindako erroltzea, Gernika'ko Batzar Etxeko artxiboan dago eta auxe da bertatik atara, eta laburtuta, orduko zeaztasuna.

Busturiko Merindadeko errepublikak euren su-etxez (fogera-kin) zerrendetan ipinteko agindua beteaz egiña da. Asieran diño, banan-banan danei deituta egin zala zerrenda au, lendik orrelakorik ezagutzen ez zalako.



Errenteruak egozanetan, euren izenak be agertzen dira.

ARANTZIBIA ETXEA.- Peñaflořidako kondéarena. M. Mugartegi bizi zan bertan, alarguna. Auzokideak esan eben, lurralde askoren jaube izanarren, Jaurerriari (Bizkaiari) ordaIndu bear izaten zIran banaketetan, ez ebela nai Izaten sartzerik. Eta ez ekiela ortarako ze eskubide euken. L j

BURGOA.- Jaubea, Kosme Iramategi.

BARANIGO.- Jaubea, Domingo Gandiaga.

ZALDUA.- Jaubea Pedro Mugertegi. Madalen Barbaria alarguna bizi zan bertan.

GOITIZ.- Juan Otxoa Brebilla, jaubea. Juan Lizaola bizi zan bertan.

IRAMATEGI.- Domingo Amallobieta, jaubea.

ORIBIA ALDEKOA.- Lazaro Garramiola, jaubea.

ORIBIA BEKOA.- Pedro Mugertegi jaubea. Pedro Arambarri bizi zan bertan.

ORIBIA ALDEKOA.- Juan Oribi Asterrika, jaubea.



GASTUNA.- Domingo Egurrola, jaubea.

BIDAGORRI.- Domingo Egurrola, jaubea. Juan Olabe bizi zan

bertan.

OLAI3E.- Juan Elordi, jaubca.

PERTII{A.- 'Iartiu Mugartegi jaubea. Miguel Aspiazu bizi gizan bertan.

UR MAGA I3ASO.- Domingo I3arroctabeña, jaubea.

KATAI GJ.- Antonio IKattaegi, jaubea,.

KALZAKORTA.- Martin Mugertegi, jaubea.. Martia Zabala ujzi zan bertan.

ITURRINO.- Jose Gojenola, jaubea.

EGI GOIKOA.-. Frantsizko Andonegi, jaubca. |

EGI BEKOA.- Maria Egia, ezkongaiia, jaubea. i.

ARANIONA.- Pedro Arano, jaubca.

ASTUIETA.- Juan Altamira, jáubcá;

KAMINO TORRE.- Manuel Ibarra jaubea. Abadea...

BUSTINZURI.- Juan Bta. Ibaseta , jaubea. Mateo Ibaseta abadea bizi zan bertan.

BASTERROLAZA GOIKOA.- Jazinta Egurrola, alargunarena.

IIASTERROLAZA BEKOA.- Martin Mugertegi, jaubea.

OJANGUREN.- Katalin Txopitea, alargunarena. *Alejo* Usatorre bizi zan bertan.

ELEXALDE.- Juan Bta. Kataegiren ..Nikolas Garramiola bertan bizi.

ESK RIL3ANIKOA.- Pedro Kalzakorta, jaubea.

KASADUA.- Domingo Atxa, jaubea.

ARREGIKOA.- Pedro Kategi jaubea. Iila. Bere txikiak bizi ziran bertan, Martin Burgaña abadearen kontura.

ZAMITIZ.- Juan Ibaseta, jaubea.

OLASO.- Jaun Andonaegi'rena: Kristobal Agirretxea bizi zan bertan.

OBEKOLA GOIKOA.- Lukas Olazarra jaubea.- "Fernando Plaza bertan bizi..

OBEKOLA AURTENETXEAr- Antonio Kataegi' ena. Pedro Itola bizi zan bertan.

OLAETXEA.- Agustina Olaetxea, alargunarena.

SAGA RMIETA. .Mateo-Ikaran jaubea.

GARDUTZA GOIKOA.- Madalen Mugartegi, alarguna, jaubea.

GARDUTZA BEKOA.- Domiiigo Gardutza jaubea.

OLABARRIETA.- Martin.Txopitea jaubea.

IBARGUEN.- Anton Tturrialde jaubea. Migel Iriarte bizi zan.

GARRO.- Peñafloidako koudearena. Ramos Zelaia bizi bertan.

ARRIAGA.- Jazinto Alzaga'rena. Juan Bta. Iramategi bertan bizi.

IKATZA.- Domingo Ikatza'rena.

URKIAGA GOIKO.- Bernardo Urkiaga jaubea.

URKIAGA BEKO.- S. Arrasate jaubea.  
 ITOLA.- Juan Laka, jaubea. Iñazio Aresti bertan bizi.  
 ANAKABE.- Pedro Anakabe'rena.  
 ALEPASOLO.- Juan Laka'rena.  
 ASTERRIKAKOA.- M. Retolaza alargunarena.  
 ALDEKOA.- Juan Retolaza'rena.  
 BEKOETXEA.- Dominga Deustu, jaubea. Juan Zelaia bertan bizi.  
 BARRENETXEA.- Migel Mugertegi'rena. Domingo Aranbarri bertan bizi.  
 ZELAIA.- Domingo Zubiaur, jaubea.  
 ERREMENTARIKOA.- Ana Izquierdo, alargunarena. Pedro Txopite bizi zan bertan.  
 ALUKIZ.- Domingo Zelaia, jaubea.  
 ETXANO.- Nikolas Latorre, jaubea.  
 ORUETA.- Domingo Urizar, jaubea.  
 BURGANA.- Juan Bta. Garramiola, jaubea.  
 EGIGUREN.- Andres Gabiola, jaubea.  
 ELEXPURUA.- Pedro Mugertegi, jaubea. Jose Retolaza bertan bizi.  
 ATXURRIA.- Juan Koskorrotza, jaubea.  
 IKARAN ANDI.- Domingo Ikaran'ena.  
 IKARAN BARRI.- Juan Areskue  
 ASTOBIZA.- Pedro Astobitza, jaubea.  
 LAKA GOIKOA.- Angel Orueta'rena. Jose Lariz bizi zan bertan.



LAKA BEKOA.- Luzia Arkotxa alargunarena.  
 ANDONAEGI.- Juan Andonaegi'rena. F. Lekoia bizi zan bertan.  
 MUGERTEGI.- Pedro Mugertegi'rena. Jose Elorriaga bertan bizi.  
 SUSTAETA.- Juan Bta. Kataegi'rena.  
 ZELETA.- Lukas Olazaran'ena. D. Olabarria bizi zan bertan.  
 ORIOSOLO.- Juan Bereikua, jaubea.  
 AYARDIA.- Juan Ayardia, jaubea.  
 SOLABARRIETA.- Bartolome Abasolo, jaubea.  
 URRESTI.- Maria Trotiaga, alarguna, jaubea.  
 ZABALA.- Pedro Zabala'rena.  
 LEKOIA GOIKOA.- Juan Bta. Lekoia'ren ondorengoena. J. Lauzi-  
 rika bertan bizi.  
 LEKOIA BEKOA.- Bartolomé Ibarra'rena. Juan Ubillagoia bertan  
 bizi.  
 GOIKOETXE.- D. Goikoetxe, jaubea.  
 GOITIANA.- M. Mugertegi'rena. Juan Eizagirre bertan bizi.  
 MUNIONSOLO GOIKOA.- Ana Izquierdo'rena. Martin Lauzirika  
 bertan bizi.  
 MUNIONSOLO BEKOA.- R. Oibee jaubea. I: EtxanIz bertan bizi.  
 BÉRRATUKO ETXEA.- Jullo Lezaola'rena.  
 ZUBIALDEA.- Jose Kataegi'rena. Maximo Egurrola bertan bizi.  
 IBARRA GOIKOA.- Santo Domingo bizkondearena. Antonio Le-  
 zaola bizi.  
 IBARRA ERDIKOA.- J.B. Aldasolo'rena.  
 IBARRA BEKOA.- Migel Ibaseta'rena.  
 AZKARTZA ORMAETXEA.- M. Urkiaga'ren alabena. Jose Iba-  
 rra bertan bizi.  
 AZKARTZA ERDIKOA.- Bartolome Ibarra'rena. A. Etxaniz ber-  
 tan bizi.  
 AZKARTZA.- F. Zigarán'ena. Antonio Arbelaiz bertan bizi.  
 ARANTZADI.- Fernando Bustinzuria'ren semeena. F. Ibarrolaza  
 bertan bizi.

*Erriberan ba dagoz baita etxe txikiak, baiña su-toki edo fogera oso-  
ko lez sartuta dagoz, eta atakotzat ordaindu. Oneik dira:*

ASTUIETA.- Ana Mugertegi'rena.  
 ASTUIETA-UGALDE'REN ONDOKOA.- Geiena jausita dago.  
 Juan Ibarrola bizi da.  
 LOREDUNA.- I. Ibaseta'rena. Mateo Igaran bizi da.  
 UGALDE.- Domingo Garramiola, jaubea.  
 KURUTZEKOA.- Francisco Ibarrena. Nikolas Mugertegi bizi  
 da.



ELEXALDE.- Jose Kataegi'rena.

ELEXALDE.- Juan Bta. Ibaseta osagillearena. D. Ibarrola bizi da bertan.

PATROEKOA.- Juan Andonaegirena. A. Olabe bizi bertan.

ALZELEGI. Mari Alzelegi alargunarena.

ZUBIAUR-BASTERROLAZA.- Jazinta Egurrola'rena. Jose Olabe bizi da.

ZUBIAUR.- F. Etxenagusiarena.

ANTXIKOA.- F. Mugertegirena. Noiz jausiko dago. Pedro Barbaria bizi da bertan.

ALTAMIRA.- Oraindik txartuago dago au. Rafaela Ikaran jaubea.

ZAMITIZ.- J.....(ez da ondo irakurten). Jose Goiri bizi da bertan.

Euren ortuekaz dagozan beste etxe txiki batzuk:

ALLERI.- Juan Andonegi'rena. Juan Ugarte bizi da.

BASTEGIETA.- A. Kataegi abadearena. Inazio Etxanó bizi da bertan.

MUXIO\SOLO.- Margarita Egiguren bizi da bertan.

TORREALDEA.- B. Ibarra'rena. Domingo Olabarri bizi da bertan.


ETXEZURIA.- B. Ibarra'rena. J. Brebilla abadea bizi da bertan.

AR EGIA.- M. Basterréxea'rena. Madalena Areskurenaga bizi da bertan.

SAGASTIKOA.- B. Ibarra'rena. Grazi Ibarra bizi da bertan.

LANDEXUELA.- Juan Andonaegi'rena. Jose Uribe bizi da. 71

BAZARTOKI.- Mari Pertika'ren alarguna bizi da. San Gregorio erinitako zaindaria.



trAS" I ERROLAZA ETXETXOA.- Pilipe Lizaola'rena.

ZUBIALDEKO ZUBIAUR etxea.- Jose Kataegi'rena. Ursula Mugartegi bizi da. Onek esan eban tellatuepean eukan lurra besterik ez eukala, eta ori agirian egoan, baiña su-etxe lez artzen eben, eta ordainketak egitera beartu.

ASTUIETA.- D. Eizagirre'rena. F. Iturrioz bizi zan bertan.

IBARRA.- M. Burgaña'rena. Eleizgizona.

GOIKOETXEA.- Asterrikan. Adrian Arrubategi, jaubea.


ERGAITZ.- M. Mugartegi'rena. Iñazio Eizagirre bertan bizi.

ELEXPURUA.- J. B. Ibaseta'rena. Pedro Gabiola bertan bizi.

Eta diño Elexpuru'ren etxe eta soloetan beste etxe bat egiten diarduela Ibaseta osagilleak, soloak emoteko ustetan.

Auxe da egun orretan egindako zerrenda.

Gernika'ra 1704'ko 16'ean, eskribaduak bertako agirietan sartu eban zerrenda au.



# ZIARROTZAKO KOLEJIATA ETA BERRIATUA

Ziarrotza'ko Kolejiata, Bizkaia'n, antxiñako eta nortasun andiko monastegia izan zan.

XI garren mendean, gizaldian, ba egoan. «Becerro gótico de San Millan»en bertako Abade Nagusi baten ezaupidea artzen da.

1380 urtean, ordurarte euren nortasuna ondo zeaztu barik euken eleiz gizon orreik, kolejiata nortasunez ezagutzeko baimena artu eben KalagurrIko gotzañagandik.



Kolejiata au, Oiz mendi inguruko sarobe edo kortabaso askoren jaube egiña zan.

Luze eta zabala zan bere jaubetasu`na edo ta bere menpekotasun eragiña.

Kolejiata zala ezagutu zan urtean, 103 sarobe eukazan bere izenean. Era onetan bananduta:

49 Amallo mendietan.

5 Gaztiburun.

49 Oiz'pean.

Amallo deiturako inguru orretan sartzen dira ainbat berrituvren izateak eta izerdiak.

Geroago, Bolibar'ko parroko patroia eskubidea berari eskiñi eutsenean, beste 42 sarobe sartu al izan zitun bere izenean, ortara-ko 1398 urtean egiñiko eskribu zabalean.

Ziarrotza'ko Artxibuko Aurktbide bat tdatzi eban Juan Jose Mugart.egi markinarrak, («Indtce General del Archivo de la Colegiata de Santa María de Cenarruza»).

Liburu onetan, Ztarrotza'ko Kolejiatari lotuta egon ziran edo bere menpeko ziran berriar baserri buruzko gorabera ta jakin-garriak billatu geinkez, baserritarrekin egindako eskribu zabal zegattik ziran esanaz.

Eskritura orretn zegaitiak garbi erakusten dau, abade orreik eukt eta lortu ebalu curen errenteru ziran baserri jaubeekandik alako gogo txar bat, egindako tratuak ez beteteko. Ez jakin asarrea agertzeko era bat izaten ete zan, edo baldintzak lurren emaitzen gaitzekoak ete ziran.

Edozetara be, abade orreik eskribaduen bitartez eskatzen asi ziran curen menpekoei berbatuta eukena, emoteko eukena, gogoratu edo ta zemai lez itunak eta tratuak bete egitera beartuten.

Berriatuarrei buruzko batzuk billatzen dira tartetan. Orrela, eskritura orreik garbi erakusten dauskue zeintzuk baserri egozan lotuta Ziarrotza'ko abade orreien menpetasunera, menpetasun orrek bai eleiz oituretako eta bai erri-legepean erakarren ondore-nagaz.

Ikus batzuk:

OBEKOLA.

1353 urteko Uztailaren 10'koa.

Ondarroa'ko eskribadu zan Fortunio Olaeta'ren aurrean egindako ituna, ango abade nausia alde batetik eta bestetik Obekola'ko Peru eta bere emazteagaz egiña.

Obekola'ko baserria 150 sagar arbola zutik eukitera beartuta egoan, abade areikaz erdi-banan, baserriari emondako lurren ordez.

Au da erri-dokumenturik zarrena.

Gero sagar arbola orreien ordez, Abustu'ko Andra Mari egunean Ziarrotza'ra eroan bear zituen anega bi gari urteko.

Beste dokumentu baten agertzen da Obekola baserriak 16

anega gari zorretan eukazala, eta kontu-konponketa egin zan 1632 urteko Urria'ren 31'an.

#### ARANTZ IBIA.

1619 ko agiri bat daga. Bertan esaten danez, Arantzibia etxeak urtero lau kintal burdin totxo emon bear eutsazan Ziarrotza'ri, ango abadeak baimena emon eutselako Arantzibikoci, curen hurdiñalarako bear eben ura euren lurretatik zear igaroteko.

#### IKARAN.

1590'retean, etxe au noiz jausteko egoan. Ziarrotza'ko abadeak beartu egin zituen bertakoak etxea konpontzera, etxe onek artero emoten eutsezan sei anega gariren errenta ziurtatzearren.

Etxe onek 1555 urtean ahadeekaz itun konponketa bat egin eban, arbolarik geiago ez ebagiteko.

#### ASTOBITZA.

Abadeak eskribadu bidez eskatu eutsen emengoei etxearen errenta eta lau anega gari eta zar eutzesan amarrenak eta asikiñak. (1609 urtean),

Baserri au, izen bereko sarobean, 1409 urtean jaso zan, eta urtero, Irailla'ren 8'ko Andra Mari cgunean, Tabira'ko neurriko iru anega gari emotera bcartuta egoan. Orrez gaiñera Ziarrotza'ko parrokiko eleiztar lez, amarrenak eta asikiñak emotera, baserria ubade arcin lurretan cgin zalako,

#### ARANA.

Lau anega gari atzeratu zor eutsezan agIria, 1609 urtean. Gerroago, 1631 urtean, best e agiri baten bidez, baserri onctakoak 953 errial bellonetun zeaztu eben abade arei eutsen zorra eta kitutzeru beartu.

#### LAKA.

Emengoak be zorretan eukezan iru anega gari, artcro ordaIndu bear zitucnak, bai eta amur ren eta asikiñak be 1609 urtean.

1571 urteko agiri baten, Martin Laka'ren egiaztapen bat agertzen da, bere emazte Kataliña'ren illetaren laugarrena kittutzeko, bi milla marabedi ordaindu zituela egiaztatzen.

#### PERTI KA,

1609 urtean balta be, Yertika'ko Juan eta Kataliñe'k, baserri jaube lez ordaindu bear zituen iru anega eta laurden gari zor zitue-

lako, hai eta amarren eta asikiñak be, beste eskribu bat egin zan.

1636 urtekoan, etxe oneri buruzkoan, esaten da, 1174 errial ordaindu eutsazala Pedro 'Pertika'k Abatetxeko nausiari, eta oraindik zor eukazan beste 580 errialen agerbide bat egin eben.



### PARROKIAK

1616 urtean, Murelaga eta Berriatua'ko parrokiak auzitan ibili ziran Ziarrotzakoekin. Itxuraz parroki orreitako abadeak, eureta-ko jantzi eta premiñak beteteko bear zituen aitzakiz, curen menpe-ko baserriei kendu egin eutsezan Ziarrotzako Kolejiatari emon hear eutsezan asikin eta amarrenak.

Geroago auzi bardiñean jarraitu eben Berriatua, Etxebarri eta

Xemin'go parrokiak, 1744 urtean Konponketa bat egin arte.

#### ATEGUREN.

Domingo Mugertegi eta bere semea ziran etxe onetako jaube. Amabi anega gari zor eukezala eskatzen eutsen onei, Mugertegi, Antonenekua eta Gazadia'ko kortagaitik. Oneik, euren etxea Ate-guren'gaitik aldatu eben lez, auzu au garbituta laga eben urrengo agerbide baten.

#### LEGARRA.

Arantzadi'ko Madalena'ren inguruan, izen onetako sarobean, baserria jaso eben Pedro Alegria eta Ana Basterretxea bere emazteak, urtero lau anega ta erdi garitan Ziarrotza'ko abadieie emote-kotan.

Ituna 1740'ko Abustuaren 21'an egin zan, eta lau urte barru jasoteko bearkunaz.

Ziarrotzako Abadeak baimena emoten eutsen baserri oneta-koei eurak gura eben parrokia aukeratzeko eleizkizunetarako, bai-ña asikiñetako erdia parrokiko abadieie emonarren, beste erdia Zia-rrotzakoeie emonaz, bai eta amarrenen osoa be.

Orrez gaiñera urteko iru jaietan ofrenda eroan bear eben ZIa-rrotza'ra, eta milla marabedi ordaIndu illeta baten laugarren zati lez, baserrian adiñeko bat Ilten zan guztietan. Ordez, Ziarrotzako abadeak, iru abadeko meza bat eta noturno bat abestutera beartu-ten ziran.

#### ITURRINO.

1744'ko agiri baten ikusten danez, Pedro Amallobieta eta Mari Etxebarrila senar emazteak, Arantzadi-Iturrino deiturako sarobean baserria jasoteko baImena artu eben, ortarako urtero 15 imiña garitan ordainduta. Eta etxea jasoten ba eben, amarren eta asikin osoak Ziarrotza'ra eroan bearko zituen.

#### ZAM ITI Z.

1654 urteko agiri bitartez, etxe onetako jaube zan Juan Ibase-ta, urtero neurri andiko anega bat gari ordaintzera beartu zan, eta gaiñera orren billa joaten zanari, sei errial ordaindutera. Itxuraz antxiñako lotura bat euken larogei oin sagarretan eukitearen ordezko Irabazitza emoteko, eta ori aldatu eben gari bitartez.

#### UGALDE'ko URTEGIA

Mugartegi eta Oianguren artean dagon urtegia (presa) saldu

eben Ziarrotza'ko Abadeak Maria Elexpurua eta beste partzueri, eta oneik Kolcjiata'ri, urteko, kintal bi burdin landu emotera bear-tuten ziran burdiñola ipinten ba eben, edo ta anegi bi gari errota ipini ezkeru.

1398'ko Bagilla'ren 27'an egindako konponketa da.

#### ENFITEUSI-ZORRA.

Ziarrotza'ko abadeak, Arantzibia'ko errotaren ondoan euken solo bat lagatearren, enfiteusi-zorra ipini eutsen Olaetxe'ko Txomin Agirrernalloa, Orubia goiko Patxi Garramiola eta Orubia Aldeko'ko Txomin Azterrika'ri. Oneik urtero 60 imiña arto eta solo orrek emoten ebanaren amarrena ordaindu bear eutsen.

#### AUZI GEIAGO.

1793 urtean Berriatua'ko eleiz gizonak eta Kolejiata'koak auzi bat euki eben Legarregi eta Obekola Beko baserriak lur barrietan 'zen fituen emaitz edo frutuen amarre — i buruz.

Eta Ziarrotza'koak irabazi eben, lendik artzen eben baserri bietako amarren guztien eskubidez eurak geratuz.

Zeaztasun geiago lortu lei 1625 urteko zerrenda batetik.

Ikusten danez, Ziarrotza'ko Kolejiata'ko Abadeen entzutea eta jaubetasuna andia eta zabala izan zan inguru guztian, eta ez bakarrrik Oiz aide onetan. Araba'n be sartu zituen erruak eta an be menpetasuna lortu.

Guk, esandako Aurkibide iiburutik, Berriatua'ri dagokiona jaso dogu, gain gainez artuta.

Bertatik garbi ataraten da beintzat.

Obekola, 1353 urterako ba zala.

Ugalde urtegia, presa, 1398 urterako eratua egoala.

Astobitza baserria, 1409 urtean jaso zala.

Ikaran, 1555 urterako tratuetan ebillala.

Laka, 1571 urterako tratuetan ebillala eta baita Arana, Pertika, Zamitiz eta abar, Ziarrotza'ko Abadeekin artu-emon garratze-tan sartuta ebiitzala.

Esan dogun Obekola baserriari buruzko agiria, onela agertzen da erderaz:

*«Sepan quantos esta carta vieren corno Nos Martin Ruiz de Cena-*



rruza, é mi muger doña Milia Martínez de Ozaeta, Abbad e Abbadesa de Santa Maria de Cenarruza e nos el Maestro, ó Cura, é Clégos del dicho Lugar de Cenarruza en uno con los Mayorales del Capítulo de la dicha Santa Maria, é por su Autoridad é mandamiento dellos, é beyendo que es pro, é mejoramiento del dicho Lugar de Cenarruza otorgamos, é conocemos que somos abenidos, e concertados con vos Pero Diaz de Obecola é con buestra muger doña Elbira por razón de terrenos, é heredados que ha Santa María de Cenarruza en dicho lugar de Obecola desde el puesto de Ascarza fasta el río del bado mayor, ó por el río a junto fasta el Nocedal de justo q: llaman de Atrecha todo quanto es en medio de Santa Maria tierras pobladas, é por poblar todo vos damos para media ganancia que ganades vos, e buestro heredero, segun que ganaderos deben ganar lo mas que pudierades asi como es fuero, é uso, é costumbre de Vizcaya; e lo primero ganado é quanto vos, e buestro heredero ganaredes que ayamos a medias de Santa Maria de Cenarruza la mitad, é vos Pero Diaz, e buestra muger, é buestro solar que heredeis la otra mitad, é de toda heredad que vos e buestro heredero ganaredes que llevades el ien de un Agosto que vos abriades por buestros travajos, é del día de Santa Maria de Agosto fasta el día que llaman don Estefane la Manzana Llegadiza que lleuades para buestra mantenenencia de casa por que las agosteras de Santa Maria quando hi vinieran a llebar la manzana han de expender della; e vos Pero Diaz, e vuestro heredero que mantengades la heredad de cerradura de cabadura; e las sus aguas con sus derechos que siempre le finquen á salvo a Santa Maria, é vos damos francos los solares de Casa de vida, é para casa de trillas, é del orrio é la guerta por razon que vos Pero Diaz e bra muger, é buestro heredero havedes de dar é consentir lugar de dos Cubos do fagan para Santa maria en buestra Casa, en los buestos Logares que maje Santa Maria su medio Agosto; é habedes haber vos Pero Diaz é bro, solar siempre un paramo de tierra en los de Santa Maria para buestro elgueral, así como lo han los otros buestros vecinos.

Otro sí en lo que fallaredes de Santa maria tierras para pan, é para mijo que las labredes, é que las sembrades, é asi también para facer linos, é todo que vos aprovechades; é Santa Maria, é su Monasterio que vos ayude a cerro el pan, é panizo por razon que habedes de dar vos, é el buestro sokar, é el buestro heredero por siempre el diezmo de buestro solar a

*Santa Maria de Cenarruza enteramente, é la heredad vieja cuando fueredes fechar que plantados nuevos, é que los cerredes. Otro si bos Pero Diaz, é buestra muger doña Elvira que hayades a enterrar en Santa maria de Cenarruza, é el nuestro herederos del buestro solar que haya de enterrorio á do le plugiere por razón que de face gran camino de ida para Cenarruza, pero el diezmo enteramente quede a Santa Maria de Cenarruza en el buestro solar; el qual dicho lugar bos damos apeado, é amojonado, é terminado segun fuero de Vizcaya; é nos obligamos de bos facer bueno de todos los homes del mundo; e bos damos fermes e fiadores, Pero Diaz de Cenarruza, Martin Mart. de Oreitia, Joan Bono de la Renteria, Lope de Goitia; de esto son testigos Juan de Becurutegui, Fortuño de la Renteria, Pero Martinez de Munibe vecinos de Ondarroa q.a. todo esto fui presente esta Carta, é fiz en ella este mio signo en testimonio de verdad, fecha a 10 días de Julio Hera de 1391 años; de esto son testigos que vieron leer, é concertar la dicha Carta el dicho Alcalde Adan de Yarza su hermano Joan Adan, Joan Ruiz de Bernagoitia, Hermano Rui Fernando e otros».*

Obekola'ko kontratu anca antzekoak dira inguruko baserri-etxak jasoteko baserritarrekiu egiten zituen besteak be, eta unen antzerako bat gordeten dabe oraindik Markitia-Xerneiügo En-etazalaza baserriari.



Alkatea, abadea eta bertsolariak... zer pentsaten?

# ERRI BEGIZ

## BIZKAI ZARREAN.

Gaur Bizkaia'n sartzten diran eta bera osotzen daberen erriak, ez dira beti Bizkaia izan.

Asieratik esan daigun, Berriatua baietz, beti egon izan dala Bizkai barruan.

Bizkaia, 938 urtean, Araba'ko Galarraga'tik Deba'ko itxaserzeraño zan, ibaiaren bidea jarraituz.

Gero, 1027 urtean, banandu egin zan zati bat eta gure inguruan Deba erreka bitarte, eta Gorozika Arranoate, Urkaregi, Kanpanzar eta Anboto'ko mugariak bitarteko zatia Gipuzkoaren mesedera aldatu zan.

Eliáz Tejada'k, «El Señorío de Vizcaya» liburuan au diño: Antxiñako Bizkai jaurerria, gaur Markina eta Gernika'ko epaikaritzako lurraldeak osotuten dabena zala. Arl da, gure inguruan asi eta Bilbo'ko erreka ingururarte, ango erriberak jo arte. (*«El Señorío pri de Vizcaya, podemos hacerlo coincidir con los actuales partidos judiciales de Marquina y Guernica»*).

Geroago geitzen etorri jakozan errialde batzuk. Erri idegiak, au da, «tierra llana» edo lur-lauak esaten eutsenak.

Emen gogoratu bearreko da lur-lau ori eleiz-aurre edo eleiz-ateak osotzen ebela. Deitura biak erabilten dira, erderazko «anteglesia» ren orde, edo biak batera erderatu zituen erdaldunak. Ordez uriak edo erriak (villa) deitzen diranak, erri ertsI, sarratuak ziran.

XIII garren gizaldian Enkarterriak batu ziran Bizkaia'gaz.

Durango aldea batzutan Napar erregien legetan ibilten zan. Bestetan Gerediaga'ko oituretan. Ez da ziur zeaztuten Bizkaia'gaz lotu zan urtea.

Balmaseda'rena jakiña da: 1466 urtean.

Orduña, 1481. Ordurarte Aiala'ko anaitasunean bizi izan zan.

Orozko, 1785 urtean.

## MERINDADEAK

Orrela, Bizkaia biribildu edo osotu ala, «merindadetan» bereizten joan zan.

Lenengo, Busturia, Uribe, Arratia, Durango eta Orozko'ko me-

rindadeak, edo erri alkarteak.

Foru zarrean izentatuta datozen merindadeak, era onetan datoz, bakoitzak bertan eukezan eleizateen kopuruagaz:

Busturia, 26 eleizate.

Uribe, 31 eleizate.

Arratia, 7

Bedia, 2

Zornotza, 4

Markina, 2

Danetara, sei merindade eta 72 eleizate, «anteiglesia».

Foru zarreko zerrenda au aldatu egiten da Orozko geitzean, baiña ala ta guzti be sei merindade ezagutzen dira gero be, Orozko deituarren, Zornotza eta Bedia alkartu eta baten geratu ziralako.

Gaurko berrituar askok pentsatu leikie, gaurko erabideari jarraituz, eleiz-ate au, Berriatua, Markiña'ko merindadean sartuko zala. Ez da orrela, Markiña'ko merindadean Xemein eta Etxebarri sartzen ziran. Berriatua au Busturiko merindadean sartzen zan.

Beragaz batera Amoroto, Arbazegi, Arratzu, Arteaga, Bedarona, Kortezubi, Ereño, Foru, Gizaburuaga, Lumo, Mendata, Mendexa, Murelaga, Murueta, Nabarniz, Natxitu, Ibarrangelu, Ispaster, Busturi, Sukarrieta, Mundaka, Muxika, Arrieta, Berriatua, Ziarrotza eta Elantxobe. Danetara 26 eleizate.

## FORUAK ETA URIEN LEGEAK

Berriatua'k ogei ta laugarren jarlekua eukan Gernika'ko baztarretan eta era orretan deitua izaten zan bere eritzia eta erabagia emoterakotan.

Ondarroa'k, erri batu eta urien artean eukan bere jarlekua, eta onein arteko 11 garrena izaten zan. Amargarren Markiña agertzen zan.

Eleiz-ateak, euren legetzat, Bizkaiko Foruak eukezan. Uriak eta erriak, bakoitzari sortzailleak zelako legea izentatu, alakoa. Geienetan Logroño'ko erriaren oitura ta lege antzekoa.

Bizkaia'n uri edo «ziudade» bakarra dago: Urduña. Eta ogei erri-batu, erderazko «villa» diranak: Bermeo, Bilbao, Elorrio, Ermua, Gernika, Gerrikaitz, Lanestosa, Larrabetzua, Lekeitio, Markina, Miravalles, Mungia, Otxandio, Ondarroa, Gaminitz (Plentzia), Portugaleta, Errigoiti, Durango-Tabira, Balmaseda eta Areatza (Billaro).

Erri barriak sortzetan, geienetan, baserritarrak kanpoan gelditzen ziran. Eta naste (a buruansterik eta asarreak ez zan egoten. Erria bera batuta geratzen zalako, *zeatz* mugatuta lez, orma artean artuta lez. Kanpoan, iñoiz, Bizkaiko Jaunak eukezan etxeak geratzen ziran, baiña erri barrian bertakoak sartuta. Ala Gaminitz-Ylantzian.

I3ilbo'n bardin gertatu zan bertako lurraldearen barman geratu ziran baserritarrekaz. Etxeak kanpoan eukiarren, bilbotar lez ezagutzen ziran, legerako.

Lekeitio'n, ostera, kalko barruan gertatu ziran baserritarrak, bere legerako gorde zitun sortzailleak, erriko legetan sartu barik.

Areatza'n (Villaro'n) garbi esan eban sortzailleak, baserritarrak ez zirala sartzen erri au osotuten.

"Iarkida sortzean be esan eban Bizkairako errentaten eben baserriak, lengo erara jarraitzeko, erria osotzen sartu barik.

Baiña Ondarroa sortzean, nastea eta asarreak sortzeko iraspen edo fundasiñoia egin eban. Emen baserritar batzuk bai eta besteak cz euken erri barriko legetan sartzeko aukerarik. Amalio mendiko baserritarrak ondarrutar lez sartzen ziran. Besteak ez.

Ortik sortu edo orrek ekarri zitun asarre eta naigabeak.

## BERRIATUA ETA ONDARROA.

Ez da ipuiña, kontakizun garratza baiño, baiña era bat edo bestean esanda, onela jardun geink:


Sasoi baten, orain seireundak urte, Bizkaia Gipuzkoa'gaz baten dan itxas inguruan, Mutriku, Xemein, Amorado eta Mendexa bitartean, 23,46 km.2 ko lurralde bat egoan.

Lurralde ori Berriatua zan. bertan bizi ziran berrituarrak, eta bertako egal baten Ondarroa izenez ezagutzen zan auzo baten, itxastarrak. Itxastarren erabideari jarraituz, auzoa baino, bizi tokia buido, Kofradia deitzea bear ba da egokiago izango zarT.

Berriatuarrak zabal eta bakan, mendi ta lautadetan. Ondarrutarrak estu eta batu itxasoaren egalean.

Lurralde osoa, ingurua, I3erriatua'ren jaubetasuneko zan, bere legeen menpeko. Mendiak eta basoak, baserriak eta bideak, Bizkai'ko eleiz -ateen lege zarretan jokatu bear.

Itxas ertzean bizi zan arrantzale taldeak ez eukan baserrirako



gogorik, ez borondaterik. Bere inguruan, tontor baten, parroki bat egiña euken eta eleiz legez ez euren zetan beste tokietara joan; itxasoetako gizonak euren premiña ta estutasunei eutsi eta alkarri laguntzeko kofradiak osotzen asiak ziran, eta kofradi orrein bitartez ba euken nortasun berezi bat itxas bidetan.

Eta errenterua, oraingo onetan Ondarroa, bera izan zan tokia-  
ren jaube osotasun guztiz egin nai izan ebana, eta ortarako ezaupide billa ibili zana.

Orretarako Alargun bizi zan Bizkaiko Andre Ona deitzen eutsen Marina Diaz Harokoa, Bizkaiko agintari amandrea, billatu eben. Eta Andre Andi onek, ezetzik emon nai ez, eta euren tokia ormaz sarratu eta erri lez bliziten asteko eskubidea emon eutsen. Tokiak eukan izen berbera ezagutu eutsen erri barraren izentzat be: Ondarroa. Beste toki batzuetan, orrelako erri sortzeak egitean, izen barriak emoten eutsezan, Markiña'ri lez. Oraingotan itxasertz berberak eukan Izena ziurtatu. Eta bear ba da ortik ez zan sortuko asarrerik. Au agertu zan tokia eta ingurutako lurak be emon eutselaz jakitean. Iraspen edo fundasinoako belardiraiokoa, eta andik Arespakotxaga artekoa, eta ortik Isasi eta ortik Arretxe Ederraga zear, eta Alleri'rakoa, eta andik Akilla'ra, emendik itxasoan sartzan dan aitzeraio. Eta bestaldean Arretxukondua musturretik asi eta Ateguen'go sakonera eta ortik Mantxoarri errekaraiño, eta ortik Sausaten ingururaiño, Lekeitio'gaz aldatzen dan tokiraio. Toki oneik euretako mendi eta iturri guztiek in, euren urtera eta sarrekin. Mesede geiago be ba ziran. Eta askoren gain, Andre Onak esan eban: Amaloko bere nekazariak be ondarrutarren errikide izatea nai ebala eta ala agintzen ebala. Eta Gorozika be emoten eutsela, bere ondasun, lurralde eta guzti. Eta Arantzibia'ko Peru'k inguru onetan eukana be Ondarroa'ri emoten eutsala, ordez Arantzibiari bere baserritarrak eskiñi eutsezalako. Eta Ondarroa'n egoan eleiza be ondarrutarrei emoten eutsela, bere iltegi eta guzti.

Eta erri barriaren errikide egiten zitun baserritarrei, ondarrutarrek lortzen zituen eskubideak artu eta euki egiezala agindu eban.

Ori zan Maria Diaz Haro'ko Andre arek, Bizkai'ko Jaunaren Alargun lez egin ebana.

Orrek, jakiña, Berriatua bere izatean ebagita laga eban, eta bereala sortu ziran eztabaida, asarre eta naigabeak. Bereala ezin konponduak. lurren goraberan geien bat. Bitarteko, ia geienetan, Amallo mendi edo mendi orretako toki batzuetako jaubetasuna.

Ondarroa'ri, legearen aurrean erri izatera eldu eta erri antzera

ezagutu zanean, mugak ipiniarren; Irizpide baten bakegarri ziran aginduak eta agiriak, ez ziran ain argi eta ezagun eguneroko bizi-tzan. Paperetako izkia (letra) eta espiritua (esan naia) ez zan bar-din Irakurten bata eta besteren artean.

Orrela lenengotik agertu ziran ezbardintasunak. Eta eztabai-dak asarre-bide zirako, erri bakoitza berearl eusten alegintzan zan, eta ortik sortu ziran batera eta bestera joateak, bateri edo bes-teari laguntasuna eskatzen, orl bai, aurrez erri bien artean kon-ponketak egin naileko alegiñak azkenerarte eroanaz.

Ba dira agiri batzuk ondarrutarrak eta berrituarrak Pedro Es-tankona jaunaren etxean euki eben batzar batena.k, 1477 urtean, ezta-baiden eta asarreen goraberan artutako erabagi bat entzuteko.

Baiña gero be noz-nai sortzen ziran eztabaidak.

Esan eikean 1525 urtea ondo asi zala alkartasun baterako. Igarten da gain-gaiñetik alegin biziak egiten zirala alkartasun au zaintzeko, baiña aldeko asko ebillan bitartean, eta gure zarren denporetako bide ta ibillerak kontuan euki bearreko dira askotan zelan Ibili bearko eben konturatzeke be. Esandako urtean, Urtarri-lla'ren 21'an, emon eben gizon ontzat artuta egozan gizon bik eu-ren erabagia:

*«Nos Pedro (bañez de Goitiniz, vecino de la villa de Motrico, é Juan Urtiz de Zavala, escribano vecino de la villa de Motrico, é Juan Urtiz de Zavala, escribano vecino de la villa de Guernica, Jueces Arbitros tomados y escogidos por parte del Concejo de vecinos é moradores de la villa de Ondarroa de la una parte; é por parte de los escuderos hijosdalgo de la anteiglesia de San Pedro de Berriatua la de otra parte, visto el compromiso é poder por ambas las dichas partes a nos dado é otorgado, para discedir é determinar los pleitos é debates é diferencias, que entre ellos ay o se esperan a<sup>y</sup>er, sobre las causas é razones en el dicho compromiso contenidas, é sobre cada una de ellas, é avidas sobre todo información verdadera, é por quitar y evitar de entre las dichas partes escándalos é males é daños que entre ellos se esperan a<sup>y</sup>er, damos é pronunciamos la sentencia que se sigue= FALLAMOS.....)*

Gizon orreik erabagi luzea emon eben.

Eztabaidagarri ziran edo eztabaida sortzen eben guztiei buruz agertu eben euren irizpidea. Ala Errenderi inguruko mugari buruz; Zaldu, Iramategi, Alliri eta Arriaga baserriei buruz; Gorozikako etxe moltsotik kanpora geratzen ziran Allanda'ri buruz eta abar.

Artibai ibaiaren ur azpiko jaubetasuna be era bitara artzen



zan. Ondarrutarrak usare gorakoan urak artzen ebanaren alde, itxasoak inare-gorakoan estalduten eban lurra angoa zala esanaz. I3errituarrak ostea orare berakoagaz balitan eta usare berakoan agirian gertatzen ziran lurra I3erriatuarrak zirala.

Orretan Ondarroa'ri emon eutsen errazoa.

Ordez porto barman, batez be merkataritzan, Berriatua'ri nor-tasuna ezagutu eta nisedeak emoten eutsezan. Ala esan eben. Ibai eta kanalaren jaube Ondarru izanarren, itxasorarte berriatuarrak libre zirala ibai eta ur orretan. Eta itxasoaren aldetik Ondarruk euki eikeazan eskubide batzuk bitarteko egonda be, berriatuarrak libre bear chela portua, ezelako kaku eta ordaindu bearrik barik, ondarrutarrak eurentzako artzen zituen eskubide eta jaubetasun bardiitagaz.

Ifioiz erbestetik itxasoz saltzeko ekarritako janariak eta sal-gaiak sartzen ziranean, iru egunetan ikutu barik ouki bear zirala, saltzeko ordain edo prezioa erabagitu, ondarrutarrak eta berri-tuarrak eskubide bardintsuz erostera batzeko.

*«Ítem. Por quanto en los puertos de mar es costumbre, que cada é quando algunas mercaderías de cebera é de cualquier cosas que sean de comer é de beber, é que en tales puertos entrare aya de estar y esten en plancha y por quanto al tiempo en cada puerto ay su costumbre, é tomando el medio DECLARAMOS é mandamos, que cada é quando el dicho puerto, ría é canal, acudieren algunas mercaderías de cebera é de otra qualesquiera que sea de comer é de beber, que ayan de estar y estén en plancha tres días cumplidos, desde el día que entraren las tales mercaderías en el dicho puerto, ría é canal, así para los dichos vecinos de la dicha villa, como para los vecinos de la dicha anteiglesia, é que dentro de los dichos tres días no se faga venta ni reventa de las tales mercaderías, sino que estén en plancha puesto prescio como dicho es. é que en el comprar é vender, tengan los vecinos de la dicha anteiglesia la misma libertad que tienen los vecinos de la dicha villa». («Sentencia arbitraría de entre la villa y la anteiglesia»).*

# URTE GARRATZAK

Ezin ukatu, Ondarroa'ri erri nortasuna emon eutsenetik gero-ra, urte garratzak igaro zirala.

Aurreratxoago aitatu dogu 1525 urtean gizon on birek ikastaro sakon bat egin ondoren emon eben erabagia.

Orren ondorenez, 1538 urtean egin zan bien arteko mendien banaketa.

1546 urtean Eizmendu'ren buruzko goiko erabagi bat egon zan.

1669 urtean barrero nasteren bat egon zan auzo orretan eta Ondarroa'ko erriak nasteren bat euki eban angoekin, orduan oiturazko zan lez agintariak «bastaioa tente» erabiliaz bertara joanaz etaabar.

Orrelako eztabaida eta ezin konponduak noz-nai agertzen ziran, baiña egia esateko, alkarren edo bakoitzaren erri-izateari bere osotasunean ikutu barik.

Alaz eta 1665 urtean, orduan agintari ziranen alegin bat eza-gutu zan Bizkai guztian, erri batzuk besteen menpe ipinteko, erriei alkartu eragiteko, edo ta batzuei nortasuna kenduaz, auzokoaren baten agintaritzapean galtzeko. Gogoratu urte orretan Bizkaia'n 112 Udal egozala, eta politika orren bidez 53 Udal edo erri baka-rikerri geratzea billatzen zala, beste 59'ri euren ateak itxi eta auzoetan makurtzera beartu eragiñaz.

Inguru onetan, Lekeitio'k artzen zitun edo artuko zitun Amorroto, Gizaburuaga, Ispaster eta Mendeja.

Markina-Xemein'ek Arbazegi-Gerrikaitz, Ziarrotza, Etxebarria eta Murelaga.

Eta Ondarroa'k Berriatua.

Goi bultzada ori, ezin ukatu, agintari nausiak eurak aukeratu-tako alkate batzuen mende erriak eukiteko jobide bat zala, eta erri orreitan politika bateko idazkari eta diru-ardulari zintzoen ardurapean.

Erri batzuk, edo aurretan bizi ziran batzuk, aukera egokia ikusi eben auzo erriei onez makurtu edo gogotzarrez alkartu eragiteko.

Orrela sortu zan Ondarroa'n be batasun aize ori eta eragin orreri jarraituz, Ondarroak, 1969 urtean, Berriatua bere menpean sartzea eskatu eban. Martia'ren 27'an zan ori.

Urte berean, ogei ta bost egun geroago, au da, Apirilla'ren

21'an, alkartze edo aneñño orren agindu (dekretu) bat agertu zan. Berriatua'k, ori ikusita, gora jo bearra euki eban.

Agindu (dekretu) orren asieran onako au esaten zan: «*Por resolución del gobernador civil de Vizcaya, convalidada posteriormente por el Ministerio de la Gobernación, se acordó iniciar, de oficio, expediente para la incorporación del municipio de Berriatua al de Ondarroa*». Eta geroago: «*se aprecia la existencia de notorios motivos de necesidad o conveniencia económica o administrativa...*»

Esan dan lez, gora joten egin zan. Auzitegirik gorenera, an ezaupidea billatuz zuzentza egingo zalakoan. Baina 1973'ko Azaroaren 12'an, Auzitegi gorenak Ondarroa'ren «premiña» ezagutu eta bcre alde emon eban irizpidea.



Orren ondoren, 1974'ko Urtarrilla'ren 1'an, Madrid'eko Mistroen batzarrak bat egitea erabagi eban.

Aldi orretan Ondarroa'k 2,41 kilometro lautu eukazan eta Berriatua'k 20,95. Bizilagunez Ondarroa'k 8.349 bizilagun eta Berriatua'k 2.546.

Ori zala ta urte batzutan Berriatua'k izena be galdu egin eban agintarien aurrerako eta dana egin bear zan, zerbitzu, kontularitza eta abar, Ondarroa'ko auzo edo menpeko lez.

Gero, 1980 urtean, politika giro barri baten, Ondarroa'ko alderdi politikoak Berriatua'ren eskubidea ezagutu eben, eta gertu agertu ziran lengora biurtzeko, erri bakoitzak bere nortasun eta duintasun osoa artuta, eta giro orretan alkar arteko konponketa egin eben, legearen arabera gauzak erabagitea lortu artean.

Era orretan 1981'ko Urte barri egunetik asita, erri au barriri bere jaubetasunagaz asiko zan, 1980'ko Apirilla'ren 25'an agertu eban Mugaekiko egitasniu baten barruan.

Orrela, 1983'ko Azaroa'n, Gernika'ko Batzar etxean, Bizkai'-ko Batzar -Nagusiak euki eben batzar orokor baten, aldebanatzeko egitasmu\_, ontzat artuta geratu zan. Azaroa'ren 8'an zan ori.

Baimen ori zan azkatasunerako bearrezko baldintza, eta andik egunetara, Azaroa'ren 25'an Boletinean agertu zan eta Gabonilla'-ren 11'an izentatu zan udal barria eta ordutik, Berriatua, ofizialki, barriri eskubidez, izatez eta legez, bere buru jaube geratzen zan eta kontu eta abarretarako nortasun osoa barriri eskuratuta geratu.



Orrela, egun batzuk falta ziralako, Berriatua'k Ondarroa'ko Udalari itxi eutsan urtea ordurarte lez amaitzea, eta 1984'ko Urte Barritik betetasun guztian Berriatua lengora biurtu eta bere bide

jatorrean asi zan.

Aldebanatze au Berriatua'ko Udaletxean izenpetu eta emengoak inoren itzal barik bizi-al izatea ziurtatu zanean, egun berean erri guztiak jairik andiena ospatu eban, eta erri-bazkari zabal eta anaitasuneko baten alkartuta, amets barriak egiten asi.

Amar urtetako utsunea eten zan eta gizaldietako nortasunera biurtzea lortu, ain eztabaidatsu ziran mugaetan errien bien arteko aldakuntza batzuk egin edo sartuaz.

Gogoratu bearreko da, 1867 urtean egon zala Udalak erabarritzeko lege bat. Orduan udal nortasuna eukiteko, erri azke lez geratzeko, 200 auzokide edo etxetako buru bear ziran eta Berriatua'k 213 eukazala ziurtatu al izan eban eta nortasunez jarraitu.



# ELEIZ BEGITIK

## PARROKIA

Bizkaia'n, lenengotan, parroki gitxi egozan. Ez beintzat erriak aña parroki. Ez eta gtxiagorik be. ErmItak ugari.

Jakiña da emen, Berriatua'n, parrokia jaso aurretik, Pedro deunaren omenezko ermita ba egoala. Toki zabal eta aizetsuan egoala, diño paper zarrak.

1072 urtetik asi ziran BizkaI'ko aberats eta jauntxu batzuek euren,ingurutan eukezan ermItak parroki biurtu nairik.

1095-1179 urte bitartea emoten da parroki askoren sortze denpora lez, geienetan orduko jauntxoak euren etxeak eukezan inguruetan. Askotan urteetako jauntasuna zaintzeko ardura eta kez-kaz. Eta parrokiak eleiza legez artzen zituen amarrenak eurentzako-  
kotu nArik, parroki orreitan ipinten eben alegiñaren truke, parro-  
kietáko patroí egin eta geratuz.

Bizkaia'n denpora orretan sortuak dira:

Arteaga'ko Santa Marie.

Arratzu'ko Santo Tomas.

Erandio, Getxo, Gatika, Lamindano eta Urduliz'ko Andra Mari..

Sopelana eta Berriatua'ko San Pedro.

Ordurarte, Berriatua'ko parrokia, Lekeitio'koa zan.

Auzo eta errietan egozan eleizak, parroki izatea lortzen ez ebena, bizibide neketsua emoten eutsen bertakoei, bai bataioetan eta eriotzetan eta beste kristau bideko jokabide askotan, parrokietara joatea beartu eta zintzo zaintzen zalako.

Parroki orreik alako jauntxotasun bat artzen eben, gaiñera erri txikietako eleiza eta ermiten oitura, erabide eta zaintzetan.

Sinistu eziña edo gaitza da Ondarroa'n parroki bat egon, ain zuzen be Berriatua berberaren lurretan, eta berrituarrak Lekeitio'-ren menpeko izatea eleiz jokabidean.

Lekeitio'ko parrokiaren menpeko ziran:

Berriatua, Amoroto, Gizaburuaga, Ispaster, Mendexa eta Bedarona.

Euretatik lenen banandu zana, edo berberaren lurraldeak parrokia ipintea arinen lortu ebana Berriatua izan zan, XII garren gizardian. Amoroto, Gizaburuaga eta Ispaster'ek menpetasun orre-

tan jarraitu eben 1519 urte arte. Erri erreik azpaldi ebiltzan curen burujaubetasuna lortu nairik, baiña Lekeitio'k gogor eusten eutsan bereari. Azkenean be, orduko Bizkai'ko Jaun ziran Errege Katolikoak, eskabideei gor egin eziniik, Alejandro VI Aita Santuari ala eskatu eta parroki osokotzat geratu ziran erri buruetan.

Mendexa, (Uskola'ko san Pedro) 1545'n banatu zan eta ge-roago oraindik Bedarona.

## TOKIA

Berriatua'ko parrokia, len esan dogun lez, Pedro deunaren ermita egon zan toki berbertan jaso zan.

Ba dirudi ez zala parroki andi edo sendoa izan.

Batzuk diñoenez, laster igarri zan barriztu edo anditu bearra.

Oraingo parroki au geroagokoa da, lengoaren barriztapena, eta XV garren gizaldiaren azkenetan asi eta XVI garren lenengo ogeita amar urtetan amaitu zan. Alaz eta Iturriza lako kondaira egilleak onelako au idazten dau ortaz jardutean: Lengoaren barriztapen osoa egin zala, kare arriz, 1588 eta urrengo urtetan. 92 oiñeko zati bakarra daukala, eta 66 zabalean, bobedakin, sei aldare, 128 illobi eta beste gauzekin).

*(Tiene una iglesia parroquial de la aduocación de san Pedro, fundada por sus feligreses diuiseros en el siglo XII, en el plano de un pequeño ribazo; la cual reedificada de nueva planta con piedra sillar caliza el año 1588 y siguientes, es de una nave de 92 pies de longitud y 66 de latitud, con bóvedas, seis altares, 128 sepulturas, órgano, cimiterios y torre de frontis. Hay para su servicio cinco Beneficiados, tres de entera ración y dos de media, establecidos por el reverendo Obispo de Calahorra, don Juan Ochoa de Velasco, en Burgos, a 6 de Junio de 1512, por cuanto no había número determinado hasta aquel tiempo; cuya presentación pertenece al Conde de Peñafiorida como dueño de la casa solar de Aranzibia, gozando las décimas a medias con el Cabildo de dichos Beneficiados, titulándose patrono y divisero, por merced obtenida de los feligreses, Martin Rodriguez de Aranzibia y confirmada por la Santidad de Alexandro VI en 17 de Febrero de 1498»).* (Historia General de Vizcaya. J.R. Iturriza).

## ELIZTARRAK ETA PATROIA

Esan lei Arantzibiatarren patroitza ez zala ain atsegin jausi errian.

1502 urtean eztabaidak ezagutzen dira errian, Parrokiko aba-

deak aul:cratzcan, erriad: berak aukcratu itai zitulako.

1512-1522 bitartean, eztabaida p;ciado eta garraztasun aciago erri eta Patrioiaren urtean. Erriak esaten clan abade barriak atke-ratzeko, edo obeto escuda, agertzeko, alet?;itia berak can—corren, erria zala izcntaut bear zituna.

Orit^aitil: LeioaN)) cain eta artutako crabagictan igarten da be-lo-tatuan-en naia uta zala: cz ezar(utzca eleiz-ondasuticzko scntetzat, edo ta berrituattzat, eleizako abade izateko, bertoko parrokira a ma' renak catan edo tu bertako parrokiko eleiz.tar lez sartzen zanca seme izan ezik. KalaLurriko gotzaiñak ontzat entott Bitan gura-ri ari.

Baiña Arantzibiaturreal: curen eskubidcrl: ez eben czctara be laga nai. I?skubidc orreri lotuta cbiltzutt, e urentzako eritzi bardit-ticl:o eta curen aldeko abadeal: eukitea erriagan indar andiko au-kerazalako. Eta uzkcncan be, hear da beste gataza batzuetan bakea cgitcarrct, I3crriatuako erriul: bere citan eskubidea Arautzibia'ko l'ortun'eri laLa entsaut, parrokiko abadrul: berak anrkestu eta aukcrutzeko. Ori lagateko, eskubide ori emoteko, aurrez. I3arriatua'ku erriul: zeatz eta garbi eskatu citan, eta agindu eragin, bertako abade izan beati ebenak, eleiz-ote onetako semeak izan bearko zirala, san Pedro parroki berbertan butuiatuak, eta eleizari amanrcual: es-kintzen zittentctt, semeak.

Ontaz Estattislaio i,ahuvrt't'k, bere kondairan ata diño:

*«El concejo y vecinos de la anteiglesia de Berriatua pretendieron en sus discordias con la casa de Arancibia, proceder al nombramiento de sus beneficiados.*

*En este año (1511), entre varios estatutos que se formalizaron por escritura pública, ha de señalarse el séptimo de aquellos, por el cual se prevenía que no se admitiría ni consideraría como hijo patrimonial y natural de la anteiglesia para los beneficios de su parroquia a quien no fuese hijo de diezmero y de vecino parroquiano de Berriatua, estatuto que confirmó el Iltrno. Señor D. Juan de Velasco, Obispo de Calahorra en esta época, y más tarde también el Ilmo. Sr. Don Pedro de Manso (1604).*

*A los diez años del capitulado referido, hallándose el concejo de Berriatua metido en pleitos con la casa de Arancibia, patrona de la parroquia a quien se disputaba el nombramiento y la presentación, cedió a Fortun (bañez de Arancibia, hijo de Martín Ruiz de Arancibia el nombramiento, elección y presentación de los expectantes de los beneficios, con la condición rigurosa de que los candidatos habían de ser nacidos en la*



*anteiglesia, bautizados en san Pedro de Berriatua é hijos de padres vecinos y diezmantas de ella. Y así se proveyeron en adelante las canónicas instituciones de los beneficiados de esta república».*

(E. Labayru, *Historia de Bizkaya*, T. IV, 50 orrialdean).

Eta Labayru berberak, bere liburu orretako atal bardiñetan, oar lez beste au geituten dau:

*«Desde 1512 a 1522 se sostuvieron muchos litigios entre el elegir el pueblo el beneficiado y el presentar el patrono».*

Orrelaxe gertatu zan andik aurrera.

Onelako eskubideak jarraitu egiten dabe, eta gure denporetan amaitu zala esan geinke, onelako eskubieetaz Batikanoko azken Eleiz Batzar Nagusiak artutako erabagi eta aolkuen ondorenez.

Eskubide ori Peñafiorida'ko kondearen gain ezagutu izan da azken denporetan. Orrelako eskubidea parroki geiagotan be ba eukan berak, au da, emen eta Xemein, Mendata eta Gipuzkoa'ko Astigarribi'n. Kontuan euki bear da Peñafioridatarak 15 maiorazgo eukezala eta curen artean larogei ta amalau (94) baserriren jaubetza inguru oneitan.

## PARROKIKO GORABERA BATZUK

Parrokia egin eta oneraspen edo deboziño andia lortu eban bertako irudietako bat Ama Neketakoarena izan zan. Karidadeko Ama deitzen eutsen bertakoak.

I3eintzat, azken-nai edo testamentutako baten, onelako au bi-latzcn da. 1575 urtekoa da, Juan Basozabal'ek lagatako dirutzen artean: *«Ítem mando que en n/Sra de la Caridad, en el altar de las perdonanzas, se diga otra misa...».*

Markina'ko Juan Ibaseta'k, denpora bardiñean, 250 dukat laga zitun, aldare nausiko erretaula egiteko bear zan laguntzarako.

Kanpai andia 1634 urtean moldeztu zan, fundidu. Markos Bustinzuri'ko zan orduan bertako diru arduradun edo maiordomu.

1607 urteko paperctan, parroki erakundean lau Kofradi ego esaten da: Sakramentu sautuarcna, Vera Cruz, Errosarixokua cla Jaunaren izenekoa.

1946 urtean, su ikaragarri bat egon zan eta eleizaren cgiturau kalte andiak cgiñarren erritarren alegin eta laguntzaz eleiza egokitu eta bertako serbitzua barriro zabaltzea lortu zan.

## IL ONDORENGO LOTURAIL

Euskaldunak, il ondoren, eleizagaz lotura asko lagaten zituen edo artzen ziran.

.Jakiña da, ortik kanpora he ha egozala len, eta gaur be hai oraindik, oiturazko egitada batzuk.

Esate baterako, toki askotan il ondoren gorputzari oiñak lotuten eutsezan: I3este batzutan, etxeko tellak kendu, «arimeak lenago urteteko». I3estctan, gelako leioa zabaldu, au bc arimari urteera erraztutearren. Erlcak eukezanak, erleci jakin eragiten eutsen eriotza, argizaria cgiten jarraitu egien.

I3a dirudi emen onelako oiturak azpaldi galdu zirala, eta bear ba da, batzuk cgon be ez zirala egin.

I a dago onctaz libu<sup>u</sup> bat, «Euskalerrria eta Eriotza» izenez Ancs Arrinda'k 1974'n argitaratua.

Berak itaun askodun orri bat bialdu eutsen parrokiatako arduradunai, eta emen arduradun cgoan Pedro Zalloctxcbarria jaunak erantzun oneik emon zitun gai onetaz:

Sepulturak elizan?- I3ai.

Etxe bat saltzen danean, scultura bc saltzen etc da?- Ez dot ustc aitatzen danik sepultura ixenik.

Sepulturetan ezer egiten al da?- I3ai, otoitzak. Erresponsoak jai egunetan urte barruan ildakoen alde. Lcnago ogia eskintzen zan.

Gorputz bideak, zaintzen etc dira?- Bai, baina galduaz doaz.

Euren izena: anda-bidc.

Euretatik gorputzagaz igarotean, abadeak Pater Noster bat otoiztuteu dabe.

Gorputz bidetik kanpora pasa ezkcro, sortzen al da andik aurrera bertatik pasateko eskubiderik?- Ez.

Sepulturako argizaria, oletan batzen al da?- Bai. Izena: urgizariola.

Obiratzen ondorengo bazkariak, ba al dira`?- Orain cz. Leenago bai, geienentzako.

Zegaitik kendu ziran, liturjia barriagaitik?- I3ai eta ez.

Illeta eguneko ofrendarik? Ez.

Segimenturik egiten al da?- Bai. Gizonak aurretik: lenen etxeko senideak. Emakumeak ondoren.

Zer esanik ez, oraindik gure etxe eta baserrietan, norbera be konturatzen ez dan jatorrizko oituref eusten danik. Alaz eta be guk liburuetan idatzia agertu nai ízan dogu.

# GERNIhA'KO BATZARRETAN I3ERRIATUA'K IUKITAKO ORDEZKARIAK



1.558.- Peru S. IhAR( EN.  
 | 558.—Juan I^|JTOLA.  
 | 559.- Peru ILL\RG'I? \.  
 1560.- Ranani SOLAILARRIITA.  
 1562.-.Juan ORTIZ IJAS ERRA.  
 | 562.-.Juan AL"IA MIRA.  
 1565.- R. SOLOJARRIETA.  
 | 565.- Martin R. ZUJIALDI?.  
 | 569.-.Juan I I'GI;R"IP,GI.  
 1571.- Domingo A'IALLUGO1-  
 RIA.

| 571.- R. SOI;OI1ARRIE'IA.  
 | 572.- Peru GARDUZA.  
 | 574.- Esteban A8TERRIKA.  
 | 575.- Peru SUSTAU.  
 | 576.- Martin ASTERRIA.  
 1576.- .Juan O"IXOA ASTI;-  
 RRIKA.  
 | 577.- Ranm >s IKATZA.  
 1579.- Domingo LAKA.  
 1582.- Domingo KAI%AGORTA.  
 1582.- Martin P,TXI?I3ARRIA.

- 1583.- Martin ALBIZ eta Martin ETXEBARRIA.  
1585.- Peru GARDUTZA.  
1586.- Martin ORTIZ AGIRRETXEA.  
1589.- Domingo KALZAKORTA.  
1591.- Juan O. BARROETA.  
1593.- Migel LAKA.  
1595.- Domingo LAKA.  
1596.- Pedro MUGERTEGI.  
1597.- Hernando BUZTINTZA.  
1597.- Hernando BUSTINZURIA.  
1599.- Juan BEITIA.  
1602.- Aparicio SUSTAETA.  
1603.- Juan GARDUTZA.  
1604.- Joan AULESTIARTE.  
1605.- Juan AGIRRE.  
1606.- Juan AXURRA.  
1607.- Domingo GAMBOKORTA.  
1609.- Juan BEITIA ASTERRIKA.  
1610.- Joan ALZAA.  
1610.- Juan O. ZABALA.  
1611.- Pedro URKIAGA.  
1612.- Sebastian SUSAETA.  
1613.- Domingo LOPESOLO.  
Urte berbertan geroagoko baztarrean Domingo ALDASOLO.  
1613.- Domingo GAMBOKORTA.  
1615.- Juan GARDUTZA.  
1616.- Pedro ARRASATE URKIAGA.  
1617.- Juan LAKA.  
1618.- Diego IKARAN.  
1618.- Martin GARRAMIOLA.  
1620.- J. BEITIA AZTERRIKA.  
1621.- Juan ARÄATZAMENDI.  
1622.- Martin EGURROLA.  
1623.- Martin ELEXPURUA.  
1624.- Martin ITURRINO.  
1625.- Martin ZUBIAUR.  
1625.- Juan R. ALZAA.  
1625.- Juan M. DONDIZ.  
1626.- Juan ARANA.  
1627.- Juan BUSTINZURI.  
1628.- Domingo KATAEGI.  
1629.- Martin GAMIOKORTA.  
1629.- Juan ALZAA.  
1629.- Nicolas MUGERTEGI.  
1630.- Juan KAMINO.  
1630.- Nikolas MUGERTEGI.  
1630.- Nikolas MUGERTEGI.  
1632.- Pedro URKIZAGA.  
1634.- Pedro MUGERTEGI.  
1634.- Marcos BUSTINZURIA.  
1635.- Domingo LAKA.  
1636.- Martin EGURROLA.  
1637.- Martin EGURROLA.  
1638.- Martin R. ZUBIALDEA.  
1638.- Antonio KATAEGI.  
1639.- Marcos BUSTINZURIA.  
1638.- Domingo ELEXP\_URUA.  
1640.- Juan MUGARTEGI.  
1640.- Tomas OLAETXEA.  
1641.- Rafael MUGARTEGI.  
1642.- Juan MUGERTEGI.  
1642.- Domingo GARRAMIOLA.  
1643.- Martin AULIKIZ.  
1640.- Juan Beltran GARDUTZA.  
1645.- Bartolome EGURROLA.  
1646.- Marcos BUSTINZURIA.  
1646.- Martin R. ZUBIALDEA.  
1647.- Domingo ELEXPURUA.  
1648.- Martin EGURROLA.

1649.- Juan R. ALZAA.  
 1650.- Martin EGURROLA.  
 1651.- Martin EGURROLA.  
 1652.- Francisco KATEGI.  
 1653.- Domingo ARKOTXA.  
 1654.- Juan BETOLAZA.  
 1655.- Martin ZUBIALDEA.  
 1656.- Rafael MUGARTEGI.  
 1657.- Cipriano BURGANA.  
 1658.- Juan F. MUGARTEGI.  
 1660.- Juan LEKOIA.  
 1661.- Mateo IBASETA.  
 1662.- Martin ZUBIALDEA.  
 1663.- Martin ALIPASOLO.  
 1664.- Pedro LAKA URKIA- DARTE.  
 BASO.  
 1665.- Domingo GARRO LAKA.  
 1666.- Pedro MUGARTEGI.  
 1667.- Tomas GAMBOKORTA ALIPASOLO.  
 1668.- Martin EGURROLA GASTUNA.  
 1669.- Pedro MUGARTEGI.  
 1670.- Juan ANDONEGI.  
 1671.- Domingo AULIKIZ. LAKA.  
 1666.- Pedro MUGARTEGI.  
 1667.- Tomas GAMBOKORTA ALIPASOLO.  
 1668.- Martin EGURROLA GASTUNA.  
 1669.- Pedro MUGARTEGI.  
 1670.- Juan ANDONEGI.  
 1671.- Domingo AULIKIZ.  
 1672.- Pedro MUGARTEGI.  
 1673.- Pedro ASTOBIZA.

1672.- Pedro MUGARTEGI.  
 1673.- Pedro ASTOBIZA.  
 1674.- Francisko KATAEGI.  
 1676.- Juan Ramos IKARAN.  
 1677.- Pedro LAKA URKIA- BASO.  
 1679.- Juan KATAEGI.  
 1680.- Juan IKARAN.  
 1682.- Martin MUGERTEGI.  
 1684.- Berbardo AGIRRE OLA ETXEA.  
 1686.- Domingo ATXA.  
 1688.- Juan IKARAN.  
 1689.- Juan ANDONAEGI BI- DARTE.  
 1689.- Baltasar ANDONAEGI.  
 1689.- Baltasar BIDARTE.  
 1689.- Pedro MUGERTEGI.  
 1690.- Juan ANDONAEGI BI- DARTE.  
 1692.- Domingo LASA.  
 1614.- Pedro KATEGI.  
 1696.- Martin ETXEBARRIA.  
 1697.- Juan BEREIKUA.  
 1698.- Hilarion ARRASATE URKIAGA.  
 1699.- Domingo KASADUA.  
 1700.- Domingo AULIKIZ.  
 1702.- Migel IBASETA.  
 1702.- Nicolas UBILLA.  
 1710.- Juan OLABE.  
 1710.- Pedro MUGERTEGI.  
 1722.- Domingo ZALDUA.  
 1720.- Juan PLAZA.  
 1722.- Bartolome EGURROLA.  
 1726.- Dionisio EGURROLA.

- 1728.- Joakin LAKA, eta Ignacio VILLARREAL, eta Juan Jose ANDONEGI.
- 1730.- Juan Jose ANDONEGI.
- 1730.é Jose A. MUGERTEGI.
- 1732.- Jose IBAZETA.
- 1734.- Manuel GARRAMIOLA. Gregorio TORRE OLABE-ren ordez.
- 1738.- Domingo GARRAMIOLA.
- 1739.- Juan BEREIKUA.
- 1742.- Juan ARRIOLA.
- 1744.- Tornas ZABALA.
- 1744.- Pedro MUGERTEGI.
- 1745.- Jose BENGOETXEA.
- 1746.- Domingo ELORDI.
- 1746.- Andres LAKA.
- 1748.- Jose A. MUGARTEGI.
- 1748.- Domingo IBARRA.
- 1750.- Francisco PLAZA.
- 1750.- Jose A. MUGARTEGI.
- 1752.- Domingo IBARRA.
- 1752.- Jose A. MUGERTEGI.
- 1754.- Jose ASTEGI.
- 1756.- Jose PLAZA.
- 1758.- Jose ELORDUI.
- 1758.- Jose ASTEGI.
- 1759.- Jose BENGOETXEA.
- 1760.- Simon LIZARANZU.
- 1762.- Manuel ASTEGI.
- 1764.- Martin BURGANA.
- 1766.- Jose A. ASTARLOA.
- 1766.- Domingo ZABALA.
- 1768.- Domingo ZABALA.
- 1770.- Domingo IBARRA.
- 1772.- Jose ERKIAGA.
- 1774.- Domingo IBARRA.
- 1774.- Mariano OLAETA.
- 1776.- Domingo IBARRA.
- 1778.- Domingo IBARRA.
- 1778.- Domingo IBARRA.
- 1780.- Mariano OLAETA.
- 1782.- Juan GOJENOLA.
- 1782.- Pedro MUGARTEGI.
- 1782.- Ventura ARROSPIDE.
- 1784.- Pedro MUGARTEGI.
- 1784.- Domingo OLABARRIA.
- 1786.- Domingo IBARRA.
- 1786.- Juan KOSKORROZA.
- 1788.- Domingo IBARRA.
- 1789.- Domingo IBARRA.
- 1790.- Bartolome ARAMBARRI.
- 1792.- Juan Martin EIZAGIRRE.
- 1793.- Juan Martin EIZAGIRRE.
- 1794.- Juan UBEROAGA.
- 1794.- Domingo IBARRA.
- 1795.- Domingo IBARRA.
- 1796.- Juan Jose IBAZETA.
- 1798.- Jose ARRASATE.
- 1800.- Juan EIZAGIRRE.
- 1801.- Pedro KALZAKORTA.
- 1802.- Jose PAGOAGA.
- 1802.- Antonio ALDAPE.
- 1806.- Jose GOJENOLA.
- 1806.- Antonio ALDAPE.
- 1808.- Andres PLAZA.
- 1812.- Juan EIZAGIRRE.
- 1814.- Jose I. ARRIOLA.
- 1815.- Manuel ARANA.

- 1818.- Tornas AGIRRE AMALLOA.
- 1820.- Juan PLAZA.
- 1823.- Fernando PLAZA.
- 1824.- Fernando PLAZA.
- 1825.- Fernando PLAZA.
- 1827.- Tornas IZAGIRRE.
- 1829.- Juan D. ELORDI.
- 1830.- Domingo ZABALATEGIA.
- 1831.- Jose KALZAKORTA.
1833. Jose ANAKABE.
- 1833.- Manuel FORURIA.
- 1839.- Andres BASTERRETxea.
- 1841.- Pedro PAGOAGA.
- 1841.- Jose GOJENOLA.
- 1844.- Martin OREGI; sustituto de Juan D. ELORDI y Ramon GABIOLA.
- 1846.- Santiago PLAZA, sustituido por Andres PLAZA.
- 1848.- Pedro ANAKABE.
- 1848.- Juan Tornas IDOETA.
- 1850.- Juan J. ALDAZABAL, Pedro PAGOAGA'ren ordezko.
- 1852.- Jose ALZOLABEA.
- 1852.- Fernando PLAZA.
- 1854.- Jose M. LERTXUNDI.
- 1854.- Jose M. URKIDI.
- 1854.- Jose ALZOLABEA.
- 1854.- Jose M. EIZAGIRRE.
- 1856.- Juan Bta. ALEGRIA.
- 1856.- Jose EIZAGIRRE. Juan Bta. ALEGRIA eta Jose ALZOLABEA'K ordezkatuta.
- 1856.- Jose D. GOJENOLA.
- 1858.- Jose ALZOLABEA, Jose PLAZA'K ordezkatuta.
- 1859.- Domingo ZABALA. Jose Tomas URKIZU eta Jose ALZOLABEA'ren ordez.
- 1859.- Jose IRUSTA. Jose T. URKIZU eta J. ALZOLABEA'ren ordez.
- 1860.- Jose URKIDI. Jose ALZOLABEA'ren ordez.
- 1862.- Francisco ERKIAGA. J. D. AZPIRI'ren ordez.
- 1864.- Juan Bta. ARNEDO. Jose PLAZA'ren ordez.
- 1866.- Pedro ANAKABE URKIZA, Juan Bta. BERNEDO'ren ordez.
- 1868.- Joakin UGARTEBURU. Pedro J. ARRIOLA'ren ordez.
- 1870.- Pedro J. ARRIOLA. Juan Bta. BERNEDO'ren ordez.
- 1870.- Manuel MURGA MUGARTEGI, Jose ARRIOLA'ren izenez.
- 1870.- Andres ZUBIKARAI ARRIOLA. Jose ARRIOLA'ren ordez.
- 1872.- Juan D. AMALLOBIETA. Manuel MURGA eta Andres ZUBIKARAI'ren ordez.
- 1876.- Jose M.<sup>a</sup> URKIDI. Pedro ANAKABE eta J. M. GOROSTOLA'k ordezkatuta.
- 1876.- Pedro LAKA AZPEITIA. P. ANAKABE eta J. M. GOROSTOLA'k /:Irdezkatuta.
- 1876.- Pedro ANAKABE URKIZA. Jose URKIDI eta Pedro atuta.\*
- 1876.- Pedro LAKA AZPEITIA. J. URKIDI'k ordezkatuta.
- 1877.- Jeronimo IRUSTA ELORDI. F. A. ERKIAGA'k ordezkatuta.
- 1877.- Francisco ERKIAGA. J. IRUSTA'ren ordezko.

# SAN GREGORIO

## ETA ELEIZAKO OLATAK

Berriatua'ko patroictako bat da.

Bere ermita euki eban, eta Udaletxea erre zanean, 1956'ko otsailla'ren 16'eanean ermita bera be crre zan.

Arrezkero deun orlen irudia parrokian gordeten da.

Antxiñatik dator bere jaia ospatutea.

Jai oneri buruz, berrituar batzuk euki cben zerbait, egun orretan egin bear zan olata bitarteko zala.

Ori zala ta egon ziran eztabaida eta erasoctan, Aulikiz baserriko oriordeko zan Jose Kalzakorta gogor agertu zan, itxuraz. 1829 urtean zan ori. Eta parrokiko abadeak gora jo eben, ofrendako oitura zaindu eta bera kentzearen billa cbiltzanean aurkako zigorra eskatzen.

Bitarteko bat aukeratu eben ortarako.

Eta onek gora bialdutako agiria, paper ofizialean egiña da, eta gain gaincan ezaugarri oneik daukaz:

Sello 4.. HJSP. eta IND.R. FERD. VII. D.G. Año 1829  
40 mrs. (Errege ikur edo eskudoa).

Eta bertan diñona euskeratu nai izan dogu liburu onetan sar-tzcko. Onela diño:

«Jose Patricio Hoyo, Berriatua'ko parrokiko eleiz-gizon taldearen izenean, eta komeni danean curen ordezkotza agertzeko gertu nagon au, Zugana nator, legearen araberan egokien dan eran. Eta diñot:

Erri aretako baserritarrak, curen igali eta frutueta eukiten zituen kalte eta galtzekin minduta, batez be larrapote, matxinsalto, ar eta beste piztien zitalkeriz, akordu batera eldu ziran eleizgizonekin batean 1673 urtean; urtero, bizi guztian, Gregorio Ostiarraren eguna ospatuten dan Maiatzeko 9'an jai egingo ebela, eta ortarako ziña egin eben. Eleizgizonak beartu egin zituen meza ixil bat esatera, Madalena-Arantzadiko eleizan, Gregorio deunaren jai-eguna baiño egun batzuk lenago, eta bere egunean meza nausi bat, iru abadekoa. Eta meza nausi orren ondoren ibildeunean parrokira biurtzean, eleiz ondoko kanposantutIk eta eleizpetik lau aldetara bedeinkapenak jaurtitera. Eleiztarrak, curen aldetik, bizi guztirako eskintza au egin eben, domeka eta jai egunetan lez Maiatza'ren



9'an ogi eskeintza egin ezetan gitxitu barik, eta beste amasei errial belloneko emon, meza, ibildeuna eta bedeinkapenen orde.

Ortiz zabal eta argiago dagoz 1673 urteko Martiaren 5'an egin zan ituneko (tratuko) idazkian. Idazki ori Ondarroako eta Busturi merindadeko eskribadu zan Domingo Olarra'ren testigantzaz artu zan eta urte bereko Maiatza'ren amabian Gabriel Esparza gotzain jaunak ondo ikusia emon eban, orain agertzen dodan berbera ala zala, zin egiñaz.

Agiri orren bidez igarten da Berriatua'n domeka eta jaietan ogia eskintzeko oiturea egoala, eta eleiztarrak Gregorio deunaren egun onetan bardintsu egitera beartu zirala.

Eta esana lez, zintzo bete zan oitura ori luzaroan.

Baña parroko abade taldea konturatu da Aulikiz baserriko Jose Kalzakorta eta beste erritar batzuk, eskintza orreik egitea aldatu nai dabela, kontuan euki barik Garbitokiko Arimak eskintza orretan arduratuak dirala, eta Eleiz aretako etxe eta baserri guztiak, illobi edo «sepultura» ornidu zirala, jaietako eskintza eta argia biztutearen orde, eta orren ordeko lez, illei illetak eskintzeko oituraz.

Joera onek ekarri leiken kalteaz aurrez konturatzea komeni da, bear dan sendagaia ipinteko. Domeketako ogi eta olata Berriatuan onartuta geratu ziran itun aren bitartez, eta zuzena da domeketakoa zaindu eta Gregorio deunaren egunekoa be bardin egitea. egIn zan ituna indarrean euki eta lengo oiturak jarraipena euki dagian.

Origaitik, Jaun agurgarri, Berriatua'ko parroko abade taldearen izenez eskatuten dautsut, lengo oitura orrein mesedean ziurtatu dagizula, abade taldea, domeketako eta Maiatzeko 9'ko ogi eskintza eta olata bete eragiñaz, ezetan aldatu barik, ortarako Epaikaritzaren orrek ezarri leiken zigorpean. Eta kontuan eukita Gotzaingo au eratzen daben sinodo araez onartuta dagola, eta ez Patroi, Epaikari edo Erri agintez, eta ez bakarrekoen indarrez be, ezin leikela galerazo, exkomikatze arriskuz, ori beteterik, eta jakiñaren aitzakiz iñok ukatu barik.

Zuzentasuna eskatzen nator, eta ortarako zin egin bear ba da, zin egiteko gertu nago.

Izenpetuta: Jose Crespo.

Eskabide onek eraaltzun au euki eban:

«Gu, Bixente Ruiz Gordejuela, uri onetako katedraleko artze-

dianu eta Kalagurri eta Calzada'ko Obispadutzako jaurleri, ornilarri eta Bikarlo orokorra, Gotzaingoa utsik dagon bitarte onetan:

Idazki onen bidez Berriatua'ko eleiz-ateko Aulikiz baserriko Jose Kalzakorta eta beste errItarrei, domekatakoko eta Maiatzaren 9'ko ogi eskintza eta olatak egitean zordun agertzen diranei, idazki onen bidez adierazten dautsegu jakItun geratu daitezala, eta orrela geratuta, bete dagiela.

Eta au danen ezaupidera eldu eta ez jakin aitzakirik agertu ez dagien, idazki oneik meza nagusi bitartean irakurri daitezala, meza nagusiko eskintza bitartean, eta irakurri ondoren eleizako atean eskegIta ipini daitezala agintzen dogu, bederatzi egun orreIk igaro ondoren bertatik kenduaz.

Alaxe agintzen dot...»

Olataren aurka jarki ziran berriatuarren eziña, edo ittotasuna, edo ta eleiz-gizonekiko eztabaidaz bitarteko agerturen bat ete zan, ez dakigu. Gu kondalran oi danez, gertatu baten zeaztasuna emotera gertu gara.

Olata kontua aitatu dogun ezkerre, bai gogoratu nai dogu, eleizetako oiaten balioa, argiarena eta ogiarena, urte barruan «probin-tziari» egiten jakozan errenta agergarri edo gaur esaten diran «dekiaraziñoetan», dlrutza ori irabazi eta mozkiñetatik beratu egiten zaia, bear-bearrezko gastu lez.

Zeaztu bearreko da, iliobletako «argi» lez, batzuk argizaria eta besteak kandela argia ipinten ditueia euren paperetan.



# BERRIATUAKO TXANBOLIN

Ezpairik ez dago, emen, beste toki askotan lez, bertako ipuin jatorrak dagozanik. Baiña asko inguruko erriak be eurentzat daukezanak izan leikez. Edozetara be liburuetan agertzen da bat, eta ain zuzen be Berriatuako izena beragaz batera daroana.

Ipuin au Resurrección Maria Azkue jaunak bere «Euskalerriarren Yakintza» liburuetako bigarrenean argitaratzen dau, 91 orrialdean. Merezi dau emen be ipuin orren aztarrena lagatea.

Onela diño:

Berriatuko Txanbolin.- Ezizenak diñoskuna: txistulari zan ta noizean bein zapatari be hai eta ganera emaztedun ta txakur zatar jaten andi baten jaube. Txakurra opiziojsic) bagakoa zan. Eskaratzean zer jan andirik ez ta sarri joan oi zan laha ondora labaldi bakotxean sei bidar gitxienez. Txanboliñen émazteari (Txanboliñesea zan Berriatun eukan izena) askotan mauta mauta jan eutsan txakurrak labarako gertu eukan arto-orea. Ikustekoa izaten zan alako egunetan txakur jatunaren ugazabandrea. Txakurra etxetik kendu egin bearko zala ta baietz ta baietz ta baietz. Alako baten Txabolini berbatxu onek urten eutsen, emaztearen pozzgarrikoak.

Bilbora eroango jonagu, norbaiti saltzeko.

Eldu zan egunori. Auzoko gizon bat eta txakurra bide-lagun zituala an joian gure Txanbolin goizalde batean Markinan zeár Bilbora. Bere asmoz azokara joan zirean bere lagun biak, gizona ta txakurra, au ede bategaz ak lotuta eroala. Ordu bategarrenean, ba dator Txanbolin, beste bat bailitzan, merkatari-antzera. Bere erri-tarrari, ezagutzen ezebanen irudia eginda, itandu eutsan:

Zegan dozu txakur au?

Iru amaseikogan.

Orrenbeste!

Lauzuri ezta merkeago.

Txanboiñek unamutxu bat (sokatxu bat) sakeletik atara ta txakurra ardura andiz negurtu eban. An batera ta bestera ebilzan nun-ze-barri batzuk ikusguraz urreratu ekioezan. Txanbolinek orduan saltzaileari:

Txakur ederra da, guztizko ederra -esan eutsan-. Nik barriz amaseiko bi baiño eztaukadaz aldean eta etxera noa irugarrenaren billa.

Txanbolinek alde ebaneko, ango nun-ze-barri aren arteko ba-

izuk txakurdunari urreratu ta erosi gurarik legez, berbetan asi yakazan:

Zetarakoa da berau? Erbitan edo ba daki?

Ez, baiña onen jaubea zapatari ta txanbolin da ta errietara doanetan kartolak txakurrari bizkarrean ezarri ta tanbolina alde baten eta bestean zapata-pareak eroaten izan dautsoz, txistua buztanpean sartuta.

Txakurraren gaitasun onek entzunda, ikusguren arteko batek, kokoloak alakoak, katanarrutik iru amaseiko gorri eder atarata, txakurdunari banan bailan eskura emon eutsazan.



# IÑOREN BEGITIK

Ikusi dagigun gure eleiz-ale au bertatik zear igaro eta liburuetan curen eritziak laga ditucnen ikuspegitik.

I3atzuk gaztelaniaz idatzi izan dabe, beste batzuk alemanez, edo ta euskeraz be bai.

Guk, alik zintzoen euskeratuta agertuko doguz euzkeraz idatzi ez dabcnak.



«Jauntxoen gerrak entzutetsu egin eben eta zoritxarreko, sarri erabili zituelako bere lurak euren asarre odoltsuen lekutzat».

(Juan Mané y Flaquer, «Viaje por Vizcaya al Final de su Etapa Foral. 1876).

«Beti aranean zear dua bidea Ondarroatik urten ondoren. Toki menditsu, erreka ondotik bidea, burdiiiolak, euren burdin zier pilloak erakusten, urtegi edo presa txikiekaz. Baina arana, ibai egala, eta mendirik geienak be ondo landuta. Ikuspegiak aldatu egiten dira, nai ta ibarra batzutan zabalago ta bestetan estuago agertu. Etxe banakak nun nai, alaz eta bizidun tokiekin berau lako lurralde bat erraz billatzen gaitz.

I3erriatua'ko erri ingurua tokirik zoragarrienean dago, solo, baso eta belardien erdian, berderik ugaritsuenen artean; muño aberats eta mendi gorenak inguratuta, hai tartetako etxez be, erri-bunia inguratzea, frutuak barruko azurra lez».

(O. Humbolt. Euskal ibillaldiko egunerokoa. RIEV XIII-642 orr.).

«... Berriatua zearko ibillera, ibai polit gañean Arantzibia arte, eten bako ikuspegia da, ura, basoak, lorak, basetxeak eta landare-diak alkar topaketa atsegiña egiten dabela».

(J. E. Delmas. «Guía del Señorío de Vizcaya» 1864).

«...Inguratzen daben ibai gañean, Artibai'ren gañean, lau bur-diñola dagoz eta zortzi errota, eta bere lur aberatsetatik urak sor-tzen dira, Azkartzako burdin ura lez».

(J. E. Delmas).

«Iru legua inguru daukaz, egun eta ikatzetarako mendi-gai as-kogaz, abereentzako janari on eta erdian ibar polit bat, ainbat ur-dun ibaia, arau-arrain, aingira eta eskaillutan aberatsa».

(J. R. Iturriza, Historia General de Vizcaya I, 260 orr.).

\* \* \* \* \*



«Plazakola. Ur-jauzi. Bide gurutzea. Bide batek, ezkerrekoak Lekeitio'ra daroa; besteak, sudurpean daukagunak, Ondarru'ra. Emendik ara, besarkaturik doaz, aundi ta arraintsu, Artibai ta Milloi'tik datorren erreka.

Ibar zabalean dago Berriatu, sagasti, solo, landa ta mendiz inguratuta. Etxe zuriak, teillatu gorriak, or-emenka: eleizalde atsegiña. Erri-biotzera baiño len, or Maitena, sagardotegia, aspaldiko urteetan lez gaur, entzute andiaren jabe.

Etxe mordo galanta erdi-erdian. Muiño gaiñean eleiza, ta udalletxe ta frontoia beeratxoago, oraintsu barriztuak. Goialdetan, lau aizetara, piñudiak baltz eta jagi. Ez aundi ez txiki diran etxeen erztetik doa, beti mormoxka, ibai ongillea, amorrai dizditsuz ugaria.

(Santi Onaindia. «Lamiñak, 34 orr.).

«Garai bateko egunetan, 1930'tik aurrera noski, Amoroto'tik Gorozika'raiño, Murelaga'tik Ondarrba'ra bitartean, inguru danetako soro ta belardiak, masti, sagasti, mendi ta basoak, arkaitzak eta lurrak, gaillur, aldapa, egi ta ibarrak, ola, igara, erreka, iturriak, eta gauza guztien Egilleari or-emen jasotako elizarik geienak ere, nagusi bakar ta oso jakiña zeukaten: Aranzibia'ko Jauna.

(Txomin Agirre. «Euskal-Esnalea». 1917).



## Elizburu

«Ezin lei ikertu barik itxi Elizburu auzo txikia a, -lau bat baserri-. Bertara Lekeitlo'tik Markiña'ra goazela, 60 garren kilometro arriaren inguruan, ezkerretara artzen dan bide txiki batetik joan bear da.

Be-oneko kilometro bi inguru ibili ondoren, piñadi eder bat igaroaz, errebera bat igarotean, uste bako ikuskizun eder bategaz topo egiten da, piñu eta bestelako zuaitzez inguratutako zelai eta belardi ederrezko toki zoragarria. Zotin eragiten daben bake ederra arnasten da bertan. Bertan jaioten dan erreka txiki batek, ibarra igaro eta azkenean berbertain eskutatzen da mendipean, Artibai ibaiaren aldera urak bialduz».

(Ramon de la Mar Silva. «Montes Costeros de Vizcaya» I).

Liburu berbertain eta gure mendiei buruz, idazleak au esaten dau:

### «Tontorramendi. 376 metro.

Artibai'ren eskuma aldean dago, Bizkaia eta Gipuzkoa'ren muga berbertain tontorra daukala. Len onako bidea Saturraran gainean artzen zan, Mileleteen etxe inguruan, eta santa Kutz ermitatik zear igaro.

Ez tontorretik, ez ingurutatik, ez da ikuspegi ederrik ikusten. Ondarroa, bere portu eta bere ondartza ikusteko, TVE'ren bidarkari gaillua dan tokirarte jetxi bear da.

Mokaro'tik zear joan da, ordu erdi bear da andik, eta Arantzia'tik beste iru ordu laurden geiago».

### «Kalamendi 314 metro.

Lengo denporetan jende asko ibiltzen zan mendia da, batez be usoen igarote edo pasa denporan. Orain mendi ori dana piñuz beretik dago, eta bertatik artzen ziran ikuspegi politak artzeko aukera kendu dabe».

(Ramos de la Mar. «Montes Costeros de Vizcaya. 1).



## Arantzibia

«Ondarroa'rako bidean, eta Artibai ibaiaren ibillerari jarraituz, Arantzibia torrea ikusteko geratu gara.

Torre au XV garren gizaldian beratua izan zan eta barriro jaso, len baiño motzago, baina bere arlanduzko ormak zainduta. Laukotxa da, eta bere ojiba erako gaiikiak zainduta daukaz. Zerka bategaz inguratuta egon zan len.

Arantzibiatarren leiñua Arteagatarrengandik datorrena da, eta Cortazar'etara aldatu zan gero».

(Manuel Basas. «Las Casas Torre de Vizcaya»).

Mostuta geratzen da. Pedro Ortiz'ek egin eban. 1443 urtean ganboatarrak beratu eben. Bero barrizatua izan zan.

(Historia Gral. de Bizcaya - Labayru, III-540).

1417.- Berriatua'n Arantzibia eta Yarza familien arteko burruka egon zan. Adan de Yarza'neko Santxo eta Fernando il ziran, Adan zarraren semeak, bai eta Arantzibia'ko Martin'en ixilleko seme bi be, eta beste amnabi gizon, zortzi Adan'en aldeko eta lau Arantzibiatarrenak.

(Historia Gral. de Bizcaya - Labayru, III-62).

\* \* \* \* \*

Gertaera berbera Iturriza'k onela agertzen dau:

Lekeitio eta Ondarroa artean, 1417 urtean, gudaketa gogor bat egon zan, Arantzibia eta Yarzatarren artean, Mantxora'ko Inguratzea egin zanean asarretu ziralako famili bi oneik. Gudaketa onetan Adan de Yarza'ren serie Santxo eta Fernando il ziran eta bere aldeko beste zortzi gizon, eta burrukako zelai berbetan illotzik geratu ziran arerioareu aldeko beste sei lagun be, curen artean Arantzibia'ko Martin'en ixilleko seme bi.

Babia ez zan onetan amaitu.

1443.- Ganboaneko Martin, bi milla lagunegaz, Arantzibia'ko Pedro'ren aurka jagi zan. Itxuraz aren illoba bat Ondarroa'tik kanpora atara eben Arantzibiatarrak. Etz onek trintxerak egin eta 800 gizonekaz bere torre alboan jasotako esi edo parapeto baten esku-tatu ba zan be, arerioa ugariago zalako bere eskuetan jausi zan. Gaiñera arerioak lonbarda edo lerkari gaillu bat be ba eukan eta beragaz Arantzibia'ko torreatari su emotea lortu eban, eta antxe ü zan bertako Pedro bere aldeko beste ogeitamar gizonekaz.

(Iturriza. Historia Gral. de Vizcaya - II-261).

# TXIKIKERI ANDIAK

## Berriatua eta Astigarribia

Euki ete eban zer ikusirik Berriatua'k, Mutriku eta Mendaro bitartean dagon Astigarribiagaz?

Jakiña da Berriatua, IX-X garren gizaldiararte, orain baiño andiago zala. Eta denporaldi orretan Bizkaia'k lur batzuk itxi eutsazala Gipuzkoa'ri.

Inguru onetan oraindik Ondarroa Berriatua zala kontuan euki ezkerro, Ondarroa'k ezin emon ez eukan lurrik, eta iñok emotekotan Berriatua izan bear.

Baiña zein lurralde?

Mutriku'k bere entzutea eukan eta jakingo zan zerbait. Alaz eta bere zati dan Astigarribia'k ba daukaz zer pentsatu emoten daben ezaugarri batzuk.

Bizkai'ko Jaunak Astigarribiá orregaz zer ikusi euki ebela idatzi izan da.

Astigarribia Bizkaiera egiten dan ingurukotzat etsiten zan.

Erriz, gaur, Mutriku da, baiña elizaz bere parrokia dauka. Eta ain zuzen be Mutriku antxiñako erabidean Iruña'ko obispadutzaren menpeko izaten zan, eta Astigarribia, Bizkaiko parrokirik geienak lez, Kalagurri'ko menpekoa.

Geiago: Kontuan euki inguru onetan ataraten zan burdinkia, Kostolamenditik zear sartzen zan Gipuzkoa'ra. Eta ori Gipuzkoa'rako bide egokiena ortik egongo zalako izango da ziurretik. Eta Kostolamenditik Astigarribia'ra erraz joaten da.

Ez ete dabe gaur aideko lez agertzen doguzan kontu oneik, ortan pentsatera lagunduten?

## Andregai aberatsak

Madriden Duque de Villahermosa etxeko artxiboan, Berriatua inguru onetako andikien goraberataz zerbait billatu leike. Ango paper-txorta edo lejako baten, **22 zenbakia** daukanean, XVI garren gizaldiko Berriatuko batzun aberastasun eta doteak agertzen dira, eta an agertzen dira emengo odola euken batzuk.

Ara:

|                               |                             |
|-------------------------------|-----------------------------|
| Maria Arriola.- Lanen emaitza | 1570 urtean 56.249 marabedi |
| Clara Ibaseta.-Sevilla'ko     | 1570 urtean 69.908 marabedi |

|                                       |                              |
|---------------------------------------|------------------------------|
| plazakoak                             | 1574 urtean 81.250 marabedi  |
| Brigida Berriatua.-Castilla'ko zergak | 1578 urtean 78.908 marabedi  |
| Sevilla'koak                          | 1578 urtean 250.000 marabedi |


### Nauarreria

Jakiña da naparreriak zelako ondorenak lagaten zitun lengo denporetan gure lurraldean.

Gati osagille ospetsua, frantzetarra, izan zan naparroriaren aurkako cztiketa edo bakuna atara ebana.

1771 urtean Jose Luzuriaga egoan mediku lez Lekeitio'n, eta itxuraz berberak egiten citan, odo ordezkotuten eban Berriatua be. Eta urte orretan, bere alabari eta beste zortzi berriatuar gazteri ez-titu eutsan lenengoz bakuna ori. Ori zan Bizkaia'n egin zan lenena.

Andik laster 1.216 eztitze egin ziran Bizkaia'n, eta ain zuzen be bat bakarra il eta a osagille berberaren 14 illabeteko alaba.



Onetaz ba dago agerpen bat egin bearra. Labayru'k, bere Bizkaiko Historian diño, lenengoz eztitutako gazte orreik ibarrangelutarrak zirala. Ez jakin nundik atara eban. Luzuriaga osagille berberak «Diario de observaciones» deiturazko liburu bat eroan eban,

eta eguneroko ori berberak irakurri eban Sociedad Vascongada de Amigos del Pais'en egindako batzar baten, urte bereko Irailla'ren 21'an.

Urte batzuk dirala, Santos Pagadigorria osagilleak Bilbo'n egin eban itzaldi baten be berriatuarrak zirala esan eban, lenengoz eztitutako gazte orreik. Ni neuk agertu neutsan Labayru'k diñona, eta berak, ziurtatzeko, Luzuriaga berberak egindako itzaldiaren kopia bat bialdu eustan.

Beraz garbi dago Berrituarrak, izan zirala, bear ba da gaitz onen eragiña emen gogorra izango zalako, Bizkai guztiari aurrera-pide onetarako bildurra kentzera aurreratu ziranak.

### Gernika'rako ordezkariak

20-V-1625.- Gernika'n Batzar Nagusiak. Berriatua'k bialdu eban bertarako ordezkaria, baiña orduko agiriak diño ez ekíelako irakurten, ez idazten, eta «romance»rik edo erderarik be ez ekialako, ez ebela ontzat artu Gernikan. Bardin gertatu zan Ereño eta Muxika'ko ordezkariekin be.

### Euskal idazle bat

Aita Santi Onaindia'ren «Lamiñak» liburuan irakurten da:

«Ez da exkaxa Berritu gizaseme azkarretan. Ementxe sortuak dira ainbat eleizgizon argi, mixiolari trebe, itxastar bu-lartsu... Eta bertsolariak gaurko Mugartegi, esate baterako. Eta euskal idazleak, J.M. Garate, adibidez».

Nor zan J.M. Garate au?

Aita Santi Onaindia berberak, beste liburu baten, oraingo au «Euskal Literatura» V garren tomoan, au diño:

«... «Milloi'tik so-egin ezker batez ere, ibar panpoxa da. Markiña'tik Ondarru'rako bitxabalak gurutzatzen dau erdi-erdi-tik ezker-eskuma txairo zabaltzen dan erri azitxo; basetxeak ditu or-emen zoragarri etzanik, eta Artibai dator marmarti Plazakola'tik beera... Ortze ibai ertzean, Milloi az-pian jaio zan Garate, euskal idazlea, Munisolo basetxean, 1860-IX-22'e an.

Oraindik gazte zala Bilbao'ra aldatu zan, eta ementxe egin zitzaigun idazle baseritik zekarren jitari keinen berria txer-taturik. Ainbat idatzi zigun «Euzkadi»n prosaz eta bertsoz».

### Aranbarri musikalaria

Gorago Munisolo baserria aitatu eta Garate abizena erabiltean, bereala dator gure gogoetara Berriatua'ko erri au ainbeste maitatu eban musikolari trebe, ospetsu, jator eta gogotsu baten oroitza: Jesus Aranbarri Garate.



Bilbon jaio zan, 1902 urteko Apirilla'ren 13'an, Bere aita, Mauricio, bilbotarra zan, liburuen azal-egille. Bere ama, Antoni, berriatuar andra jator eta etxeoandre asperbakoa, beti lanean eta beti alai.

Ontaz, Pablo Bilbao Aristegi jaunak egindako bere biografi baten au esaten dau:

«Antonia, la madre, era de Berriatua. Componía la clásica estampa de etxeoandre infatigable, beti alai, dispuesta a

motejar de SENSUNBAKO a quien no sintonizara con su alegría.  
(Temas Vizcaínos -Jesus Aranbarri- Pablo Bilbao Aristegui)

Madrid'en bat batean il zan musikolari onek, Bilbo'n egon zan artean, urtero nai izaten zitun bere amabost egun Berriatua'n egin, emengo bake santu eta mendi usain garbia artzen.

#### Ibañez de Aldekoa Arano, Julian

Len musika, orain mazgolaritza, pintoretza.

Berriatua'n jaio zan, 1866'ko Otsailla'ren 7'an.

Laurac Bat (Argentinan) il, 1958'ko Dagonillaren 23'an.

Paris eta Madrid'en bere ikastaroak egin ba zitun be, euskal girorik ez eban galdu. Madrid'eko Bellas Artes'ko Erakusketan iru lau urtetan agertu zana ziurra da. Ala 1897, 1901 eta 1917 urtetan. Bai Bilbo be eundak lauki margotuarren, atsegiñen erabilten eban gaia inguru onetatik ataraten eban. Ala arrantzaleak zItun geien be bere gai gogokoenak. Bai eta baserritarrak be.

#### Liburu bakan bat

Liburutegietan eta artxiboetan ondo gordeta eukiten dakiez liburu bakanak, edozeiñeri ez lagateko, bein bat galdu ezkerro besterik billatzeko aukerarik egongo ez litzaken bildurrez.

Orreitako bat Naparroa'ko liburutegi nausian dago, Iruña'n, «Libro rarísimo» lez etsita. DeItura au dauka: *Noche Phantastica, Ideático Divertimiento, que demuestra el Methodo de torear a pie: Escrito por D. Eugenio Garcia Baragaña, Tanto para Instrucción de los que son aficionados a lucir en las fiestas de Toros, como para mayor diversión de los que logran verlas.*

Liburu au Madrid'en argItaratua da, 1750 urtean.

Egillearen zeaztasunik ez da agertzen, baiña Jose M. <sup>a</sup> Huarte eta Jauregi zanak, esan ebanez, «*debió ser de estirpe vizcaina del lugar de Berriatua.*»

#### Bei famatu bat

Onelakoa izan zan «Moro deitzen zana, «Martxel» ena. 82 erralde. 1926 urtean, bi milla kiloko arriagaz, plaza bi egin zitun amalau minututan.

## Probak

Udaleko paper zarretan irakurria da: 1828 urtean Merindadeko txapelketa ospatu zan Berriatua'n, Gregorio deunaren egunean. 45 peseta kostatu jakon erriari proba ori gertutea.

Idi probetarako zaletasuna beti ezagutu izan da emen.



Bertoko baserri askotako atetan arto agertzen dira baita be tkanda baten Bizkaiko Aldundiak emoten zitun ganadu oneko ezaugarri txapak be. Jakiña, oneik ez ziran danak probetarako izaten, bestelako leiaketa edo konkursoetarako baiño.

Baiña probetarako aukeratu edo egokitu egin bear izaten ziran, eta orrek ba eukan bata besteagaz zer ikusi.

Emengo parroko izan zan Iñazio Orbea jaunak esaten ekian, bere denporetan, iru abade egozala, baina mezak baiño proba geiago egiten zirala urtean.

«Perran»en denporak ziran.

Jose Fernando Gandiaga Rigoitia, «Perran» 1871 urtean jaio zan.

Beste probalari entzutetsu bat, Juan Cruz Antxustegi Imaz, «Junico» 1890 urtean jaio.

Orain be erri onen izenez dabilzan probalariak ba dagoz, baiña euretzaz urrengoak berba ogin leikie.

### Frantzetarrak

Aurreragoko gizaldietan frantzetarrak emen egin zituen eragiñak, ondoren txarra laga eben.

Batetik 1794 urtean Bizkaian sartu ziranean, Ondarroa la geiena erre eben eta Berriatua'ko 9 etxe be erre zituen.

1796'ko etheen errolltzean agertzon dira era onetan:

BURGO, frantzetarrak erre eta oraindik barriztuten asi barik.

ORUBIAGOJ EAZKOA, frantzetarrak erre eta barriztaten asia.

ORUBIA-ALDEKOA, frantzetarrak erre eta barriztaten asia.

OI,AETXEA, frantzetarrak erro eta oraindik barriztuten asi barik.

SANTA KUTZ, mendiko Santa Kutz, frantzetarrak erre eta barriztu bakoa.

SANTA KUTZ, ermita, berbera.

IKATZA, frantzetarrak erre eta oraindik barriztuten asi barik.

BURGA\A, frantzetarrak erre eta oraindik barriztuten asi barik.

Orrez gaiñera, 1809 urtean eta 1810 garrenean, Bizkai'ko erriak frantzetarren tropak janaritzeko, illeroko dirutza bat emon bear izaten eben, eta 1809'n gure erri onek 3,872 errial emon bear izaten zitun illero, eta 1810 urtean 8.434 illero. Ordez, denpora bardiñean Ondarroa'k 2.688 eta 2.240 ordaintzen zitun.

### Osalariak

Ibasetatarrak osagilleak izan ziran.

Bat, Hilario Ibaseta, Labayru'k bere Historian diño Ondarroan jaio zala 1774 urtean. Alaz eta Ondarroa'ko parrokoiko baitaio liburuetan *ez da* agertzen izen ori ez urte orretan ez inguruetakotan. Izan leike berriatuarra. Au «Real Sociedad Vascongada de Amigos del Pais» ekoa izan zan, eta 21 urte eukazala, 1795 urtean, Bizkaiko tertziotako osagille lez frantzetarren aurkako gerrara joan zan eta liburu bat idatzi eban gerra orretan ezagutu ziran gai-xoei buruz.

Beste Ibaseta bat, Manuel Andrés izenekoa, au be osalari izan



zan. Onek bere illoba bateri, Lekue'ri, tokia egitearren, Berriatua'-ko osalaritzagaz bera geratu zan eta Lekue Ondarrura aldatu. Baiña gero asarretu egin ziran biak. Ondarroa'ko Udal-agiri baten agertzen da (1829 ko Dagonilla'ko 26'ko batzarrekoan) onek euskeraz idazten eutsazala udalari bere agiriak; (*memorial que presentó y leió en dialecto bascongado*) esaten da.

*Entzute andiko sasi-mediku bat egon zan emen: Domingo Aranbarri. «Añamendi» izeneko enziklopedian esaten da, lengo gizaldian berak gertu ten eban osakai bategaz osakuntza arrigarriak egin zitula.*

*«Aranbarri, Domingo. Curandero vizcaino, natural de Berriatua, que en el siglo pasado adquirió gran fama por sus curas maravillosas, a base de una farmacopea de productos uegetales de su exclusividad. «Enciclopedia General Ilustrada deI País Vasco).*

### Bilborako mandataria

1827 Udan Domingo Korostola mandad lez ezagutzen da. Ondarroa'ri eskatu eutsan zerbait ziur edo fijo ipini ezkeru, gertu egoala astero Bilborako osterata bat egitera, edozer ekarri nai eroateko, arruko lau errial kobratuta. Ondarroako erriak, aloger ziuréz zat, eguneko errial bat agindu eutsan, au da, 365 errial urteko.

### Buenos Aires'ko gobernadore

1700 urtean Jose Andonaegi jaio zan emen. Militar ogibidea artu eban. Españañer ejerzituko teniente general izatera eldu zan. Argentina'n gobernadore, Rio de la Plata'ko gobernadoreen buru.

# JAI ETA ERROMERIAK

Auzoak ba Oauke kanpai miña,  
erromeriak be eragiña,  
goizean ermitari bisita,  
illuntzean neskari ^irrika...

Ba dagoz esaera eta sinisteak, Berriatua'n eta inguruan, emengo erromeri egunak gogoratu eta aurrera eroateko zaletasun, gogo eta oneraspenagaz batera, bertara dei egiten dabenak.

Ara geienak:

San Gregorio



San Gergorixo,  
belarriko miñak kentzeko  
eroan botilla bete orixo.  
Jai eguna Maiatzaren 9'an ospatuten da.

Beste toki baten esan dogu jai au 1673 urtetik ospatuten dala. Ori ziur.

Lengo gizaldiko kontuetan, sarri billatzen da urtero beste ja-kingarri bat santu oneri buruz. Dirudianez urtero joaten zan agua-zilla Naparroa'ko Los Arcos'era, San Gregorio'ren ur bedeinkatu billa. («55 reales satisfechos segun costumbre a Domingo Ramon Eizaguirre, por la traída de agua bendita del santuario de San Gregorio de Los Arcos de Navarra».) (1852'ko Udal kontuetan).

Eta aurretik eta geroago be agertzen da oitura ori.

Esan geinke 1857'n amaitu edo galdu zala oitura. Ez berritua-  
rren gogoz. Orduan «Gobierno de Vizcaya» deitzen zanak, Berria-  
tua bere dirutzetan urri ebillala ikusita, 1857'ko kontuak azter-  
tzean agindu eutsan, orrelako gastuak lenengotik kendu bear zira-  
la eta ez eutsan onartu gastu ori aurre-kontuan. Andik aurrera ez  
da geroko aurre-kontuetan agertzen, eta ekarri ba eben, beste era  
batetik laguntza inguratuta izan bearko zan.

Ur ori soloak eta lurrak bedeinkatzeko erabilten zan.

Gaur parrokian ba dago be, bere plazako ermita erre zanean  
parrokira eroan zalako, san Gregorio'k euki eban bere tokia uda-  
letxea dagon inguruan. Albo baten Arategia, abere iltokia, erdian  
ermita eta beste aldean alondika egozan. Aragitegiaren gainean,  
ermitaren gainea be artzen ebala, ospitala egon zan, iru gela eta  
sala bategaz, lengo paperetan irakurten dan lez, baiña osasun gi-  
txiko toki zala esaten da, luzera edo goi alde motza eukalako.

### San Juan

San Juan, nekez etorri ta arin jua.

San Juan, san Juan,  
nik ez daukat besterik goguan,  
arrautza bi kolkuan,  
beste bi altzuan,  
garien tokiak gorde barruan,  
lapur ta sorgiñak erre basuan.

Ainbat kantu, esaera, urteera eta oitura atsegin gogoratu lei-  
kez egun oneri buruz.

San Juan eguna, Bagilla'ren 24'an ospatuten da.

Berriatuarrak joera bi daukez: Gorozika'ko San Juan, bata.  
Gogoratzeko da Gorozika auzo orretako baserritar batzuk, berria-

tuarrak dirala, nai cta ango ermita Ondarroa'ko „arrokiarcn men-  
pean egon.

Euren, kalean, ba dago Ibarra'ko San Juan deitzen dana.

Noizkoa etc da ermita au?

Kale barruan, antxiñakoak Ibarreko deitzea ciasen ermita  
onek, ha etc dauka zer ikusirik Santiagora joatea ziran cuopar  
erromesckin?

Jakiña da Frautze aldotik Santiago'rako bidea eroaten eben  
errouiesak, Orrcaga (Koncesvalles) tik sartzen zirala eta askok ba-  
rruko bidea artzen cbcla, Errioxa'ko Naxcra'tik zear.

Baiña egon ziran beste asko itxas ertzeko bidea erabilten che-  
nak be.

Eta asko dira esaten dabenak Gipuzkoa'n Astigarribira eldu-  
ten zirala, andik Ziarrotza'rako bidea artuaz, Kolcgiata orrok or-  
duan eukan cntzutca eta ospeak eraginda.



Orretarako batzuk Astigarribia'tik Arnoate'ra joten chela, eta andik Markiña'ra. Beste batzuk bide laburrago batetik Berriatua'tik zear joten ebela.

Gure inguruko erriak, ain ezagun eta giro aretan entzute andia euken errornesak artu eta eurei ostatua emon edo ta nekeetan laguntzeko, ospitalak eukezan. Atsedean aterpe batetik eta bestetik curen zauri eta urratuak osatzeko tokiak.

Orretarako erdi-ospital eta erdi-ermita ziran lagun etxeak egozan, erromesen ospital deituegaz ezagutu be egiten ziranak.

Ba dirudi San Juan ermita au orrelako ermita zala.

Baiña noiztik dago ermita ori gaurko tokian?

1855 urteko kontuetan irakurten da Lenengo irakaskintzako eskola barri eta San Juan'en ermita barri bat egin nai zala. Eta paperak diño, «casa de nueva planta enfrente de la antigua. Au da, lengoaren aurrean.

Ortarako egitastnua, proiektua, Jose Sodupe markiñarrak egin eban, eta 38.622 errial kostaten zan dana.

Lengo eskolak 271/2 oin eukazala luze eta 12 ta erdi zabal esaten zan, eta maixuaren etxeak gela bakar bat eta sukaldea.

Etxeak, esaten da, Ipar, Sorkalde eta Eguerdi aldetara, Berriatua berberaren lurren egala eukala eta Sarkaldera Francisco Aretxabaleta'ren lurragaz.

Egitasmu ori ez eban ontzat artu Bizkai'ko Aldundiak, esanez, komeni zala etxegintzan aituago zan batek egitea, au da, ortan «gaitu» batek egiña izan bear zala. Origaitik gero Mutriku'ko Justo Etxabe Sustaeta'k egin eban edo izenpetu egitasmu ori.

Ba dakigu egin zala, urte bete geroago bere ordainketak agertzen diralako.

Zertzeladen artean au esaten zan: Erabili bear zan arria Berriatua'ko Goikoetxe'ko kanterakoa, izan •bear zala, eta arlanduak Amallo'tik ekarriak.

Beraz, lengo zar-zarra izan, edo ta lengoaren aurrean barriz egiña, orduko paperetan esaten dan lez, jakiña da San Juan au lenagotik etorrela, eta bear ba da eskoletxe zar a izan eikean erromentzat erabilten zana.

Ermita onetako aldarea Mutriku'ko Beniño eta Jose M. Mendizabal, taillugilleak egin eben. Egitea, eta margotu eta urrez gain-

gutxi, 1894 eta 2.443 errial kostatu ziran, au da, guztira 4.337 errial.

Gaur ba dakigu orain beste zerbitzutan erabilten dan etxea, 1961 urte arte eskola izan zala. Orain 1984'tik asita, Udal liburutegi edo bibliotekatzat erabilten da, bai eta osategi gela eta zarren egon leku lez be.

Ermita onen Kofradiko lagun lez sartzen diran berrogei ta lau lagunek, curen biar eta alegiñez barriztu eben eleiza au orain lanbost urte, bere ormak lengo arri zarra agirian dabela itxiaz. Eta al-dara barria ipini.

### San Pedro'

Erriko patroia.

Entzutekoak dira «San Pedro bedarrak» gorputzeko lotuera ta batuen bigungarri lez.

San Pedro bedarrak  
biguntzen ditue,  
elduten ditue  
gizonen zaldarrak.



Lengo denporetan San Pedro bedarrak batu eta Berritukoari erakustera etorten ziran Ondarroa'ko andrak, gero bedar orreik txalopetan ipinteko, brankan, gerrian eta popan (atzean).

Txalopak erramuen indarrez erabilten ziranean, gizon asko agertzen ziran odol batu eta zaldarrez ibili ezinda eta origaitik Berriatua'ko eleizan bedeinkatzea nai izaten eben, edo San Pedro'ri erakutsi beintzat, gero gizonen osakai erabilteko.

(San Pedro eguna Bagilla'ren 29'an ospatuten da).

### Madalena

Madalen Arantzeiko.  
odol zikiñak garbitzeko.

Ermita onek bere entzutea dauka inguruan, eta jendea batzen da Madalen egunez, Uztailla'ren 22'an, bertako erromerian.



Baiña urte buruan jende asko joaten da bertatik ia kilometro erdira dagon potsura, ango uretan euren soiña garbitzeko po-

tsura, ango uretan curen soiña garbitzeko potsuan zapiak busti eta soiñican ipinteko, zarrak bertan lagata.

Madalen egunak ba daukaz beste ainbat esaera:

Madalen astea bero?

Gaztaña gero.

Madalenako Kofradia Kofradi zarra da. Artibai'errekaren eskuma alde guztiko baserriak sartzen dira bertan. Plazakola'tik asi eta Ondarroan itxasoan sartu arte, Artibai ibaiaren egal osoa arzen dau, Plazakolatik Akilla bitarteko alderdi guztia.

1745 urteko erroltzean, 31 berrituar etxe sartzen ziran Madalenako Kofradia deitzen zan auzoan.

Ermitako irudia ostu egin eben, 1973'ko Urria'ron 1'an, lapurreta ori itxuratzearren goizaldean eleizari barrutik sua emonda. Gero Angel Lertxundi, ertilariak egin zitun irudia eta aldareko domina andiak.

### San Loreritzo



Asterrika deitzen dan auzoan.

San Lorentzo'k esku baten sua,



Asterrikan otz ez dana berua.

San Lorentzok esku baten su bizia  
eta bestean prest iiiintia.

Guzur bat esan neban Gorozikan,  
ni baiño lenago zan Asterrikan.

Antxiñako paperetan, LORENTE EGUNA iez deitzen da egun  
au.

1745 urtean egin zan Berriatua'ko etxeen zerrendan (zent-  
zoan) ogei ta amairu (33) etxe sartzen ziran auzo onetako lez.

Dagoniia (Abustua) ren 10'an ospatuten da bertako jaia. San  
Lorentzo au lurrez Berriatu'ko izanarren, eleizaz Ondarroa'ko pa-  
rrokiko abadien ardurapean dago.

### San Antoiin



Denpora zarretan San Bixente eta San Antonino ren ermita  
lez agertzen da.

Santi Antolin,  
txistu ta tanbolin,  
gona barrenak  
aidean egun guztin.  
Ez gogoratu biamonik,  
San Antolin,  
nekez etorri  
eta joan arin.

Plazakola'n asi eta Artibai'ren ezker alde guztia len SAN BI-  
XENTE deiturako Kofradian sartzen zan.

1745 urteko Berriatua'ko etheen zerrenda egin zanean, 27  
etxe sartzen ziran Kofradia onetan.

Iraila'ren 2'an ospatzen da bertako erromeri nausia.

Gardotza



Liburu zarretan Gardotza lez erabilten da Gardutza deitura.

Ondarrura'ko bide egalean, Arantzibia torrearen aurrez aurre dago ermita au.

Ama Birgiña Gardotzako,  
gure ume au ez da ezetako,  
ez loditzeko,  
ez argitzeko.  
Iru zapatutan etorriko naz ta  
mesedetxu bat beretzako.

Bertso oneik garbi adierazoten dau Ama Birgiña onek zelako entzutea daukan eta zelako eskintzak egiten deutsezan.

Antxiñakoak ba ekien berari azken-naietan dirutxoak lagaten argitarako. GernIka'ko protokoloetako artxiboan ba dagoz orrela-ko batzuk.

Esaera bat:

Andra Mari Gardotzakoari bezperak kantatu ondoren,  
jakea lepora.

Iraila'ren 8'an ospatzen da bertako jaia.

### Santa Kutz

Len Maiatz eta Iraillean. Oraingotan Iraillean.

Orra bertako bertso batzuk:

San Kutz Maiatzeko,  
gure soluak laiatzeko.  
Santa Kutz Irailleko  
idi zarrak ilteko.

Berrituko Erriberan dago.

Gure denporak arte, Eleiz Nagusitik urtean zear eratuta egiten ziran ibildeunak, Aste Santu, Gorpuzti, Errosarioko eta abar, «Aitekutze'ko eleiz onetaraño egiten zan, emendik barriro parrokira biurtzeko.

Lengo denporetan eleiz onen atadian latIñez eta euskerazko esaera andi bat irakurten zan: Foederunt manus meas et pedes meos. Zulatu daustez nire eskuak eta nire oiñak.

1975 urte inguruan barru eta kanpuz barriztatu edo obeto esanda, txukundu egin zan, orretan bertan sartzan diran 64 auzo-



kideak «auzo-lanean» gogotsu lan egr'ñaz. Alaz eta esan bearreko da, aldarán dagon Kristo'ri ez eutsela ikuturik egin, bere balioa antxiñatasun guztian zaintzearren.

### Santa Kutz, Mendikoa

Alaxe deituten da lengo paperetan, Burgo gaiñean dagon Santa-Kutz'eko ermita.

Eleiz erabidez Ondarroa'ko parrokiaren menpean dago, eta esan lei bertako eragiña erri aretan geiágo dala. Baiña lurrez Berriatua da.

Antxiñakoa.

Beste toki batzuk lez, onek be ba dauka bere egiturako esaera zar bat.

Jose Migel Barandiaran jakintsuak batu eban bere liburuetan, eta guk bertan agertzen dan lez argitaratu nai dogu:

«Aitte Kutzekua santa Kutzen agertu zala esaten dabe ta gero paraje lauaguagaitik Paguetan eleixia egin gura ebela. Baña egunez eitten ebena gabaz atzera Santa Kutzera juten zala.

Zelat ein eitzela Doixtuko batek gabian, da zeozer ete ebillen ikusi ebala, eta aidian entzun ebala:

Aida txuri ta belio,  
zelatian daganari  
begiak ertengo al dio.

Da laugarren gizaldian be segidu ebala tuertuak Doixtuko pamilian.

Da gero Elixia Santakutzen ein eben»

(Jose Migel Barandiaran, «El mundo en la mente popular vasca». 1925 urtean Burgo baserriko Angel Barruetabeña'k kontatua).

Ermita au frantzetarrak erre egin eben 1794 urtean, Debatik Bizkai aldera euki eben sarreran)



Antxiña eta ia gure denporak arte, serora bat blziten zan bertan. «Hermita de Santa Cruz o Casa sesoral de Santa Cruz» lez agertzen da liburu sarretan.

Ba ete dauka zer ikusirik XV garren gizaldian, praille konbentu bat Ondarroa eta Mutriku bitartean sortzeko Sixto IV aita Santuak emon eban bula bategaz? Bula orretan, Fray Juan Goltinizeri balmena emoten jakon, bitarte orretan frantziskotarren konbentu bat sortzeko, Canarias ugarteak kristaututera joan bearko ziran fraileak gertuteko. Batzuk Santa Kutz onetan zerbait egon ete zan, besteak Burgo baserri berbertan egon eikeala... Dana dala, orretan ibili diranak ez dabe errastu zeatzik atara. Bear ba da fraile berbertaren asmoak be ez ziran burutuko. Baiña paperetan bula ori agertzen da eta Mutriku eta Ondarru bitartea izentatzen dalako, ortan aituak inguru ori aztertzen dizentatzen dalako, ortan aituak inguru ori aztertzen dabe euren lanetan 1977'ko Otsailla'ren 22'an sua egon zan ermita onetan. Baiña su ori bertako imagiñak ostuteko aitzaki izan zala uste da, bertan egoan Santa Luzia'ren Irudi zar eta balio andikoa saldu edo eroan ebelako.

# ERRI-KONTUAK

## LENGO GIZALDIAN

Erri bat ezagutzeko, bere kontuak ikustea baiño obarik ez.

Ortik igarten da zelako erria dan, zelako bizibidea daukan, zelako oiturak, zelako ondasunak eta abar.

Berriatua lengo gizaldian zelan bizi zan ikusteko, urte bat aukeratu dogu, gizaldiaren erdikoa, 1855 eta ara bertako sarrerak eta gastuak zelakoak ziran:

| SARRERAK   | Errialetan |
|--|------------|
| Ardau klareta saltzen dan tabernako urtekoagaitik .....                                    | 10.000     |
| Koñaka saltzearren errematetik, Jose Inza'k emona ...                                      | 1.071      |
| Inza berberak, gaztelar arda zuriagaitik .....   | 600        |
| I. Gorostola'k, orio eta koipe saltzeko ordez .....  | 826-29     |
| Errotetatik, saltzeko eskubide ordez, Obekola'k 7,5, Bi-degorri'k 7, Andonegi'k 15 .....   | 29,5       |
| M. Baserriak urtero emon bear daben gariagaitik .....                                      | 125        |
| Kurutzequak emon bear daben urteko gariagaitik .....                                       | 50         |
| Ondarroa'ko Kitarreanekuak Ugarrizan daukan lurragaitik .....                              | 8          |
| Berberak, igazkoagaitik .....  | 8          |
| Jose Mari Arano'k, lurralde bateko errentagaitik .....                                     | 6          |
| Irarnategiburuko lurralde baten errenta .....  | 10         |
| Balentin Aldazabal'eri saldutako 23 areitz .....   | 23         |
| Lau pertikaren ordez .....   | 32         |
| Arkatx'eko artakaitik .....  | 20         |
| Jose A. Urrutia'k erositako gaztain bizi bategaitik .....                                  | 44         |
| Ospitaleko jarrilekuak egiteko ekarri, eta balio ez ebelako saldutako kuartoiakaitik ..... | 12         |
| Pedro Maguregi'k erositako areitz txiki bategaitik .....                                   | 3          |
| Meabe abadeari tellatua konpontzeko emondako gaztanagaitik .....                           | 14         |
| Jose J. Elndi'ri emondako pertika bategaitik .....   | 8          |
| Erri-errematean saldutako 36 ta erdi burdikada ikatz                                       | 1.204,5    |
| F. Gandiaga'ri saldutako adar batzukaitik .....  | 7          |
| Katei'koari saldutako burkada ikatzegaitik .....   | 37         |
| Gaztaina frutua saltzetik lortua .....   | 1.003      |
| Otal saltzetik lortua .....  | 396,24     |
| Ira saltzetik .....  | 360        |
| Parrokiak zor dabenetik maiordomoak emona .....  | 1.000      |
| J.M.-Eizagirre'k erriarentzat lagatako zati bat .....                                      | 260        |

|  |       |
|--|-------|
| Erritar batek zegaitik esan barik emona .....                        | 6     |
| Legarregi'koari otak ebagitearren ipiñitako isuna (mul-<br>ta) ..... | 5     |
| Igaz gelditutakoa .....  | 5.124 |

Guztira, sarrerak      22.297,20



#### URTEERAK

|  |       |
|--|-------|
| Osagillearen ortuaren errenta .....  | 7,5   |
| Markinako frailiak dauken zentzuko emon bearra ....  | 88    |
| Markiñako Mersedeko monjak dauken zentzuko emon<br>bearra .....  | 132   |
| Neska umezurtzen Ekintzarako emon bearra .....   | 247,5 |
| Eleiz-ate onetako fi zorikoen alde Manu Astegi'k laga-<br>tako Ontasun Ekintzaren eginbearretarako ..... | 110   |
| Kamiño Torre'gaz egindako itunerako .....  | 59,12 |
| Eskola maixuari, urtekoa .....   | 2.200 |
| Txinel edo aguazillari .....   | 365   |
| Aguazillari, urtero lez, Naparroa'ko Los Arkos'etik San<br>Gregorio'ren ur bedeinkatua ekartearren ..... | 55    |
| Udaletxean gastaten diran kandelakaitik .....  | 18    |



|  |     |
|--|-----|
| Alondika zaintzaleari, urtekoa .....   | 80  |
| Bula-batzailleari .....  | 80  |
| Barrueta osagilleari, bere urteko eta etxean eginda eukazan obekuntzakaitik. Izurri edo kolera denporan joan zan. .... | 663 |
| Markinako korreo-bidaiari .....  | 316 |
| Erriko beartsuak bizi diran etxetxoaren ordez . ...  | 154 |
| Sakristau eta organu jotzailleari, urtekoa .....   | 400 |
| Abade-taldeko maIordoinoari .....  | 456 |
| Udaleko idazkariari, urtekoa .....   | 700 |
| Gabiola aolkulariari, urtekoa .....  | 200 |
| Aste Santuko Sermoigaitik .....  | 84  |
| Osagille barriari .....  | 275 |
| Osagille barriari, bere tresnak aldatzen eukitako gastutarako .....  | 320 |
| Diru-ardulariari, urteko .....   | 400 |
| Alkateari, aurtengo 320 eta igazko 80 .....  | 400 |
| Udaleko lau ordezkariet, ofrendan emoten dabenagaitik .....  | 88  |

---

Gastu oiak      7.254,17

**GASTU BEREZIAK:**


|  |       |
|--|-------|
| Kontuak eroateko paperakaitik .....  | 1,6   |
| Pertikako Alargunaren semeak arrapatutako azeriagaitik .....   | 10    |
| Artetxe'k J. Inza'ri arrapatutako kontrabandoan zer egin bear zan jakiteko alkateak Markina'ra egindako ostera ..... | 4     |
| Alkateari, beste gastu batzukaitik .....   | 10,17 |
| Otso baten narruagaz agertu zan bateri .....   | 4     |
| Garramiola'koari, azeri bategaitik .....   | 10    |
| 30-I.- Arantzibia'ko errotan ildako bat andetan ekarri eta gero kanposantura croan ebenak egindako gastua.           | 17,22 |
| J. Inza'ri igaz lagatako diruak zidarretan biurtzetik . .  | 5     |
| Andonegi torren il zan eskalea andetan eroateagaitik .   | 8     |
| Ansola'ri, bere burdian eskale bat Markina'ra eroateagaitik .....  | 9,12  |
| Gorostola'ri, Aldundira urteko kontuak eroatearren ..  | 4     |
| San Gregorio'ko maiordomoei bazkaritarako emondako ardautan egon zan kalteagaitik .....                              | 11    |
| Bakoitzak otso narru bana agertu eben lagun biri .....   | 4     |
| Inza'ri ordaindutako kuartillu terdi aguardiente'ren ziza ordez .....  | 1,6   |

|   |       |
|---|-------|
| Gipuzkoa'ko Aldundiko baimenagaz eskean chillan bateri .....  | 2     |
| San Roke'ren bederatziiurrenean gastatu ziran libra ta erdi kandela zuriekaitik .....   | 15    |
| Izurritea zala ta san Roke'ren bideratziurrena asiko zala adierazten ibili ziran lagun bici .....   | 12    |
| Osasun batzordetik etorritakoekin izurriteari buruz udalekoak eukitako batzarretan egindako gastua . . . .  | 9     |
| Izurritea egoan tokietatik igeska etozanei errian sarre-ra galerazoteko zaintzen egon ziranei .....   | 6     |
| Euriak eskatzeko esandako meza bategaitik .....   | 8     |
| J. Amallobietari, eskale bat bere burdian Mendexa'ra eroatearen ordez .....   | 10    |
| Izurritearen lenengo joaldian, orren premiñan arkitzen ziranak euren kofradietan artu al izateko, erriko lau kofradieitizat ekarritako 3 azunbre aguardiente, ron bat, azunbreko lau botilla, lau ojalatazko kafetera barri, 7 ontza te, gaitik ..... | 97,8  |
| Gaiki orreik ekartearren Markiña'ra joan zanari. . . .  | 8,00  |
| Aguardiente ziza ren eskubidea daukan Inza'ri emona   | 20    |
| Erriko premiñakaitik esandako meza bat .....  | 8     |
| Juan de Laka'ri, berak eta bere etxeako txakur amorratu batek ainka egindako beiaeren esnea artu ebelako Monasterio'ra alkatearen aginduz joateagaitik .....  | 161   |
| Maria Luisa Ibaseta'ren gorpua obiratu ebenei ...   | 16    |
| Eskolarako liburuak eta eurak ekartea .....   | 101   |
| Izurritz il zan Laka Aranzibiari lur emon eutsenei .  | 12    |
| Arantzibiatik andagaz egin eben gastua .....  | 16,12 |
| Pedro M. Bustindui'ren andrea obiratu ebenei .....  | 32    |
| Isidro Dulanto'ren emaztea obiratu ebenei, au be izurritz illa .....  | 40    |
| Gixona'ko atsoa obiratu ebenei .....  | 40    |
| Pedro M. Bustindui'ren emaztea 11 zanean edandako koñaka .....  | 4     |
| Santa Kutz eguna. Izurritez ilten ziranen obiratzea zelan egin erabiteko batu ziranen gastua .....  | 9,20  |
| Dagonilla'ren 23'an txakur amorratuak ainka egindako Juan de Laka'ren beiaeren narrua lurpean sartu ebenei.   | 23    |
| Barrueta'ren semeei, etxea uztu ebenean egindako lanagaitik .....   | 4,26  |
| Osagilleagaz ituna egin zanean Kontseju-etxean batu ziranek egindako gastua 12 1/4 azumbre arda, eta 13 kilo ogi .....  | 59,24 |

|   |       |
|---|-------|
| Madariaga eskribaduari, itun orren agiria egiteko esku-<br>bideak .....               | 58,50 |
| Iramategikoa'ri lagatako lurraldearen ituneko kopiak                                  | 12    |
| Sodupe'ri, eskoia barriko plangintza egitearren.                                      | 320   |
| Legeko goraberekaitik .....   | 20    |
| Egitasun ori boletiniñean agertzeko eskubideak ..                                     | 100   |
| Etxebarri'koari, azeri bat arrapatzearen .....  | 10    |
| Gero Sodupe'ren planoak batetik bestera erabiltea .                                   | 9,24  |
| Laka-Arantzibia'ri, Markina'tik ardua ekartearren                                     | 3,10  |
| 25-XIII-n egindako batzarreko gastuak .....   | 27,10 |
| 28-XIII-n egindako batzarreko gastuak .....   | 36,08 |
| Batzar orretan jan dako bakaillaua .....  | 14    |
| Eta aguardiente kuartillo bat .....   | 2,28  |
| Ramon Ibaset.a'ri, azeri baten ordeztu .....  | 10    |
| Korreo eta bidaiak .....  | 20,24 |
| Urteak ipinitako 49 silluak .....   | 23,20 |
| Erritarren zedulak .....  | 160   |
| Rementeria aolkulariari, Arana'ko errena'ren auzian.                                  | 100   |
| Areitio aolkulkariari, bardin .....   | 16    |
| Arana'ko errenari buruzko gaia erabagiteko batutakoen<br>artean egindako gastua ..... | 40    |
| 15 Apirilla. Kontseju etxean batu ziranengastua                                       | 13,80 |
| 24-VI. Kontseju etxean batu ziranen gastua .....                                      | 13,20 |

Guztira gastu bereziak

1.824,28



## GASTU OIAK

|   |        |
|---|--------|
| Errege eguneko batzarrean, oitura danez .....   | 15,20  |
| San Antonio egunean, errotetako pixuak aztertu ondoren .....  | 10     |
| Egurren erreinate egunean .....   | 14     |
| Auts egunean .....  | 6,20   |
| Zaragoza'ko ospitalerako amoina .....   | 10     |
| San Gregorio egunean, dantzariari, ardautan .....   | 24     |
| San Pedro egunean, jaietan emondako ardaua .....  | 132    |
| Uztailla'k 15. 1854'ko kontuak aztertzekeo batzarrean.  | 147    |
| Madalena egunean, dantzariari, ardautan .....   | 24     |
| San Iñazio egunean, erri batzarreán .....   | 12,12  |
| Abustuaren 7'an, beartsuen zerrenda egitean .....   | 14,40  |
| San Lorentzo egunean, Asterrikan, dantzarien ardaua.  | 24     |
| Mendexa'ko san Pedro Asterrika'ra eroan ebenean ....  | 183,26 |
| Eskoletxe barria zelan egin bear zan batzarrean .....   | 36,60  |
| Madalena egunean, ango arduradunak eukan aguardienteagaz konparaketa egiteko eroandako aguardientea ..... | 3,10   |
| 31-VIII. Barrueta osalariaren eskabide geiegizkoei buruz jarduteko batzarreko gastuak .....               | 7,10   |
| 9-IX. Osalari barria billatzeko alegiñetako batzarrean  | 16     |
| 16-IX. Batzar orokorra, osalari barria izentatzeko ....   | 122,16 |
| Beste batzar bat, gai berberatzaz .....   | 29,20  |
| Alkateak Barrueta'ri bere zeregiña beteteko eskatu eutsaneko lekuko biren gastuak .....                   | 2      |
| Bidaiak .....   | 2      |
| Epaikari bat izentatzeko eskatu zan batzarrean .. , ..  | 7      |
| Ogiak pixatzen 48ogi erraziño .....   | 66,12  |
| Arantzazuko Konbentuari laguntza .....  | 10     |
| P. Laka'ri, karabiñeruaren tresnak Markina'ra eroategaitik .....  | 8      |
| Batzuk .....  | 3      |
| Gastu oiak  | 930,20 |

## LANAK

|  |        |
|--|--------|
| Aguazillaren etxean, sukaldea ipinten-Baldosak ..... | 80     |
| Aguazillaren etxean, sukaldea ipinteko lanak .....   | 36     |
| Baldosa orreïn garraio eta erosteko ibilia .....     | 17     |
| Sindikoaren lanak, bertan .....                      | 10,17  |
| Proba toki konpontzen, bost lagun, 24 egunetan ..... | 171,17 |
| Proba toki konpontzen, argiñak .....                 | 60,00  |

|   |        |
|---|--------|
| Pedro Laka'k gauz berean eta bolatokiko orman                                       | 15     |
| Aitza ebagiten bear ziran 5 libra polbora .....                                     | 30     |
| Ondar eta lurrak erabilten .....  | 119,14 |
| Orretan mindutako erremintak barrizatzen .....                                      | 6      |
| Zubiaurretik ondarra atarateko eskubideak .....                                     | 2,12   |
| Bidegorri'ri, arri alperragaz zapaltzen .....                                       | 8      |
| Probatoki barrira curen beiekin arria croan eta bardin-<br>tzen ibili ziranei ..... | 25,17  |
| Bolatokiko beste biar batzukaitik .....   | 5,10   |
| Errementariari, alondikako pixuak leuntzen .....                                    | 32     |
| Mugarriak Andonegi'ko bide zarreko Aretxabaleta'ra<br>eroaten .....                 | 8      |
| Mugarri orreik ipinten .....  | 34,17  |
| Ospitala konpontzeko ondar karrioa e e e e e e e e e e koak                         | 12     |
| Erriko-etxea zuritzen ibili ziran ondarrutar igeltseroei                            | 60     |
| Eurei emondako ogi eta ardaia .....   | 31,12  |
| Katei-ondo'tik Ospitalera jarrilckotzakoa ekarri ebenei                             | 5,16   |
| Jarrileku orretan ipini ziran ultza andiak .....                                    | 1,30   |
| Sindikoari, ortako lanakaitik   | 31,17  |
| Antonio Bermeosolo'ri, kontseju etxerako egindako<br>leioagaitik                    | 72,00  |
| Bertako tellatu-konponketagaitik .....  | 8      |
| Osaliaren etxe konponketa .....   | 90     |
| Bertan ibili ziranen erraziñoiak .....  | 37,14  |
| Sindikoaren lanak, orretan .....  | 4,17   |
| Andrak, etxe-orretako gertapenetan .....  | 14     |
| 600 adrillu .....   | 48     |
| Torremotxa'ko adrillutegitik eroatea .....  | 7      |
| Ondarra .....   | 4,17   |
| Igeltua, letxera eta Bidegorri'k Mutrikuti'k ekartea.                               | 34,17  |
| Lanetan bear izan zan kandela bat .....   | 0,16   |
| Osaliaren etxerako laratza .....  | 43     |
| Osaliaren etxerako arotz-lanak .....  | 28     |
| Leiorako aga zabal bat .....  | 14     |
| Osaliaren etxeko beste konponketa eta gaiak ....                                    | 122,23 |

#### BIDE KONPONKETAK

|   |       |
|---|-------|
| Zeleta'ko bidea konpontzen. Erraziñoiak ..... | 27,28 |
| Orueta zarretik Latrozulo'rako bidean .....   | 17,24 |
| Argingua aurreko bidean .....                 | 15,15 |


|  |       |
|--|-------|
| Sindikoaren alogerak .....                             | 10,17 |
| Loretatik Andonegi'ko zubira, erraziñoiak .....        | 38,11 |
| Ugarrotx'eko bide konponketan .....                    | 10,20 |
| Sindikoak Ugalde'ko bidean .....                       | 3,17  |
| Arkatxetik Eleizarako bidean .....                     | 67    |
| Zeleta'tik Iramieta eta Ikaran'go bidean .....         | 10,20 |
| Etxebarri'tik Asterrika'rako bidean .....              | 28,14 |
| Bidegorri ingurutik Orubia'ko zubian .....             | 31,20 |
| Oructako sarrerako alogera eta Sindikoarena .          | 14    |
| Basterrolatza'tik Pertika'rako bidean .....            | 38,24 |
| Orubia'ko zubitik Olabe alderakoan .....               | 33,60 |
| Latrozulueta'tik Orueta'ra .....                       | 20,17 |
| Sindikoak .....  | 3,17  |
| Arantzibiako zubitik Orubia'rakoa, erraziñoiak         | 30,60 |
| Goikoetxe'tik Zeleta'rako bidekoak .....               | 57,60 |
| Antxiko'tik arri-kaskarra eta ondararria eroatea .     | 30    |
| Arri zetzen eta batzen ibili ziranei, eta sindikoari . | 38,17 |
| Beste erraziñoi batzuk .....                           | 7,29  |

#### MENDIETAKO LANETAN

|  |        |
|--|--------|
| Sindikoak eta Gojenolak, ikatzak ikusi eta ikatzerako egurrak aukeratzea .....     | 27,10  |
| Ikatzetarako aritz adarrak ebagiten, gero errematera atarateko .....               | 171,17 |
| Lagun biren lanak, Garroburu'n, txertaketa eta garbitzen .....                     | 21     |
| Landaratnxtetik Legarrei azpira arnetzak sakontzen                                 | 78     |
| Sindikoari, ortako lanetan .....   | 14     |
| Gaztaiña gazteak txertatzen .....  | 83     |
| Sindikoari, Ondarroara brea eta sebo billa .....                                   | 3      |
| Brea .....   | 9,14   |
| Seboa .....  | 8,16   |
| Sindiko eta Olabarrieta'ri, gaztain-txertaketan                                    | 38     |
| Otak aztertzen .....   | 17,17  |
| Gaztain ondo gazteak garbitzen .....   | 10,17  |
| Ortako beste aloger batzuk .....   | 10,17  |
| Olabarrietako'ari, iratzak aztertzen .....   | 10,17  |
| Olabarrieta eta sindikoari, gaztain frutuak aztertzen.                             | 21     |
| Orrelako lanetako beste gastuak .....  | 27,10  |
| Beste gastuen zerrenda, urteko ibillera, eta abarrei buruzkoak dira, guztira ..... | 618    |

|                                   |                      |
|-----------------------------------|----------------------|
| Beraz urte orren laburpena au da: |                      |
| Era guztietako sarrerak .....     | 22.297,20            |
| (Aurre urtean geratuak sartuta)   |                      |
| Era guztietako gastuak .....      | 13.933,04            |
|                                   | Geratua     8.364,16 |

Bakoitzak bere ikuspegitik ikusi al izango dauz kontuak, lengo zarrak zelako ardurak eukiten zituen ezagutzeko, bai eta zelako oitura erabilten zituen iAkitoko be.



# URTE ITZALAK

1872-1873 urteak itzalak eta garratzak izan ziran berritua-  
rrentzat.

Gerra denpora zan.

Eta batek eta bestekoak, batzuk bertara etorrita, besteak kan-  
potik be zigor bildurrez aginduak, erria artegatuta, kezkatuta, egu-  
neroko larrialdian euki eben, etenbako gastuak eragiñaz.

Ez da arrigarri, gero, ordaindu eziñez, batzuk erri ondasune-  
kin jaubetzea, edo ta érriko baso eta mendien kontura euren kon-  
tuak kittutu nai izatea, toki askotan eta erri askotan gertatu zan  
lez.



Guk irakurri-ala, euskeratuta ipiniko doguz, gerra arek, bate-  
tik eta bestetik, Berriatua zelako estutasunean erabili eban kontu-  
ratzeko.

Urte orretan, aurre kontu edo presupuestoan ordaindutako di-



rutzak onela banatzen dira:

Errialetan

|                        |           |
|------------------------|-----------|
| Gastu oiak .....       | 1.892,02  |
| Eskolak .....          | 3.418     |
| Giza ontasuna .....    | 1.381,17  |
| Eleizari ordainketak   | 384       |
| Ezarpenak .....        | 29,13     |
| Mendiak .....          | 150       |
| Erri lanak .....       | 520,04    |
| Borondatezko gastuak . | 1.462,14  |
| Gerrako gastuak .....  | 13.734,08 |

Gerrako gastuen artean, geienak, mutillentzako arda, ogi, aragi eta abar dira, au da, erraziñoiak, edo ta zaldientzako lasto ta janariak. Zer esanik ez egon zirala beste eraren baten ordainduko ziran indarrezko kentze batzuk.

Emen, lenengo tabernariak eta dendariak baleen bidez emon eta gero erriak ordainduak ikusten dira:

1873 koak dira danak.

6-II.- Erria batzarrean batu zan armak artuta ebillan Santa Kutz abadeak 11.275 errial eskatu il onen iruan eta oraindik lau milla falta ziralako. 1.500 erraziño ogi, arda eta aragi eta beste ainbeste abarketa pareren dirutza zan.

Errialetan

|  |        |
|--|--------|
| -Cazadores de Puerto Rico izeneko batallioiak e-txeetako armak batzen ibili zan egunean egindako gas-tua ..... | 90,00  |
| Eurentzat eta Markiña'ko «voluntarios de la liber-tad»ekoen gastuak .....                                      | 228,14 |
| Berberak egindako beste gastu batzuk .....   | 108,00 |
| 32 arrua lasto, Gobernadore Militarren taldearen-tzako .....   | 64,00  |
| F. Goiriena'ren karlista taldeari eta Arratia bata-lloiari .....   | 44,    |
| Otsailla'ren 2'ean Santa Kutz abadearen gudarien erraziñoiak .....   | 203,00 |
| Loma Koronelaren gudarienezko erraziñoiak, Martia'ren 3'an .....   | 135,   |

|  |        |
|--|--------|
| Markiñako boluntarioxoentzako, eta Ansotegi brigadierraren zaldientzako .....  | 74,    |
| J. M. Kalzakortaren txala il ebenei, au da, Kaperotxipi'ren taldekoei .....  | 19,80  |
| Azkatasun boluntarioxoei .....   | 72,12  |
| Gobernadore militarren mutillei erraziñoiak Otsailiaren 2'an .....   | 52,20  |
| Ansotegi brigadierraren mutillei .....   | 29,    |
| Markiña'ko boluntarixoei zaldientzako lastoa .. ,  | 16,    |
| Apirilla'ren 4'an koltxoiak ikusten ibili ziranen gastuak .....  | 5,     |
| Apirilla'ren 28'an, erraziñoiak Markina'ko boluntarixoei .....   | 54,12  |
| Apirilla'ren 28'an, Ondarroa'ko azkatasun boluntarixoei .....  | 138,20 |
| Maiatza'ren 13'an, Amoroto'tik etorritako Alba de Tormes'koei .....  | 6,18   |
| Maiatza'ren 13'an, Markiñako boluntarixoei eta Segorbe taldekoei .....   | 142,   |
| Bagilla'ren 1'an Markina'ko militar gudarosteari .   | 48,20  |
| Bagilla'ren 8'an, Ondarroa'ko azkatasun boluntarixoei .....  | 121,   |
| Illaren 16, 18, 21 eta 22'ean Markiñan egoan Segorbeko batallokoei .....   | 199,24 |
| Uztaillaren 2'ean, Aguilar Komandantearen eta Pino koronelaren mutillei .....  | 66,    |
| Uztailla'ren 12'an, bataoitako liburuak <i>ezin</i> billatuta ibili ziranean, errian 18'tik 30 urterako mutillak batzeko, Sarasola'ren aginduz ..... | 54,    |
| Uztailla'ren 13'an Amorotoko sarjentu eta mutillak egindakoak .....  | 36,    |
| Lekeitio'ko Aduanako arduraduna Zubiaurre-ko sarreren eskubideak kobratu nairik 40 soldadugaz etorri eta egindako gastua .....                       | 35,    |
| Baserrietakoabereak ikustera etorri eta Espilla'ren  |        |

|  |        |
|--|--------|
| beia eta Domingo Urkiza'ren txala eroan zitueneko gastuak .....  | 12,16  |
| 23-VI. Lekeitio Aduana arduradunak Amoroto'n eukazan mutillentzat .....  | 48,32  |
| 24-VII. Leon Uriarte karlisten komandantearen mutillentzat .....   | 39,28  |
| 27-VIII. Sarasola'ren agInduz, erriko mutillak artzera etorri zan Galarza gudalburu eta erriko mutillen gastuak .....  | 126,   |
| 26-VII. Gerrarako gertuta egozan mutillen aparia   | 121,   |
| 28-VIII. Atzoko egunez agertu ez ziran mutillen billa etorritako Galarza'ren soldaduak egindako gastua   | 60     |
| Mutriku'n egoan General Luzarraga'ri bialdutako ixilleko mandatarien gastuak eta il ziran ganaduen baliio ikusten etorri ziranena .....  | 30,22  |
| 12-VIII. Jose Martin Bermeosolo'ren seme bi eta Martin Atxurra'ren seme baten billa etorri ziran Sarasola taldeko Domingo Usobiaga'ren soldaduen gastuak   | 26,    |
| 27,28 eta 29 VIII'n Isidro Dulanto eta Jose Aretxabaleta'k iru egun orreitan bataiotako liburuak, ezkonduenak eta ildakoenan aztertzen eta 18'tik 40 urte bitartekoen zerrendak egiten galdu zituen alogerak ..... | 36,00  |
| Gerra onetan, Pedro A. Bermeosolo'k alderdi bieta=ko taldetako mutillei emondako erraziñoiak .....   | 265,68 |
| Bermeosolo berberak, Markiña'n egozan Segorbe batalloikoei .....   | 24,16  |
| Berberak, Bagilla'ren l'ko goizaldean Sarasola karlista batalloikoei .....   | 77,14  |
| Berberak, egun onetan txal bat iltera etorri ziran soldaduei .....   | 12,32  |
| Berberak, Markiñan Segorbe eta askatasun boluntarixoei .....   | 91,    |
| Markiñan egozan soldaduentzako erraziñoiak ipin=ten ibili ziranei .....  | 91,    |
| Bermeosolo berberak, Agilar komandantearen mutillen erraziñoiak .....  | 61,    |
| Berberak, Arregi'neko txala il ebenei .....  | 18,16  |

|   |        |
|---|--------|
| Bermeosolo berberak, Lekeitio'ko aduanakoa etorri zaneke aguardientea .....                             | 12,    |
| Berberak, Agfilar komandantearen mutillentzako Lekeitio'ra bialdutako erraziñoiak .....                 | 152,11 |
| Berberak, Uztailla'ren 22'an Amoroto'n egoan Lazaga karlistaren mutillentzako erraziñoiak .....         | 42,28  |
| Berberak, Uztailla'ren 31'an baserriak ikusten etorri ziranei .....                                     | 21,00  |
| Berberak, Uztailla'ren 30'n Arregia etxean Lekeitio'ra erraziñoiak ipinten ibili ziranei .....          | 41,    |
| Berberak, Uztailla'ren 27-28'an Galarza'ren soldaduen erraziñoiak .....                                 | 125,   |
| Berberak, Abustua'ren 7'an Lekeitio'n egozan karlistentzat .....  | 64,    |
| Berberak Larrabetzuan egozan Sarasola'ren mutillentzat .....  | 187,20 |
| Berberak, 11-VII'n Batallon Puerto Rico'koei .....  | 23,20  |
| Berberak, Otsailla'ren 23'an Goiriena'ren mutillei eta Arratia batalloikoei bialdutako erraziñoiak : .. | 196,   |
| Jose M. Urkidi'ri, Ondarroa'ko boluntarixoen zatitza eta Markiñakoentzat .....                          | 137,   |
| Urkidi'ri, Markiña'ko boluntarixoen zatitza .....   | 46,46  |
| Urkidi'ri, Otsailla'n 2'ean Santa Kutz abadearen mutillei erraziñoiak .....                             | 64,16  |
| Urkidi'ri, Gobernadore militarren mutillei .....  | 34,    |
| Urkidi'ri, Martia'ren 5'an Markiñako azkatasun boluntarixoei .....                                      | 116,80 |
| Urkidi'ri, Francisco Goiriena eta Kaperotxi'ren mutillei emonak .....                                   | 12,    |
| Urkidi'ri, 13-V, Markiña'ko boluntarixoei emonako erraziñoiak .....                                     | 155,00 |
| Urkidi'ri, Karlisten buru zan Sierra'ren mutillei .....   | 34,18  |
| Urkidi'ri, Columna Agilar'en mutillen erraziñoiak .....   | 35,14  |
| Urkidi'ri, Markiña'ko boluntarixoen zatitza eta Segorbe taldeko mutillei .....                          | 211,20 |

|   |        |
|---|--------|
| Urkidi'ri, Lekeitio'ra Urionabarrenetxea'ren soldaduentzakoak .....   | 30,00  |
| F. Idoeta'ri, Ondarruko Askatasun Boluntarixoei Otsailla'ren 6 eta 7'an Arantzibia'ra bialdutako erraziñoiak .....                                    | 127,00 |
| F. Idoeta'ri, Ondarroa'ko Udaleko arduradun zan Jose Ituarte'ri bialdutako ogi, arda, lasto eta abarrekatik, T. Coronel Loina'ren mutillentzako ..... | 1.061, |
| F. Idoeta'ri, Ondarroa'ko Jose Letona'k emondako ardauren ordezt .....  | 1.400, |
| F. Idoeta'ri, Ondarroa'ko Juan Cruz Uranga Pote-ro'k Gobernadore Militarren soldaduentzat egindako ogiakaitik .....                                   | 241,   |
| F. Idoeta'ri, Ondarroa'ko Jose A. Manzisidor'ek Lekeitio egoan Sarasola'ren mutillei egindako ogiakaitik .....  | 244,   |
| F. Idoeta'r   |        |
| F. Idoeta'ri, Martia'ren 3'an Ondarroako askatasun boluntarixoei I. Salazar'ek emondako aragiakaitik ....   | 172,   |
| F. Idoeta'ri, Ansotegi brigadierraren taldeko Guardi Zibil eta Karabiñeroei emondako okelatan gitxiago urten eta diruz emona .....                    | 118,20 |
| F. Idoeta'ri, Otsailla'ren 2'an emondako aragiakaitik .....   | 320,   |
| F. Idoeta'rI, Gaspar Elustondo'k Ansotegi brigadierraren taldeari Otsailla'ren 19'an emondako aragiakaitik .....                                      | 640,   |
| F. Idoeta'rI, Markiña aldeko soldaduei dIrutan emondako erraziño ordeztokogaitik .....  | 1.165, |
| F. Idoeta'ri, Lagunero generalaren mutillentzako erraziñoekaitik .....  | 220,   |
| Pedro Mari Bustindui'ri, Bilbo'ra lau arma eroateko .....   | 4,     |
| Pedro Mari Bustindui'ri, alderdi bietako soldaduei egindako zerbitzuagaitik .....   | 220,   |
| Juan Domingo Laka Ondarroako abarketeruari,   |        |

Santa Kutz abadeari einondako 14 pare aberketagaitik 77,  
 Domingo Lezaola'ri, gerratean erriaren kontura  
 egindako osterakaitik ..... 362,  
 Jose Migel Arana'ri, gerrateko osterakaitik ..... 209,  
 Jose Aretxabaleta'ri, gerrateko osterrakaitik ..... 254,  
 Ramon Aretxabelata'ri, gerrateko osterakaitik .... 232,  
 Eta orrelaxe beste ainbat kontu txiki, danak zeaztasunez eta  
 erreziboekin agertuta.  
 Ezin ukatu berríatuarrak zotin andia artu ebela gerra bitarte-  
 ko zala.



# AKILLA'TIK ASTOBITZARA

## OGIA, GATZA ETA ARGIA

Gerrate guztiak izaten diraitsuak. Askotan errurik ez daukenak makillakadak artzeko.

Ori gertaten da ume errukarriekaz, andre bioztunekaz, eta famili-min diran askogaz.

Gerraren eragiñez 1876 urtean, beraz Karlistadako gerra denporan, famili asko bialtzen zituen erbestera, bai batekoak eta bai bestekoak, Berriatua'n be egon ziran onelakoak.

Berriatua erri beartsu eta premiñaduna izanarren, erbestetutako familiei al besteko laguntza egiten eutsen: Ogia, gatza eta kandelak emoten eutsezan erriaren kontura. (1876 urteko kontu liburutatik).

## AGINTARIEN ESKINTZA

Oiturazko da gure errietan urtean erri-zaindari edo ordezkari urte ten dabenak, jai andietan erriaren izenean eleizkizunetara joatea. Eta egun orreitan, bestetan egiten ez dan ofrenda egiten da meza erdian. Abade bat andrekana urreratzen dan artean, illak euki dabean familien ofrenda artzera, bestea erri-agintarien eskintza artzera gertuten da. Eta erri-ordekariak banan-banan euren limosnatua emon bear izaten dabe.

Berriatua'ko agintariak erritik artzen eben ortarako dirua.

ZiñegotzI edo kontzejal bakoitzari urteko 22 errial emoten eutsazan erriak ortarako. (1876 urteko kontu-liburutatik).

## DANTZARIEN IRABAZIA

Berriatuarrak eta ondarrutarrak jaietan ondo konpontzen ziranik ezin ukatu.

Jai guztietan dantzariak eroaten zituen, aurrekulariak, orduko kronikak esaten daben lez, jaia ospatuten zan auzoetara.

Goizean, naí san Gregorio, naí Madalena, naí Gardotza, naí Asterrika'ra, jende asko etorten zan darroa'tik meza nagusira, edo ta konbidautzara.

Eta jaietan, geienetan, erri bietako dantzariak agertzen ziran.

Ardauen kontuak argituko gaitue dantzarien tratu ori egiten zan erabideatzaz.

Ikusi:

9-V-1876.- San Gregorio eguna. Azunbre bi goizean erriko aureskulariei, arratsaldean beste bi errikoei, *éta* beste bi Ondarrukoei, «usarioa eta oitura dan lez» 36 laurdeneko azunbreak.

29-IV-1876.- San Pedro eguna. Meza nagusi ondoren azunbre bi erriko dantzarietara, arratsaldean beste bi errikoei eta beste bi ondarrukoei.

30-VI-1876.- San Pedro biaramona. Goizean erritar dantzarietara lau azunbre. Arratsaldean beste bi errikoei eta ondarrutarrei beste bi.

22-VII-1876.- Madalen eguna. Errikoei azunbre bi goizean eta beste bi arratsaldean, baiña «oitura dan lez» 38 laurdeneko azunbreak. Eta arratsaldean beste bi ondarrutarrei

10-VIII-1876.- Asterrika'n, san Lorentzo jaiak. Berriatuako aureskulariei goizean azunbre bi arda eta arratsaldean beste bi. Ondarrutarrei arratsaldean bi.

2-IX-1876.- Mereludi'ko San Bixente'n. Errikoei goizean azunbre bi eta arratsaldean beste bi, oitura dan lez 42 laurdeneko azunbreak. Eta arratsaldean, ondarrutarrei beste bi.

(36 cuartos de azunbre, 38 cuartos eta 42 cuartos, esaten dau erderaz).

(1876-1877 urtetako kontu liburutik).

## ZUBIAK TATARREZ

1877 urteko Uztallara'ren 18 eta 19'an eurite andiak egon ziran. Ujolak tatarrez eroan zitun Andonegi, Obekola eta Arantzibia'ko zubiak.

Aldundiak, Diputasiñoiak, ez eukan orrelako laguntzetarako dirurik. Eta eskatuarren, ezetza erantzun zan.

Geronimo Irusta'k egin zitun zubi konponketarako planoak. Bakoitzaren kostuak onek izan ziran:

Andonegi'koa 2.554 errial.

Arantzibia'koa 3.555

Okolakoa 2.467

Urte onetan Eustasio Pagoaga zan erriko alkate.

## ARRANTZALIEN ERRUKIA

1862.- Itxasoan, lengo denporetan Sarri gertaten zan lez, zoiritzar bat gertatu zan. Oraingoan mutrikuarrak ziran ondatuak.



Euren izenean emengo kontsejuko gizonak ibili ziran etxerik etxe eskerrak, eta 310 errial batu zituen danen artean. Eta erriak, urrengo batzar nagusi baten, ao batez erabagi eban beste 90 errial geitzea erri dirutik, orretara 400 errialeko laguntza bialduaz.



*Eleiz ingurua eta beko plaza, 1919 urtean*

## PROBALEKUA

1855 urtean proba tokia egin zan plazan.

Ango arbela ataratea asko kostatu zan. Orduko paperak diñoenez, arbel ori tiroka zatitu eta kendu bear izan eben. Bide barria egitean, bidebarriko batzordekoak galerazo egin eben probak bide barrian egitea, eta ori da ain zuzen berrlaturrak probaleku barri egiteko eta or gastua egiteko euken premiña: Bide barrian, arrla arrastaka ibiltzerik ez ebela lagaten eta origaitlk gastatu ziraia 570 errial barria egiten.

## ERRIKO ZERGA, EDO ORDAINDU BEARRAK

1879.- Berriatua'ren erri-zerga, edo ordaindu bearrekoa, 1879 urtean, 18.555,25 peseta ziran, Bizkaiarentzako laguntza lez. Dirutza ori 180 bizilagunen artean ordainduten eben, gaiñerakoak beartsu edo pobretzat artu ziralako.

## ERRIKO ONDASUNAK

1879.- Berriatua'k, baliatu al eikean erri ondasun lez, baso, belardi, larre, solo eta abarren artean, 66 toki eukazan. Baiña gerrateko zorrak kittutzeko, dirua aurreratu edo lagundu eben batzuk orrelako tokiak artu zituen edo eurekanatu. Orrela 44 toki bakarti edo «partikularren» eskuetara biurtu ziran, eta erria gitxien balio eta tokirik txarrenetan egoazenekin geratu bear izan zan.

## ILTEGI (KANPOSANTU) BARRIA

Lengo gizaldia izan zan kanposantuei buruz neurri barriak artzeko aginduak egon zirana eta tokirik geienetan eleizetatik obiratzeak edo enterratzeak kendu ziran denporaldia.

Berriatuan be, beste toki askotan lez, eleizan be egiten ziran obiratzeak eta bai eleiz ondoan egoan beste zatitxo baten be. Baiña aginduak beteaz, kanposantu barria egitea erabagi zan.

1888 urtean eskatu zan ortarako baimena, bear ziran 3.954,50 peseta ortan eralgi al izateko. Urte bete geroago gobernadoreak irizpidera edo informaziora atara eban eskari ori, eta urrengo urtean emon zan baimena egiteko.

## TABERNA BARRIA

1893 urtean taberna barri bat egiteko gogoia sortu zan erritar batzuen artean.

Esaten zan lengo taberna, bide nausitik basterrean geratzen zala, toki txikia eukala, erbestetarrik ez zala inor geratzen bertara joateko, eta abar.

Eskabidea egin zan Aldundira, diputasiñora, baiña Aldundiak ez eban baimenik ernon asarre batzuk agertu ziralako.

Gero eskabidea aldatu egin zan, eta taberna ordez, egin nai zana alondika barria zala esaten zan. Aitzaki bardina, len egoana toki busti eta osasun bakoa zala eta abar.

Erri batzarrak egin ziran. Batzuk baietz, besteak ezetz, urte bi igaro ziran aidean. Erritik gora joaten ziran albisteak ez ziran itxuraz bardiñak izan.

Azken baten, 1894'ko Abenduaren 2'an, erabagi bat artzeko erri batzarra egin zan. 87 lagun batu ziran kontseju etxean, eta eurretatik 13 bakarrik agertu ziran toki barri ori egitearen alde eta 74 aurka.

Alkateari isuna (multa) ipini eutsen, 17,50 pesetakoa, legezko ez ziran jokabide batzuk erabili zitun aitzakiz. Eta erriari einon

eutsen eskubidea komeni ba zan edo ta ala eritxi *ezkero*, idazkariari (sekretarioari) bear zan isuna ipinteko.

(Gernika'ko Batzar Etxeko Artxiboa. Registro 30, Legajo 1, N.º6. El Ayuntamiento de Berriatua solicita autorización para construir una casa-taberna. Contiene plano).

## URAK

Urentzako urarka edo depositu bat egin al izateko, 6.000 pe-setako aurre kontua iragarten eban ortarako eta gero urak zabal-tzeko tutuentzako dirutza lez. Gastu ori egiteko baimena 1915 ur-tean eskatu zan Aldundira.

Esaten zan Berriatua'n, ordurarte, ez egoala urarkarik, Asto-potxa deitzen dan tokian baiño eta komeni zala urak batu eta erri-ko etxeetara ipintea. Gaiñera, esaten zan, egiteko asmoa egoan fa-brika barriak eroango zitula ur guztiak, orrelako zerbait egin ezik.

(Erri lanen egitasmoak. 1915. Gernika'ko Artxiboan, Batzar Etxean).

## KOFRADIAK

Lau Kofradi nausitan banatuten zan beti erri au: Erribera, San Bi-xente, San Lorentzo (Asterrika) eta Madalena.

1704 urtean egin zan lenengo etheen errolltzea.

Errolltze edo zentzu ori Kofradietako banaketa edo eraketa kontuan euki barik egiña da.

Lenengo baserriak izentatzen dira bertan, auzorik be zeaztu barik. Gero Erriberan dagozan etxeak, baiña etxe bizitza oso lez etsi edo alaxe ordaintzen ebenak.

Azkenez, curen ortuekin dagozan etxetxuak.

1745-1745 urtetan egin zan errolltzan, etxeak Kofradietan ba-natuta datoz. Orrela, Madalena Kofradian 33 etxe agertzen dira.

|               |     |
|---------------|-----|
| Asterrikakoan | 29  |
| San Bixente'n | 27  |
| Erriberan     | 38  |
| Danetara      | 127 |

1745'ko errolltzeak, iru baserrien jaubetasuna monjen eskue-tan agertzen da. Orrela, Obekola'ren jaube lez Mutriku'ko monjak; Iburguen'en jaube, Lekeitio'ko monjak, eta Errementarikua'ren jaube, Elgoibar'ko klaratar monjak. 1796'ko errolltzean, ba dirudi

bik bertakoen jaubetasuna lortu dabcla, baiña \$rementarikua'k oraindik monjaen jaubet.asunean jarraitzen cban.

Bein mon jak aitatu doguzan ezkerero, esan daigun 1813-1817 bitartean, Elgoibar'ko rnonjen abadesa lez berriatuar bat agertzen dala: Theresa Rosa Santa Klara, berriatuar abizenez Gabiola.



*Berriatua'ko Udaletxe zarra. Azpian. Gregorio deunaren ermita 1919 urtean.*

# ERROTAN ETA BURDINOLAN

## ERROTAK

1796 urteko errotzean errota oneik agertzen dira:

Berriatua izena daroana, Peñafiorida Kondearena.

Bere arduradun edo erabiltzaille, Fernando Alzolabea.

Andonaegi, Migel Andres Morga'rena.

Bere arduradun edo erabiltzaille, Pedro Ituarte.

Obekola, Peñafiorida'ko kondearena.

Bere arduradun edo erabiltzaille, Domingo Aranbarri.

Arantzibia, Peñafiorida'ko kondearena.

Bere arduradun, edo erabiltzaille, Manuel Etxano.

## BURDIÑOLAK

Urte berbertako errotzean, Burdiñola oneik agertzen dira, eta eurretaz esaten dana agertzen dogu:

Obekola'ko burdiñola: Peñafiorida Kondearena da, eta «berak erabilten dau».

Obekolako burdiñola txikia: Oraingotan ez dau lanik egiten, baiña anean ipinteko asmoa dago. Peñafiorida kondearena da.

Andone i burdiñola biak. Tellatupe baten dagoz biak, eta Migel Anton Murga'renak dira. Bata berberak erabilten dau, eta bestea Pedro Ituarte'ri errentan ermona dauka.

Andonegi'ko burdiñola bi onei buruz, Migel Anton Murga'k eta Andonegi'k 1810 urteko Apirilla'ren 2'ean egíten daben agerpen baten au esaten eban: Burdiñola bi daukadaz, Andonegi deitzen diranak. Txikia uztuta dago. Andiak ez dau lanik egín negute onetan, eta egin be ez dau egingo. Azken iru-lau urtetan, emaitzak ondua jo dabe, burdiñak euki daben saineurri berapenagaitik, eta aurrerantzean zer gertatuko dan jakin ez».

(1796'ko «Fogueración de Berriatua» eta 1810'ko zerga banaketa «Reparto de contribución directa. Señorío de Vizcaya, Ayto Berriatua») (Gernika'ko Batzar Etxeko Artxiboan).

Urte batzuk geroago, 1814 urtean egindako estadistikan au esaten da:

«Burdifiola bi dagoz:

Bata Obeko 1810 eta 1811 urtetan 343 kintal burdin landu zitun, eta orain geldidago.

Bestea, Andonaegi'koa, Migel Ant. Murgarena da eta Jose Antonio Ituarte'k darabil. 1810 urtean ez eban lanik egin.

1811 eta 1812 urtetan, 200 kintal landu zitun urteko.

1813'en, 250 kintal.

1813'en, 250 kintal.

1814 (aurten) 300 landuteko asmoa dauka.

Urte onetan, berrituarren aberastasuna edo emaitza era onetan zeaztuten zan:

Bakarrekoena, edo curen jaubetzakoa:

50.977 errial dirutan.

1.764 anega ari.

2.133 anega arto.

191 anega indar.

312 anega gaztaiña.

259 saku sagarretan.

592 zama egur ikatzetan.

Berrituarren indar eta ondasunen amarrenak, era onetan banatuten ziran:

|                        | Dirutan | Garia | Artoa | Indiarra | Sagarra |
|------------------------|---------|-------|-------|----------|---------|
| Peñaflorida kondeak    | 4.802   | 52    | 88    | 1        | 8       |
| Eleizako kabildoak     | 4.802   | 52    | 88    | 1        | 8       |
| Parrokoak              | 0.616   | 6     | 12    | 0,1/4    | 1       |
| Eleiz-fabrikak=        | 2.633   | 30    | 40    | 0,1/4    | 2       |
| Ziarrotzako Abadeak    | 2.293   | 30    | 42    | 0,1/2    | 2       |
| Ziarrotzako Kolejiatak | 0,270   | 3     | 5     | 0,1/4    | 1       |
| Lekeitio'§o iru etxek  | 0,636   | 8     | 10    | 0,1/4    | -       |
|                        | 16.052  | 181   | 285   | 3,5      | 22      |

Oarra. Erriz Berriatua diran 26 etxe, eleizaz Ondarroa'ko parrokiaren menpean dagoz eta an ordaintzen dabez amarrenak, nai eta etxe-jaubetza eta aberastasuna emen sartu.

(Berriatua: Estadística territorial. Año 1814.) (Gernika'ko Artxibutik).



Urteak geroago, 1822-1825 urtetako zerrenda agertzen da, urtean emengo baserri eta etxeak ordaindu bear daben ordaingarria zeaztuten. Etxe bakoitzak bere ondasunetako  $\frac{1}{5}$  ordaindu bear eban, eta zerrenda onetan beste errota bat geiago agertzen da era onetan:

| Izena              | Jaubea              | Urteko emaitza | Ordaindu bearr. %5 |
|--------------------|---------------------|----------------|--------------------|
| Arantzibia errota. | Peciaflorida Kondea | 440            | 22                 |
| Obekola errota.    | Peciaflorida Kondea | 500            | 25                 |
| Berriatua errota   | Peña, eta batzuk    | 600            | 30                 |
| Andonaegi errota   | Jose M. Murga       | 400            | 20                 |
| Bidegorri          | M. Urrestieta       | 80             | 4                  |

Zerrenda onetan burdiñola bi bakarrik agertzen dira, Andonaegi'koa, jaube lez Jose aria Mugartegi izentatuta eta Obekola'koa, Peñaflorida'ko kondearena, baiña ez bata ta ez besteari ez dautse irabazirik zeaztuten eta ordainbearrik izentatzen.

Baserrietan, 1822-1825 urtetan geien ordaintzen ebenak oneik ziran:

|                                    | Urteko emaitza | Ordaintzeko %5 |
|------------------------------------|----------------|----------------|
| Lekoia goikoa. (F. Plaza)          | 760            | 38 errial.     |
| El taxpuru andikoa. (J. Mugartegi) | 740            | 37             |
| Astobitza (J. M. Arriola)          | 700            | 35             |
| Aierdi (Onaindia)                  | 700            | 35             |
| Olabe (J. Elordi)                  | 700            | 35             |
| Ikaran andi (J. Ikaran)            | 700            | 35             |
| Urkiaga goiko (A. Arrasate)        | 700            | 35             |
| Arana (J. Arano)                   | 640            | 32             |
| Burgatia (J. Irusta)               | 640            |                |
| El taxpuru erdikoa (Colmenares)    | 640            | 32             |
| Urkiaga bekoa (R. Arenaza)         | 620            | 31             |
| Aldekoa (J. Ibarra)                | 600            | 30             |
| Egiguren (J. Gabiola)              | 600            | 30             |
| Gardtttza bekua (P. Eizagirre)     | 600            | 30             |
| Kategi (J. Arantzamendi)           | 600            | 30             |
| Sustaeta (D. Laka)                 | 600            | 30             |
| Zabala (A. Zabala)                 | 600            | 30-            |

Oarra: Okerren bat egon leike Burgaia baserriaren goraberan. Garbi irakurten da bere emaitza 640 agertzen dala zerrendan, baina ordainbearrekoa 37 errial ipinten dau, eta enncko bostari 640 orde z 740 dagokio, edo bestela 32 crrial izango litzake ordaingarria.

## OGASUN AGERPENAK = «HAZIEXDARAKO ALTORPENAK

Baserri guztiak egiten eben etxeko agerpen edo deklaraziñoia, etxean artzen eben gari, arto eta beste emaitzena.

Eta danetan igarten da eleizari emoten eutsen sepulturetako ogia eta argizaria, hai eta ugazabari emoten eutsen oillo eta beste gauzak be, kontuko beragarri izaten zirala.

Artu daigun, tartetik, aukeratu barik, bat:

Atxurra baserria. (Dagon lez, erderaz)



|  |  |            |
|--|--|------------|
| <p>«En la anteiglesia de san Pedro de Berriatua, primero de Abril de 1819, al Fiel Comisionado se presenta Juan de Coscorroza, dueño de la Casa y casería de Achurra, que es en esta jurisdicción, cuya renta se regula, teniendo en consideración en los precios que fixa la orden y con deducción del pan y cera de la sepultura, se regula en este forma, por diez fanegas de trigo a 40 reales .....</p> |  | 400        |
| <p>Cuatro fanegas de maiz a treinta .....</p>  |  | <u>120</u> |
| <p style="text-align: center;"><i>Que suman quinientas veinte</i></p>  |  | 520        |
| <p><i>It. productos de montes</i></p>  |  | <u>46</u>  |
|  |  | 566        |
| <p>Vaja.</p>   |  |            |
| <p><i>Por el enfiteusis de 5 fanegas de trigo al Conde de Peñaflo-<br/>rida, a quarenta .....</i></p>  |  | 200        |
| <p><i>It. por un cabrito y una gallina enfiteusis .....</i></p>  |  | 016        |
| <p><i>It. dos fanegas de pan de la sepultura .....</i></p>   |  | 080        |
| <p><i>It. Réditos de 800 escudos al 3% .....</i></p>   |  | 240        |
|  |  | <hr/>      |
| 536  |  | 536        |
| <p><i>Líquido producto de dicha Hacienda .....</i></p>   |  | 30         |
| <p><i>Advierte también que para remedos y remiendos de la citada sepultura como también los gastos de plantaciones y cabos de Cajigos no carga, por no saber si se abonarán en cuenta. Y esta liquidación habiendo hecho en estos términos y sacando el producto líquido al año la firma después del Comisionado.</i></p>  |  |            |
| <p><i>Firmas: Juan de Coscorroza - Jose Domingo Gaviola</i></p>  |  |            |
| <p style="text-align: center;"><i>Pedro de Eízaguirre</i></p>  |  |            |

# KALEKO ETXEAK 1824 URTEAN


1824 urtean egindako kaleko etheen zerrendan, amabi etxe agertzen dira. Zerrenda onetan, etxe\_jaubea, *etxearen* izena, errentetako balioa agertzen dira. Cero etxe bakoitzaren irulaurdena bezan, ordaindu bear ebana zeaztuteko eta beste zati bien eneko bosta ordaindu.

Danetara bo kaleko etxe guztien artean ordaintzen eben zerga edo kontribusioia berrogei ta amasei errial eta amazapi marabedira clduten zan.

Jakingarri dala uste dogu zerrenda ori agertzea.

| Jaubea                | Etxe izena                           | Errentcn balioa |
|-----------------------|--------------------------------------|-----------------|
| J.J. Mugartegi        | Batzartoki                           | 132             |
| Sto. Domingo Bizkon.  | «Casa pintada»                       | 231             |
| Udalctxea             | Udal-etxe eta aguaziliaren bizilekua |                 |
| P. Agirramalloa       | Elexalde barria                      | 132             |
| C. Ojangoiti          | Eskolakoa                            | 231             |
| Sto. Domingo Bizkon.  | Etxebarria                           | 264             |
| J. Azkartza           | Venturagoa                           | 231             |
| id.                   | Laba                                 | 066             |
| id.                   | I3urdiñola sntegia                   | 033             |
| Sto. Domingo I3izkon. | I3izkondcaren                        | 165             |
|                       | Zubiaur                              |                 |
| Martin Aldckoa        | Zubiaur aurre                        | 066             |
| Martin Aldazabal      | Martiñena                            | 132             |

Zerrenda au izenpetuten dabe: Juan de Irusta, Manuel de Arano, Jose Ignacio de Arriola eta Fernando de Plaza'k.



Batzartoki izenekoa

# ERRIKO MORROIAK

Orain eun iu'tc, au da, gure gizaldian sarta baiño len, eta gero bo, erriko aurre-kontua (presupncstoa) urteko amar milla peseta inguruan ibiltzen zan. Sarritan berago. Gure gizaldian sarta eta gero be sarri billatzen dira 9.000 pesetako aurrekontuak arte guztirako.

Erriko sarrerak, geienetan, iru gai ziran: Al-duna, koñaka (aguardiente) eta orio edo koipea. Gizaldiagaz batera asi ziran okcla saltzeko eskubideari zerbait emon eragiten.

Geien emoten ebana ardaua zan, zazpi milla peseta inguru arteko; orren ondoren koñaka beste bi milla inguru eta gero orlo eta koipeak milla inguru.

Ez da agertzen bestelako sarrerarik.

Iñoiz, arte bakarretan, i ai-lan urtetako zorrak aurre-kontu andiago bat eskatzen ebelako, arbola batzuk saltzeko baimena eskatu zan. Baiña ori, gitxitan.

Aurro -konturik aldatzen cz zan lez, ordaindu bearrak be arte luzetan ia gizaldi osoan ez ziran aldatuten. Orrela, erriko zeregin batzuk, erriko morroiak, beti famili batzuetan ikusten dira.

Osagillea sarri aldatzen zan, ori bai.

Maixua zer esanik ez.

I3aiña or daukagu organu jotzaillea, esate baterako, ainbeste urtetan, ia bizi guztian, iru- illabetetik beingo alogera beti bardin kobraten: 62,50. Orrela I3alentin Laka. Berari be semeak jarraitu eutsan lez, esan bearreko da ia eun urtetan Berriatua'ko parrokkiko organu-jotea Lakatarren kontura egon dala.

I3este erri arduradun «sufridu» bat: txinela, aguazilla. Iru zitun, au da, urte guztian 200 peseta, onek be urte askotan aloger jasote barik. Orretan Jose Eiza-girre bat agertzen da, ia bizitza guztiko zeregiñean.

Idazkariak, sekretarioak, 137,50 irabazten zitun iru illabetetik bein. Eta berriatuarrak urte baten sari ori eun peseta goratzea au ipini ebenean, goitik ez eutsen urte orretako konturik onartu. Onetan, arte askotan, Andres Zubikarai agertzen da idazkari zeregiñean.

Berriatua'k, etxe eta bizilagunetan, onelako gorakada euki izan dau:

XV-XVI garren gizaldian, 120 etxe zenbatuten ziran.

1704 urtean                    122 eta 418 bizilagun.

1794 urtean                    131 eta 941 bizilagun.

1860 urtean                    1,172 bizilagun.

# ELEIZ LIBURUAK ETA BESTE JAKINGARRI BATZUK

Esan leike Berriatua'ko artxiboa, jatorrena beintzat, eleiz liburuetan geratzen dala, beste asko Udaletxea erre zanean suak galdu zitulako.

Bizkai'ko parrokirik geienak egin eben lez, toki ziurrago baten eukiteko ustez, Berriatua'ko parroko liburuak be Bizkaiko Eleizaren Histori Artxibura croan ziran, Derio'ko Seminarioko Ikas-texera.

Liburu orreik banatzen dira:

1556-1662 urtetako JAIOTZA, EZKONTZA ETA ERIOTZEN LIBURUA.

1663-1722 urtetako »

1731-1759 urtetako JAIOTZAK.

1759-1827 urtetako JAIOTZAK.

1827-1867 urtetako JAIOTZAK.

1746-1842 urtetako EZKONTZAK

1830-1889 urtetako ERIOTZAK.

SAN GREGORIO KOFRADIA.- 1748-1892.

ERROSARIOKO KOFRADIA.- 1759-1889.

JESUSEN BIOTZAREN KOFRADIA.- 1747.

SORTZEA.- 1798.

ERROLTZA-MATRIKULA.- 1933.

ELEIZ ERAKUNDEA (FABRIKA).- 1556-1605.

ELEIZ ERAKUNDEA (FABRIKA).- 1609-1658.

ELEIZ ERAKUNDEA (FABRIKA).- 1658-1755.

ELEIZ ERAKUNDEA (FABRIKA).- 1861-1951.

ELEIZ ERAKUNDEA (OBRA PIA).- 1632-1861.

BERRIATUA'KO AUZOKIDE ZAN BARTOLOME ARANBARRI'K PLABLO AGIRRE'REN AURKAKO AUZIA.- 1810.

ARANZIBIA KAPITANAREN ONTASUN EKINTZA.-1737-1856.

URTE-URRENAK ETA NOKTURNOAK.- 1736-1891.

## ELEIZ-GIZON, ERROLTZE ETA KONTLITAKOAK.-1770-1887.

Liburu oneik 1978'ko Urria'ren 23'an croan ziran, eta esanda-ko artxiboan Berriatua'ko parrokiaren jaubetasuneko lez agertzen dira.

Ikusten denez, libururik zarrenak 1.556 urteko zeaztasuna emoten asten dira.

## UR-BEDEINKATU ONTZIA

Parrokiko eleiz-ate aurrean dagon inarmol-arrizko ur bedein-  
katu ontziak, 1588 ipinten dau ontzi gaiñean.

## PARROKIKO ABADEAK, AZKEN EUN URTEETAN

Ildefonso Ramon Meabe.- Abade eta eleiz-ogipeko (benefizia-  
du). 1867. Eta parroko.

Luis Paulino Beobide.- Abade laguntzaille.

Ramon Pagoaga.- Eleiz-ogipeko.

Eustasio Aretxabaleta.- Eleiz ogipeko.

Franzizko Patricio Bustindui.- Abade laguntzaille. 1879. Geroago  
erretore.

Jorge Etxebarria.- Abade laguntzaille.

Jose Fco. Amallobieta.- Abade laguntzaille.

Carlos Egaña.- Abade laguntzaille.

Jose Zaldumbide.- Aldiz-aldizko erretore.

Ignacio Orbea.- Parroko, 1890.

Domingo Lersundi.- Abade laguntzaille.

Jose Arantzamendi.- Abade laguntzaille.

Domingo Bermeosolo.- Abade laguntzaille.

Bruno Zenarruzabeitia.- Abade laguntzaille.

Pedro Aspiazu.- Abade laguntzaille.

Felix Bustinduy.- Parroko.

Matias Uribe.- Abade laguntzaille.

Jose Sagarna.       »       »

Juan Miota.

Pedro Zalloetxebarria.- Parrokoa 1.938.

Juan Zalloetxebarria.- 1971 abade arduraduna.

Luziano Urruzuno.- 1972. Bikario orde. Gero bikario.

Kepa Agirre.- Abade laguntzaille.

Zakarias Guenaga.- 1984 Bikario.



# LANA ETA LANGILLEAK

Danok dakigu erri au baserri-erria dala.

Baiña ba daukaz kaleko ianetik bizi diranak be.

Azken estadistikak, 1985 urteari dagokiozanak, era onetan sailkatzen dabe langilleen saiiia:

Langilleak: 460.

Oneitatik lanean: 430.

Lan barik dagozanak: 30.

Lan barik dagozanetatik, ien lan egiñak: 26.

Lenengo lanaren billa dabiltzanak: 4.



*Segia pikaten, begia zorrotz*

Lanean diarduen 430 lagunak eta onetan sailkatzen dira:

|                                       |          |
|---------------------------------------|----------|
| Tekniku eta profesionalak .....       | 6        |
| Irakasleak .....                      | 10       |
| Zuzendariak .....                     | 1        |
| Kontulariak .....                     | 21       |
| Merkatariak eta ostalaritzakoak ..... | 26       |
| Merkatariak .....                     | 11       |
| Ostatuetxe eta zerbitzutakoak .....   | 21       |
| Nekazaritza .....                     | 134      |
| Arrantza .....                        | 9        |
| Arlantza (arri lanketa) .....         | 1        |
| Sidero metalurjia .....               | 2        |
| Zura, papera eta antzekoak .....      | 18       |
| Kimika, leiar, plastikak .....        | 16       |
| Eun, narru eta abar .....             | 1        |
| Jan-edarietako langilleak .....       | 15       |
| Mekanika .....                        | 37       |
| Elektra-indarra .....                 | <b>5</b> |
| Forjaketa, soldatzailleak .....       | 45       |
| Irarkola langilleak .....             | 1        |
| Etxegintza .....                      | 21       |
| Itxas-merkatalgoak .....              | 2        |
| Kotxe gidari, karga eta abar .....    | 23       |
| Sailkatu bakoak .....                 | <u>4</u> |
| Danetara                              | 430      |

Jakingarri onein iturria: «Bizkaiko Lan Merkatua 1985. Foru Aldundia».



*Alai eta indartsu, bedar ebagiten*






Lana moztuten, ardi eta aarien gozamez...



Erabilketan, motorren kutsadura barik...

# S AGARDAUARI AGURRA



Erri onetako kontuak agertu eta tokiak aztertutean, barruko miña, arrenkuria sortuten dau eta biotz errea lakoa laga gogorapen batek: Sagardauak.

Kontu egin Berriatua'ri, bai «Maitena» eta bai «alai-ona» deiturako sagardau ezaugarriak, markak, entzute eta ospea emon eutsela. Bai eta Sport izenekoak be.

Bata 1916 urtean sortu zan, bestea geroago, baiña bata eta bestea, denporekaz, bai lan eta bai onuraz, beste errien mesedera aldatu ziran.

Gure gizaldiaren asieran Berriatua'tik sagardau asko bialtzen

zan Bilbo'ra eta beste toki askotara.

Orain irurogei urte, esate baterako, sagardau-gintzan jardun eta ekiten eutsenak, ainbat ziran. Bizibide orretako zerga (kontribuzioia) ordaintzen ebenen izenak aurrean dagoz:

Aldazabal, Jose Teodoro.

Arregi, Manuel.

Bermeosolo, Justo.

Bustindui, Alejandro.

Bustindui, Pedro Mari.

Egiguren, Jose.

Eizagirre, Saturnino.

Irueta, Eugenio.

Plaza, Julian.

Eta sagardau txanpandua egiten eben Goiri anaiak.

Ez dot liste eurak bakarrik izango ziranik. Ikustea baiño ez dago gaur be baserrietan zenbat tolare geratzen diran, eta curen neurrietan, sagardaua egingo ebenak.

Baiña sagastiak galdu ziran asko. Gizonen egarria beste asegarri batzuk billatzen asi zan, edo sartu eutsen.

Len, Bizkai'ko errien ardura andiko zeregiña zan sagarra. Sagardautarako sagar aukerakoa eta sagastien ezetasun zaintzeak aletin asko eskatzen eban gure errietan.

Bizkai'ko Fueroan, 1452 urtean batu ta jasotakuan, sagastiei buruzko legeak agertzen dira.

Ziarrotza'ko fraileak, ba°arri barriak egiteko curen izeneko lur batzuk emotean, beartu egiten zituen baserri orreitako jaubeak ainbat sagarrondo ipintera eta ortik euren errentak atara.

Gogoan euki Bizkai'ko itxas gizonak croan zituela lenengo sagar arbolak Normandia'ra.

Gogoratu sagardaua izan zala euskal arrantzaleak Terranoba'ra joaten asi ziranean, angoei lurreko lanetan lagundu eragiteko ordain lez erabilten eben lan-sari edo aloger ordezkua.

Alaz eta, gizona giroaren menpeko da, giroaren otsein, eta sagardauak galdu eban bere giroa.

Agur esan bearko, Berriatua'k denpora luzetan euki eban

ezaugarri on orreri.

Gogoratu daigun bertsolarien kantua:

Bedeinkatua izan dedilla  
sagardoaren grazia,  
bai eta ere kupira gabe  
eraten duben guzia;  
edari onek gizon askori  
ematen dio bizia,  
au eran gabe egotea da  
niretzat penitentzia.





*«Signa Maiorum Aranzibiae Nobilium»  
Aranzibia*



*Andonegi torre*

## IKURDIAK (ESKUDOAK)

Ikurdi ederrak dagoz gure etxe zar eta baserrien artean.

Kofradi guztietan banatzen dira, gatlera armarriak daukezan etxeak.

Iatzuk, etxe eta armarri, galdu ziran edo beste tokien batera aldatu. Fia dagoz, min gelago emoteko, etxeak uts baiña armarriak oraindik jator Irauten daben ormak.

Edozetura be, emen agertzen dagoz batzuen argazkiak, eta eura-  
rak ikuslazar esan giBel gure zaarrak euki ebela alako arrotasun be-  
rezi bat armarri ederrak iruditu eta lortuten.



*Mugarategi*



*Lekoia bekoa*



*Eguren*



*Etxebarri*

## GAUR...

Erri txiki, baiña atsegin, ogoki eta aurreratu egin naian igarten da.

Azken urteetan, alegin andiak egin dira, erriari bere kutsua omoten, bere nortasuna indartzen.

Liburu au irarkolan egoala, Maiatza'ren 10'an, Gregorio deunaren jaien barruan, erriko pelota toki eder, zabal eta ondo gertua zabaldu zan. Jolas-leku eta atsegin toki egokia izateko aukerako. 13ai eta pelotarien eskola izateko berebiziko, eta orrez gaiñera errian egín leikezan jai askorentzako aterpe ziur.



Gero toki orrek bere inguruaren ardura eskatuko dau, eta be-riatuarren asmoetan dago, andik bide nausirako bitartean ibilbide txukun eta arbola arteko bat egitea; ingurua parketzat aukeratu eta zaintzea, eta abur. •

Erriko azken urtetako lanen artean, ur bideak egokitu ziran, eta esan lei, uragaz ez dala burukorniñik egongo,

Or dago, beste alde, Urcpeleko tira, kale barruan, Aita-Kutzekoaren aurrean, gero ta ur-edule geíago bere borondate oneko serbitsuagaz baliatzen.

Kultur bidea zabaltzen asia da. Erriko liburutegiak gero ta au-

kera geiago emoteko itxaropena dauka bai txiki eta bai nagusien mesedean.

Bide egaletako espaloi edo on-bideak konpondu dira, ibiitariei ziurtasun eta egokitasuna emoten.

Baso eta baserrietako bideak, auzoetakoak, gero ta alegin geiagoz erabilten dira, urte gitxi barru curen egokitasun oparoa lortzeko itxaropenez.

Istoriz betetako erri barru eta auzoetako ermitak, alegin bizi eta bizkorrez barriztu, moldatu eta txukundu izan dira, bai baserri asko apaindu eta gaurko bizimodura eratu be.

Zorionez len baserri-uts zan erri au, lantokiz ugaritzen igarten da.

Lurreko aurrerapenekin batcan, ortuaritza eta lur-zaintza moldakuntza barriak igarten dira; Koperatiba eta bakartien gintza (industria) eta abar zaindu eta indartuz batera, or ikusten da Gardotza'ko zokodia (poligonoa) egunetik egunera lantegi eta aterpe barriak jaso eta beteten.

Berriatua, gaur, erri txiki baiña arduratsu igarten da, bai bakartien aldetik eta bai erri-maillan. Kezkati ezagutzen da, erriaren ona danen gaiñetik billatu guraz, eta ori, erri batentzat, itxaropen, amets eta bizi-bide egoki baten ziurtasun eta duintasuna danik ezin ukatu.

Berriatua aurrera joango da, aurrera eroateko gogo eta naia dagolako bertakoen artean.

Urrengo ekintza eskola barricna izango da. Eta Kanposantua egoki lagateko lanak amaitzea.







^Yiaiff

•^1

^

tos.. GÁnea

...

AUZORIK - AUZO  
BASERRIRIK - BASERRI

# MADALENA AUZOA

Arantzadi'ko Madalena.

32 etxe sartzen dira atizo onetan, edo obeto esanda, Kofradi onetan.

Plazakola'tik itxasora Artibai errekek daroan eskumaldi guztia sartzen da bertan.

Zoritxarrez ba dagoz tartean orma-uts geratu diranak, edo ta zutik egonarren, barruak jausten daukezanak, edo ta aste burutako bakarrIk erabilten diran etxeak.

Bertan sartzen dira:



Akilla  
Alliri zarra  
Arantzadi  
Arantzibia Laka  
Arantzibia Nagusia  
Arantzibia Torrea  
Bidegorri,  
Burgoa  
Egiluze - Kixona  
Etxetxu  
Gazturu

Goltiz  
Iramategi barri  
Iramategi zarra  
Iturrino  
Kaltzakorta  
Kategi  
Legarregi  
Obekola  
Obekola errota  
Olabe  
Olaso

Oletxe  
Orubia azpikua  
Orubia aldekoa  
Orubia bekoa  
Orubia goikoa  
Pertika  
Urdiñoleta bekoa  
Urdiñoleta goikoa  
Urkiaga baso  
Zametiz

# MADALENA



Gizaldietako Fede, Eskintza eta Oiturak

# AKILLA



Akilla mendiaren gibelean.

Ondarroa'ren gain gainean. Gipuzkoa'gaz mugatzen dala.

Ez da antxiñakoa.

1813 urtean egiña dala ipinten dau arri baten: «Erigió esta casa Antonio De Nafarrete Año 1813.

Errenteruak bizi dira bertan. Jaubea, Carmen Gaminde da.

12 Hektarea inguru daukaz.

Gaur Santa Kutz mendira Ondarroa'tik duan kurutzetakoan bidea, bertatik dua.

# ALLIRI ZARRA



Ondarroa'ko Errenderi auzoaren egalean dago.

Eleiz erakundez Ondarroa'ko parrokiaren menpean sartzen da.

Bere oiñetan, Artibai ibaia, eta denpora zarretan egozan itxas lantegi edo astilleru bat ezagutu zan erreka ondo orretan.

Jaubetasuneko eskritura Maria Murga'ren izenean dago.

Baserri onek Ondarroa'ko abizen edo apelliduei be emon eutsen bere deitura. Ala 1552 urtean ba dago ango parroikiko liburuetan abizen ori.

# ARANT'ZADI



XV garren gizaldirako ba dagoz etxe onen azterrenak.

1704 eta 1745'ko erroldetan (zentzuetan) Bustinzuriatarrak agertzen dira bertako jaube lez.

1796 urtean, Ventura Ormaetxe zan jaubea, eta Juan Argoitia errenterua.

Orain Pedro Idoeta da jaubetasun agiriak daukazana. Anai bi bizi dira bertan.

18 Hektarea daukaz.

Euretatik 8 Hektarea Markiñaldean, au da lurrez Markina-Xemein'en sartzen diran lurraldetan. Beste amarrak Berriatua'n.

Azken gerratean, nazionalak egon ziran bertan eta origaitik bertakuak Mutriku'ko Mitxelaun'era joan ziran eta un bizi.

Tolarea dago.

Egunotan Iturrino ingurutik eroandabe ura Madalena'ko ermitariño, eta emendik etxera luzatu.

# ARANTZIBIA LAKA



Edo Arantzibia errota.

Baserri lez txikia. 4 Hektarea.

Antxiña errota egon zan bertan.

Jaubez, Solanotarrena da.

Gaur bertan bizi dan birraitari errentan emon eutsan Solano'k.

6 bei, 3 txal, 10 untxi (koneju), 80 oillo...

Merkatuz, Ondarroa'ra joaten dira.

Tolarea dauka.

1983'ko urioletan sukalderaíño igo ziran Artibai erreka  
urak.

Rafael Aldalur eta Gloria Arregi bizi dira bertan, curen seine  
eta osabagaz.



# ARANTZIBIA (NAUSIA) edo ta EZKERRA



Torrean babesean egindako etxea.

Lekeitio'ko Solanotarrena da.

Gaur errenteruak bizi dira: Antonio Barinaga-errementeria,  
bere emazte eta seme alaba bi.

Etxean, baserrian egiten dabe lan.

Merkatura, Ondarroa'ra.

6 bei, 6 txal, 24 oillo...

Kofradiaz Madalena eta Andra Mari Gardotzakoan sartzen  
dira.

# ARANTZIBIA TORREA



1443 urtean ganboatarrak beratu egin eben torre au.

Alaz eta la 17 metro daukaz oraindik luzeran.

Torreak bere eskudoa dauka: Signa Maiorum Aranzibae nobiliuina. (Antxinako Arantzibiatar martzalen ezaugarriak).

Ba dira diñoenak torre au baiño lenago Ondarroa'ko lurretan, santa Ana len ermita eta orain baserria danaren inguruan euki ebela beste torre zarra.

1704 ezker Peñaflorida kondea agertzen da bere jaube eta gerroztik aren ondorengoak.

Gaur, errenteru lez, Juan Espilla, emaztea eta iru seme alaba bizi dira, nai ta oneitako bik kanpoan lan egin.

# BIDEGORRI



1704 urteko erroldan, Domingo Egurrola agertzen da etxe onetako jaube.

Gero, 1745-46'koan, Manu Egurrola.

Baiña bai lenengoan eta bestean be, erreteru lez bardina agertzen zan: Juan Olabe.

1796 urtean jaubetasuna Manuel Urreztieta Mutrikuarraren izenera aldatu zan. Mutrikuar onek euki zitun jaubetasun geiago inguru onetan.

Orain Jose Mari Kareaga da jaubea.

Gaur egun atsedan toki edo gizarte-etxe lez zortzi lagunen artean artuta dauke.

Bidegorri izenez errotea be egon zan eta lenengoz gorago aita-tu dogun Urreztieta izenez agertzen da 1822 urtean Berrituarraren artean egindako zerga ordaindu bearreko zerrendan.

# BURGOA



Ondarroa'ren gain gainean.

Eleiz erakundez, Ondarroa'ko parrokiaren menpeko dira.

Santa Kutz ermitaren be aldean, Akillamendi eta Tontorra-mendi'ren arteko zabalune baten.

Ondarroa'ko parroikiko jaiotzetako liburuak 1550 urtean asten dira eta zabaldu ta bereala agertzen da abizen au.

1704, 1745 eta 1796 eta 1828 urtetan Berriatua'ko ondasunei buruz egindako erroltzetan, Iramategi abizena (apellidua) daukenak agertzen dira bertako jaube.

1794 urtean frantzetarrak erre egin eben, bera baiño goratxua-go dagon santa Kutz'eko ermita erre eben egun berberean, Abustua'ren azkenean.

Berriatuarrak euki izan daben idi-proba eta jokoetan, entzute andia euki eban eta dauka toki onek.

# EGILUZE



Uri da bere izcn jatorra.

Alaz eta ingurukoak geiago erabilten dabe beste izen au: KIXO\A.

garren urteko iru erroldetan, ez da agertzen bere azta-  
rrenik.

1823 urtekoan Egiluze izenagaz dator eta Peñaflorída kondearen jaubetasuneko lez agertzen da. Baserri txikí tez ordaintzen eban, zeaztuta, 140 errial emon eutsen urtcko irabazitza eta orren araberan urteko zazpi errial ordaindu.

Gaur Pedro Lapazaran agertzen da bere jaube lez.

Erdi utsik dago. Piñadiz inguratuta.

Bertako jaubeak aste buruetan joaten dira bertara. Iru bei eta txal bi gordeten ditue bertan.

8 Hektarea daukaz.

# ETXETXU



Etxe onen azterrena, «Etxetxua» izenez, 1796'ko erroltzeko zerrendan agertzen da lenengoz. «Echachua» de Ubecola ez del Conde de Peñafiorida y la ocupa Domingo de Ibarra» irakurten da.

Gaur Jose Barinaga-errementeria bizi da bertan.

Ortuariak gainetxoan daukan Azkartzegira bialtzen dauz.

Tolarea dago, eta Obekola eta bertakoak erdiz bana erabilten eben.

Azken gerratean, etxea alderdi bien erdian geratzen zalako, Gernika'ra aldatu bear izan eben,

# GAZTURU



Liburu eta agiri zarretan, Gastuna agertzen da baserri onen izentzat.

Jaubea Migel Elordi.

Aurreragokoa Illano zan.

1796 urtean Manuel Urreztieta mutrikuarra agertzen da bertako jaube, bai eta 1822 errotzan be. Urte orretan 500 errial etsiten eutsen bere urteko emaitzat eta 25 errial ordaindu bear zerga-edo impostu lez.

12,5 Hektarea daukaz. Euretatik 6 piñadietan, 5 landak eta 1 ortua.

12 bei, 10 txal, txarri bat, 30 oillo, 12 untxi...

Arantzibia'tik Gorozikara duan auzo bidearen egalean dago.

Etxez andia da, eta orain amabi urte barriztua.

# GOITINIZ



Erri berbetan, Goitiz.

Errenderi'tik Zaldupe'ra duan bide zarraren egalean.

Eleizaz, Ondarroa'ko parrokiaren menpeko,

1979'n barriztu zan etxe au.

1699 urtean Jose Bustinzuria eta A. Elexpuru agertzen dira jaube ta erreteru.

1704 urtean, Juan Otxoa, agertzen da jaube.

1828'n Jose A. Etxaniz, jaube. Orain Maria Angeles Etxaburu.

Ondarroa'ko parrokiako liburuetan 1560 urtean agertzen da abizen (apellidu) au. Kontuan euki liburuak 1550 urtean asten dirala.

7 Hektarea.

6 lagun bizi dira, nai ta bik kalean lan egin.





Ez da agertzen 1796 urte arte liburuetan.

Urte orretan Jose Amallobieta agertzen da jaube lez. Mutrikuarra zan bera. Eta Domingo Antxustegi, bertako errenterua.

1810 urtean Jose Amallobieta'k jarraitzen dau jaube lez, eta 1822'ko erroldan Carlos Amallobieta agertzen da.

1828'n, Iñazio Elustondo.

Orain Ildefonso Urruzuno da bertako jaube.

8 Hektarea.

Lurrez Berriatua, baiña eleizaz, Ondarroa'ko parrokiaren menpeko.

Bost lagun bizi dira bertan.



Ondarroa'ko parrokiko liburuak 1550 urtean asten dira, eta 1553 urtekoan ba dago Iramategi abizenekoa.

1692 urtean Pedro Larruskain agertzen da bertako jaube.

1704'n Domingo Amallobieta, eta bera bizi bertan.

1745'n jaubetasuna Juan Amallobieta'rena da, ezkongaiia. Juan Makuzo zan bere morroia.

1796 urtean Jose Iramategi jaube, eta Domingo Idoeta errenterna.

1822'en Carlos Amallobieta jaube. Urte orretan 340 errial ebatsiten eutsezan urteko irabazitzat baserri oneri.

Orain Fidela Urruzuno da jaube.

18 Hektarea.

8 bei, 8 txal, oillo, patari ta untxiak.

Elcizaz, Ondarroa'ko parrokiaren menpeko.

# ITURRINO



1704.- Urte onetako erroldan, Jose Gojenola agertzen da jaube eta bertako bizilagun.

1745'n Lukas Mendibeltzua, eta berbera bizi be.

1796 urtean, Antonio Kareaga agertzen da jaube, eta Jose Garramiola errenterna. Bitartean, 1744 urtean, ba dago Pedro Amallobieta'k Ziarrotza'ko abadieie egindako eskabidea, Aranzadi-Iturrino sarobean etxe barria jasoteko. Beraz leike batzuk bertan dagon beste etxe batekoak izatea.

Gaur Pedro Iraolagoitia da bertako jaube.

23 Hektarea daukaz.

Euretatik 16 H. Markiñaldeko lurretan eta 7 berriatuakoetan.

Merkaturako Ondarroa edo ta Markiña'ko azokara joaten dira.

Tolarea dago.

Inguruetan kare zuloak agertzen dira.

8 bei, 9 txal, cuando bat, 45 ardi, 16 bildots, aari bi, 45 auntz eta abar, etxeko ondasun, fitxa au egitean, 1986'ko Apirillean.

# KATEGI



Liburu zarretan Kataegi.

1704 ko-eroldan, Antonio Kataegi *agertzen da jaube* eta biztanle,

1745'koan, Baltasar Mendibeltzua jaube eta Dionisio Zelai-a, errenteru.

Urte onetan «Casilla de Kataegi» be agertzen da, jaubea Mendibeltzua, baiña bizilaguntzat Bartolome Ibaseta.

1796 urtean Jose Antonio Arantzamendi jaube eta bizilagun.

Gaur Balendin Arantzamendi da bertako jaube. Nai eta Elgoibarren bizi, aste buruetan etxera etorten dira.

Ate zar baten gaiñean 1762 urte ezaugarria irakurten da.

200 auntz egoten dira lau illabetetan eta beste lau beor.

Liñua joteko arria gordeten dabe oraindik.

**23** Hektarea daukaz lurretan.

# OBEKOLA



Garr erri deitnraz OKOLA. Antxiñako libtrnetan Ubekola be irakurton da. Sa dirudi etxe au 1333 urtean jaso zala.

1704'n Lukas Olazarra agertzen da jauhe, eta Fernando Plaza bertako errenterua.

1745'n, YIntriku'ko monjen jaubetasuneko lez agortzen da etxea, eta Jose Plaza bertan bizi.

1796'koan izena bakarrik agertzen da eta frantzetarrak *erre* ebela. Errete au 1794'n izan zan.

1804'n, etxe jauberik ez da esaten, hai bertako errenterua, Sebastian Azpiazu. Gaur etxe au Pedro Laka'ren izenean dago.

Sagardaua egiteko toleara Etxetxu'n dago eta etxe bien artean erdiz banakoa da.

6 bei, 5 txal, mando bat, 60 oillo, eta abur dira bertako kortako ondasun.

# OBEKOLA ERROTA



Errota eta burdiñola egon ziran cinco.

1745 urtean, l'eñaflorida'ko kondearena zan. Baiña Errotea Jose Antxieta'k erabilten eban.

1796'en, jaubea berbera izanarren, errotaren arduradun lez Domingo Aranbarri agertzen da.

1946 inguruan erosi eban Jose Maria Galdos'ek, gaur bertan bizi danak.

Errota onetatik Asterrika eta Madalena auzotarako argi-indarra zabaltzen eban.

Gaur 20 kwko turbina bategaz etxerako indarra emoten dau.

# OLAETXEA



1704 urteko zerrendan, Agustina Olaetxea alargunarena zan eta bertan bizi zan.

1745'n, Tomas Agirre zan jaubea eta berbera bizi.

1794'n frantzetarrak, beste etxe batzuekin batean, sua emon eutsen eta erreta laga.

Gaur Franzisko Basterretxea Mendibe'ren izenean dagoz jautetasun agiriak eta anaia eta beste lagun bat bizi dira bertan.

8 Hektarea.

Etxe aurrean babestutako iru aterpe daukaz (negutegiak) eta bei bi eta txal bi. Gerratean, etxetik urten bearrean aurkitu ziran. Etxeko ganadua mare errotan itxi eben.

# OLASO



Ate gaiñean 1722 irakurten da, baiña etxe au zarragoa dala jakina da. 1704 urtean Juan Andonaegi agertzen da jaube lez, eta Kristobal Agirretxea errenterua.

1745'n Jabier Alzaga jaube, eta Antonio Ondartza bertan bizi. Orain Hermenegildo Plaza'ren izenean agertzen da.

Hektarea bi.

5 bei, 5 txal, astoa, untziak, oilloak eta abar.

Tolarea dago.

1983'ko urioletan, metro batera eldu zan etxe barruan ura, eta untziak 11 ziran.

Gerratean, 1936 urtean, kanpora urten bearra euki eben, inguru ori tiroka errez menperatzen ebelako alderdi bietakoak. Etxe inguruan bala asko aurkitu zituen.



# ORUBIA AZPIKUA



Baserri zarraren onduan, gure denporetan egindako etxe barria dago, AZPIICUA izena Orubia baiño ezaugarriago agertzen dala.

Baserri etxe zarra da, bear ba da zarrenetarikoa.

Justo Zelaia eta emazte eta alaba bi bizi dira bertan.

Merkatutarako Ondarroa'ra joaten dira.

Etxeko jaunak kalean lan egiten dau.

8Hektarea daukaz inguruak.

Bei bi, txal bi eta oilloak etxerako lagungarri.

1822 urtean egin zan erriko etxe eta euren ondasunen baliatzean, Juan Jose Mugartegi agertzen da etxe jaube, eta urteko emaitzetarako 200 errialen irabaziari buruzko zerga ezarten eutsen.

# ORUBIA NAGUSIA



Aldeko be deitzen dautse.

1704'n Juan Orubi zan jaube eta bertako bizilagun.

1745'n Joseph Elordi, bardin, jaube eta bizilagun.


1794 urtean, frantzetar soldaduak erre egin eben. Eta urteak igaro ziran berraro jaso ordurako. Atean dauka noiz amaitu eben: «Ofizial Domingo de Orobia; Carpintero Plaza, 1808, irakurten da ardan irarrita.

1822'en Jose Elordi zan jaubea eta irabazietarako urteko 360 erriai uste izan eutsen, au da, bederlatzi anega gariren balioa, eta orren euneko bosta ordaindutera beartuaz.

8 Hektarea daukaz inguruak.

Felix Aranguren'en izenean dago. Arakistain-Arregi familia bizi da bertan.

# ORUBIA GOJEASKOA



Perunekoa be deitzen dautse.

1808 urtean barriztatu zan, edo barriztatzca amaitu, eta denporetara etxe bizitza bitara banatu.

9,5 Hektarea. 8 basoetan eta 1,5 ortu eta landetan.

Etxe au, 1822 urteko erroldetan, Pedro Maguregi'ren izenean agertzen zan eta 500 errialeko irabazia burutzen eutsen, au da, amabi anega ta erdi gariren balioa, eta orren maillan zergak oruu eragin.

Beste etxeari Jose Ostolaza eta Mari Aranguren bizi dira.

Atean, bear ba da banaketa egin zaneko ezaugarri lez, au ikusten da idatzita: «Jose Domingo Elordi 1833».

# PERTIKA



Etxe bitzta bi.

700 urte euki lez etxe onek,

Len Ziarrotzako abadeekin zer ikusia euki eben bertakoak.

1704 urtean Martin Mugartegi zan jaube eta Migel Azpiazu bertan bizi.

1745 urtean Mugartegitarrak jaube eta Eusebio Ibaseta bertan bizi.

1796 urtean S. Zumaran agertzen da jaube lez.

Etxe bitzta baten, Pedro Azumendi eta beretarrak bizi dira.

9 bei, 8 txal, 15 ardi, aari bat, 3 beor, zaldi bi, zalditxo bi eta abar daukez.

Bestean, utsik edo erdi utsik dagola esan bear, nai ta J. M. Erretolaza eta emazteak aste buruak bertan igaro, daukezan untzi, auntz eta oillei begiratur.

Etxeak 18 1/2 Hektarea daukaz.

«Pertika» izenak euskeraz zer adierazten daben jakin nai leikenak, ortazko idazki batzuk aurkitu leikez Leizaola'ren «Obras Completas, III, 742 orrialdetik 751 bitartan.

# URDINOLETA BEKOA



Urđiñoleta goikoari buruz esaten duna esan lei etxe oncri buruz.izenaren goraberean.

I3estela, ez da bere aztarcnik billatzen agiri zarretan.

Jaubetasuna Scbriana Gerrikaetxebarria'ren izenean dago. Eta senicagaz bizi da bertan.

15 Hektarea.

bei, 4 txal, asto bat, 20 untxi, 15 oillo, auntza eta abar.

Tolarca be ba dago.

# URDINOLETA



¿ein cte da etxe onen izen ziuerra:'

Batzuk t rdiñolcta, besteak I3nrdiñoleta.

I;z da antxiñako aztarrcnik billatzen etxe oneri buruz. Baten «Razón de la contribución directa sobre rentas y cánones...» 1822'tirtcan agertzen da, eta Urdanoleta izenagaz. Jaubca Viuda de Askarretazabal zala. Zarragoetan cz da agertzea. 1550/1550 urteak bit artekotan, mendi orreri Urdanolcia deitzen eutsen, nai ta etxe izenik agertu ez.

It xca eta ingtrna, gaur, Anastasio C alde'ren jaubetasitncku da. Alderdi baten I,orenzø) I3arinaga-crrementeria'ren familia bizi da. Bestea, bizitza barik, kortatzako entona dauka Ondarruko art-kin bateri.

Oraintsu, 15 illebetetan, «I,1 Patriarca» droga-aurkako erakun-deak artuta euki eban.

# ZAMITIZ



1654 urtean zerbait aurkitzen da etxe oneri dagokionez Ziarratza'ko artxihoan.

1704 urtean Juan Ibaseta agertzen da etxe jaube lez eta berbera bertan bizi.

1745 urtean Agustin Garramiola da jaubea, eta bertan bizi dana.

1796 urtean Juan Garramiola'ren izenean dago.

Orain Teresa Arrizabalaga alargunaren izenean dagoz agiriak.

36 urte dira baserri au barriztu zala.

10 Hektarea daukaz. 7 basoetan eta 3 ortuetan.

Madalena'ko kofradian sartzen da.


Azken urioletan, metro bat eta 20 zentimetro igo zan ura etxe barruan.

Gerratean, alderdi bien erdian egon zan eta Bedarona'ra joan ziran bertakoak.



Kalzakorta, Legarrei ta Olabe,  
sartu eurekin Urkiaga-baso be...  
Len baserri *eder eta* entzutetsu,  
orain orma zar, jausi eta mutu...  
Jainkoak daki zek zitun beratu,  
zerk atea itxi ta kaleratu.





# SAN BIXENTE KOFRADIA

## MERELUDI (MILLOI) AUZOA

Plazakoia'n asi eta Mereludi inguru guztia artzen dau Kofradi onek, Asterrikakoekaz bat egin arte.

Ogei ta sei baserri sartzen doguz, nai ta curen artean izen andiko batzuk utsik egon. Batera edo bestera, curen oroitzta euki nai izan dogu.

Orraitio ba dago baten bat barriz jasoteko asmo edo itxuretan.

Aierdi  
Andonegi errota  
Andonegi torre  
Astobitza  
Atxurra  
Eizmendi Aitzanekua  
Eizmendi bekoa  
Eizmendi errota  
Elexpuru erdikoa  
Elexpuru ibarreta  
Elexpuru nagusia.  
Goikoetxe  
Ikaran ezkerra  
Ikaran goikua  
Iramieta



I,aka beko  
Laka goiko  
Lckoia beko  
Lckoia goiko  
Mereludi  
M ugartegi  
Oriosolo  
Solabarieta  
Sustaeta  
Lirresti  
Zeleta  
I3ai eta utsik:  
Otzandola  
Ugalde  
Zabala

*San Bixente Kofradia'ko Batzarretako maia*



*San Antolin Ermita*

# AIARDIA (AIERDI)



Gaur Aierdi edo Axerdi deitzen dautsagu. Lengo paperetan Aiardi. Bardin da. Bardin esaten dogu eukeraz aiar edo aier erderazko brezo esateko. Eta ori esan nai dau. Erderaz Brezal esango leukie, eta guk, aierrak dagozan tokia.

Antxiñako etxea.

1704 urtean Juan Aiardia zan bertako jaube. 1745'n Andres Erretolaza. 1796'en Andres Plaza.

Len bizitza biko etxea.

1960'n barriztua da.

Zar eta gazte, 8 lagun bizi dira bertan. Matias Plaza'ren ize-nean dago jaubetasuna.

22 Hektarea.

8 bei, 8 txal, idi bat, asto, mando, untxi, oillo eta abar.

# ANDONAEGI



Andonaegitarrak, Errege Katolikuengandik lortu eben Berriatuan Andonaegi etxe eta jatorriaren etxe jauntza sortzeko baime-na.

1518 urtean izan zan Andonaegi'ko etxe-jauntza ori irasi edo fundatea. Etxe jauntza onetan sartzen ziran, Olaso, Alliri, Landa-juela, Zamitiz eta beste etxe batzuk, Kareaga-Andonaegitarrenak ziranak.

Ortarako Andonaegi eta Olaso tar Maria Beltrana'gaz ezkon-  
duta egoan Juan Gartzla Kareaga'k iru urte aurretik eskatu eban  
baimen ori eta lortu.

Orduntxe artu eben ikurdia (eskudoa), gaur abizen orrek dau-  
kana, eta bere inguruan gaztelaniazko esaera au ipiñi: «Hoy se  
verá en este día, si será lo que solían.

Gero Andonaegitarrak izan bereko burdIñola bi euki zituen,  
bai eta errotea be, liburu onetako beste toki batzuetan esaten dan  
lez.

# ANDONAEGI TORREA



Arniadun arriduna, au da, cskudoduna.

Noizkoa?

Bear ha da, ez ain zarra, oraingo etxe au.

Ibarra eta Garmendia'k cgingdako «Torres de Vizcaya» liburuan, etxe oneri buruz esaten da, Kamiñutorre albotik bide bat artu eta antxiñako Andonacgi errota eta burdiñola egozan alboko zubi txiki bat igarota, Andonacgi torrera elduten dala.

Au Mur<sup>g</sup>rtarrena dala, eta XVIII garren gizaldiko egiturako torrea dala. I;ta daukan eskudoa ikusi eta Xcmein'go Ubilla torrekoagaz paretuta, egille batek egiñak dirudiela biak.

Onek ez dan esan nai Andonaegi etxea, jatorria, I3erriatua'n aurreragotik ez datorrenik.

Ikusi, bcstela, Andonacgi errota eta abarretan esaten doguna.

Andonaegi torrea, gaur, Murgatarrena da, eta bertan bizi diranak errenteruk dira.

# ASTO BITZA



Bear ha da Berriatua'ko etxeetan noiz egiña dan ziurtasunik zeatzena, beste bat edo beste kenduta, Astobitza'gaz eukiko dogo.

Ba dakigu Ziarrot za'ko agirietatik, baserri un 1409 urtean jaso zala.

Sarri agertzen da XV eta XVI'ko paperetan etxe onetako Jaunaren izena.

1704'n Pedro Astobitza zan jaube.

1745 ezkeroztik, Arriolatarrak irakurten dira, gaia- arte, bertako jaubetasunagaz.

1810 urtcko agerpenetan, bertako Jaunak esan eban ez eukala ezelako karga eta zorrik.

20 Ilektarea eukazan. Gaur utsik.

Astobitza izen edo deiturari, arta tokiatik emoten dautse bere egitura, an da, euskeraz arte edo aste erabiltzen ziralako arta zuaitza adierazoteko.

Gaur utsik dago.

# ATXURRIA



Orrela agertzen da lengo paperetan. Gaur Atxurra.

1704'n Juan Koskorrotza zan jaube, 1745 Matias Koskorrotza eta beste Juan Koskorrotza bat 1796, eta geroago bardin.

Orain Tomas Eiguren'en izenean dagoz agiriak.

15 Hektarea. Bi Berriatua'ko lurretan eta 13 Amoroto'n.

7 bei, txal bat, zezen bat, 3 auntz eta abar.

Bere albotik igaroten da Atxurra erreka.

Bertakoak Aitz-ura esan nai ete daben bertako deiturak esaten dakie. Abizen edo apelliduak aztertu dituenak Atxurra atxur edo azur berbatik datorrela diñoie eta a a ugaritasun atzizkia ondore Tta erderazko zarzal esangarria emon.

# EIZMENDI ALTZANEKUA



Azken gerratean, inguru au gudarien leku gertatu zan udazketik udabarrirarte, eta origaitik alboetako beste baserrietakoak lez, etxeak gudariantzat itxi bear izan zituen eta eurotakoak inguruetako baserrietara aldatu.

Ala emengoak be.

Etxe un Angel Arriola'ren izenean dago. Gaur bertan bizi diranak, Luis Laka eta Jesusa Sustaeta errenterak dira.

12 Hektarea daukaz inguruko lurretan.

9 bei, 8 txal, asto, auntz, oillo eta abur.



# EIZMENDI BEKOA (ALDEKOA)



Kleto'nekoa be deitzen dautse.

Iru Eizmendiak, orain ia urte biko Ondarroa eta Berriatua arteko konponketa arte, Ondarroa'ren agintaritzapean egozan, eta batez be XV eta XVI garren gizaldietan, agintaritzari buruz ondarrutarrekaz asarre edo eztabaida asko euki zituen.

Eizmendi bekoan Kleto Laka eta emaztea ta alaba bizi dira.

la sei Hektarea ingurutan. 2,5 basoetan eta 3,28 landatan.

5 bei, asto bat, oillo, untxi eta abar.

Perra tokia be ba dago bertan.

## EIZMENDI (OLABENA)



Olabena be deituten dautse.

Ramon Eizagirre'ren izenean dago jaubetasuna. Emazte eta semeagaz bizi da bertan.

11 Hektarea.

7 bei, 6 txal, 20 ardi, oillo eta abar.

«Eizmendi» izena eizatik, kazatik datorren izena dala esaten dabenak ba dira, baiña orretan gaituak diranak, ia edo ta eiz berbak erabilten dabez orretarako eta erderazko «monte de juncos» edo ta «monte de abetos» esan naia emoten dautse.

# ELEXPURU ERDIKOA



Etxe bizitza bitan banatua.

Bata, Basterretxea eta bestea Malax,

Baiña izen oneik oraingoak dira, obeto esanda, bertan bizi diranen abizenetatik artuak dira,

Elexpuru Basterretxea Ramon Basterretxea da jaube eta bertan bizi da bere familiagaz.

12 Hektarea.

**5** bei, 4 txal, asto, oillo eta abar.

Bestean, Elexpuru Malax'en Tomasa Malatxebarria bizi da eta bere familia.

18 Hektarea.

8 bei, **3** txal, aintz, oillo eta abar.

Tolarea be ba dauke.

Ementxe dago Goiko-lau Koba, Barandíaran'ek aztertutakoa.

# ELEXPURU IBARRETA



Etxe uizitza bi.

Perran'ekua. Tomas Gandiaga'ren izenean jaubetasun agiriak.  
Bera bizi da, emazte, seme eta e.rrain eta 3 lobakin,

1704'n Mugartegitarrena zan.

8 Hektarea.

Merkatura Lekeitio'ra joaten dira.

4 bei, 2 txal, auntz, oillo eta abar.

Juan'enean, Juan Gandiaga, bertako jaubea bizi da. Bai eta bere emazte, alaba eta suin eta lobekaz.

10 Hektarea.

5 bei, 3 txal, idi bat, txarri, auntz, oillo eta abar.

Azken gerratean Andonegi torrekoak, Errotakoak eta Orueta barrikuak bizi ziran bertan.

1704'n Mugartegitarrena zan. 11 anega gari artzen eben lez ordaintzen zituen erriko zergak.

# ELEXPURU NAGUSIA



Etxe bizitza bikoia.

Baten Jose Luis Gorostola, bere emazte eta semea bizi dira.  
Jaubetasuna eurena da.

32 Hektarea.

5 bei, 6 txal, idi bat, oillo eta abar.

Zentral bateri emoten dautse eguneroko esnea, baiña ortuarie-  
kaz Markiñako merkatura joateko oiturea dauke astero.

Beste etxea utsik dago.

Marzeliña Orbe da bertako jaube.

Etxe au 1745 urtean Pedro Mugartegi-ren izenean egoan eta  
errenteru lez Min de Etxekartegi irakurten da. Or ikusten da gaur-  
ko Txakartegitarren euskal deitura zeatza.

# GOIKOETXEA



Etxearen atze aldian, 1391 irakurten da.

Etxearen egiturako urtea ete?

Bertakoak etxearen deitura zaindu izan dabe curen abizenetan. Ala 1704 urtean Domingo Goikoetxe agertzen da jaube lez, 1745'n Manuel Goikoetxea eta 1796'en Tomas Goikeotxea, eta 1923'eko erroldan be Goikoetxea bat zan jaubea.

Orain Paskual Anduiza da jaubea, eta Kalzakorta Aranzetatarak bizi dira bertan.

8 1/2 Hektarea daukaz inguruan.

3 bei, 5 txal, 25 untxi eta abar zaintzeko.

Garratean, aurrez aurre gudariak egozan Kalamendi'n nazionalak Txindurri'n, eta bertakoak inguruan egiña euken zulo baten eskutatu bear izaten ziran.

1823'ko erroldan, urtean 300 errialeri egokion zerga ordaindu eragiten eutsen.

# IKAREN EZKERRA



Batzuk Ikaran barri be deitzen dautse.

1704 urtean Juan Areskurenaga zan jaube.

1745'n Jose Gojenola eta berberak jarraitu 1796 eta 1810 urtetako erroldetan.

1810 urtekoan ikusten da ogei anega gari artzen zitun kontuan ordaintzen zitula erriko zergak eta orrez gaiñera ba eukazan mendietatik lortzen zitun sarrera txiki batzuk be.

Gaur, jaubetasun agiriak Pedro Larizgoitia eta Rosario Laka'-ren izenean dagoz baiña errenteruak bizi dira bertan,

# IKARAN GOIKUA



Mereluditik Oleta'ra goazala, bide nausiaren ezker alde beko zokoan dagoz Ikaran baserriak.

Goikoa deitzen daneko jaubea, Agustina Ugarteburu da. Ikararen \ausi be deitzen dautse.

1704 urtean Domingo Ikaran'ean J. A. Ikaran zan jaube lez agertzen zana.

1810 urtean ogei anega gariren irabaziei buruz ordaintzen eutsan erriari, baiña anega bat gari urtero Mugartegi etxeari emon bear izaten eutsan.

Orain aste azkenetan etorten dira bertakuak.

Ikaran deituraren esan naia a ta aran berbakin osotuta lez erakusten dabe, erderazko Juncal adierazpena emoteko.



# IRAMIETA



Au ez da baserri zarra, antxiñakoa.

Baiña utsik dago.

1800 urtea baiño atzerago ez da bere izenik billatzen baserrien artean. 1810 urtean aurkitzen dogu bere azterrena.

Urte orretako baserrietako emaitz edo emokuntzen agerpenak egitean, Oriosolo jaubea agertzen da esaten bera dala ango jaubea, bai eta Iramieta deitzen dan etxe barriaren jaube he, nai eta onako erreteru bat euki.

Bertako jaubetasun agiriak, Genaro Soraluze'ren izenean dagoz.

# LAKA BEKO = LAKA ERDIKOA



Zeatz esateko, Laka I3eko deitzen zuna jausi zan eta bertakoak gaur LAKA ERDIKOA'n jarraitzen dabe.

21 Hektarea.

6 ei, 8 txal, 6 ardi, aari eta abar.

Tolarea be ba dago.

1969 urtean barrizatua da etxe au.

Pedro M. Amallobetia da jaubea. I3ere farniliagaz bizi da.

1571 eta 1609 urtetan Ziarrotzako fraillien artxiboetan ba dira emengo aztarrenak.

1704'ko erroldeetan Luzia Arkotxa agertzen da emen bizi zan lez.

1745'n Joakin Laka.

1796 urtean Jose Amallobieta.

13/14 anega gari maillan ordaintzen zitun bere urteko zergak (impostuak).

# LAKA GOIKO



Antxiñako baserria au be.

Ambrosio Alegria gaurko jaubea.

Bera, seme eta alabak bizi dira.

6 bei, 8 txal, idi bat eta 7 auntz, eta beste gaiñekoak.

Merkatura astean iru bidar joaten dira, Ondarroa'ra.

1704'ko erroldetan Angel Orueta ezagutzen da jaube lez.

1745'n Martin Andonegi.

1796 eta 1810 eta 1813'koetan, Murgatarrak.

Sasoi orretan amar/amabi anega gari artzen zitun eran ordaintzen zitun oi ziran zergak.

# LEKOIA BEKOA



1704 urtean Bartolome Ibarra agertzen da jaube lez.

1745, 1796, 1810 eta 1823 urtetan, Santo Domingo'ko Bizkondea. Onek 1810 urtean amabost etxeren jaubetasuna agertzen eban eleiz-ate onetan, eta euretatik etxe au agertzen eban garirik geien artzen eban lez.

Etxe onek 550 urte inguru daukaz.

Gaur Domingo Mugartegi da bertako jaube,

Eskudoa dauka, bertako seme *izan zan* Lekoia'ko Iñigo almiranteak lortua.

Zortzi lagun bizi dira bertan, nai ta bi zar-sarituak izan, beste bi eskoletan ibili, eta beste iruk baserritik kanpoko lanetan jardun.

2 1/2 Hektarea daukaz gaur inguruak, eta gañerakoa piñadetan.

# LEKOIA GOIKOA



1810 urteko erroldan irakurten da: «... se presenta Francisco de Plaza, dueño y havitante de la Casa y Casería de Lecoia de arriba, cuia renta anual teniendo en consideración a los precios de los granos que Pixa la orden, con inclusión de montes, y deducida la pensión del pan y cerca de la sepultura, se regula a 930 reales vellón. Y no firmó por no saber escribir...v.

Geroago, 1823'ko erroldan be, etxe onek jarraitzen dau zergarik geien ordaintzen berriatuar baserrien artean.

27 Hektarea.

10 bei, 10 txal, asto bat, eun oillo, erlcak...

Uroldietan bertako urarka (depositua) eten zan.

1905 eta 1906 urtetan Aldundi eta Abel (Ganadu) sariketetan irabazitako oroigarriak daukez.

# MERELUDI (MILLOI BEKOA)



Etxe onen aztarrenik ez da artzen 1704 eta 1745 urtetako erroldetan.

1796 urtean bai, eta Santo Domingo Bizkondearena dala esaten da.

Bizkonde onek 1810 urtean egin chau bere ondasunen agerpeanean, beste baserri batzuen artean, Mereludi unen agerpena be egín eban, 22 anega gari artzen zitun kontu errazoa emon eban.

Ostera, 1822 urtekoan, berberaren izenean jarraituarren, 13 anega lez ordaindu eban.

Azkenean Feliz Itza'k dauka bere jaubetasuna, Solanotarrei erosita, eta orain erreteru lez Luis Alzibar bizi da bere familia-ga z.

7 Hektarea daukaz inguruan.

8 bei, 5 txal, auntz bi, oillo, untxi eta abar zaintzeko eta bizigarria atarateko.

# MUGARTEGI



Antxiñako etxea.

Len gaztelua izan zala esaten da.

Ikurdi (eskudo) ederra dauka.

Mugartegitarrek agertzen dira luzaro bertoko jaun lez. Ala 1704'tik 1823 bitartean egiñiko erroldetan.

Markiñako Mugartegitarren senideak.

Gaur, jaubetasuna, Rosario Arregi'ren izenea agertzen da.

19 Hektarea daukaz inguruak. Euretatik 12 piñutegi, 2 landa, eta besteak babesdun aterpetan.

Gaur babesdun aterpe andiak egiñak daukaz, lurrari eten bari frutuak atarateko. Orrela 60 aterpe orreitako batzen dira bata bestearen ondoan.

Bazkideak eroaten dabe, «Barrenetxo», kooperatiba eran.

# ORIOSOLO



Olantxe agertzen da lengo paperetan, nai ta gaur OSOLO deitu.

Eta ez dauka zer ikusirik, orioagaz. Oriosolo, izenak zer esan nai daben gaituak esaten dabenez, olu, orlu tik dator, eta orreitako toki lez ezagutu bear da.

Etxe onek ba daukaz bere urratsak XV garren gizaldian. Beraz antxiñakoa.

1744'n Juan Bereikua zan bere jaube.

1796'n Jose Urrutia.

1810'en Andres Urkidi.

Etxe onek be zer ikusia eukan lurretan Peñaflorida kondeagaz.

Gaur bertako soloak Ramon Eizagirre'k erabilten dauz, baiña jaubetasuna Juan Atxalandabaso sondikarraren izenean dago.



# SOLABARRIETA



XV garren gizaldian baserri au ba egoala ba dakigu.

Orduan etxeko izenez ezagutzen ziran bertakoak.

Geroago aldakuntzak:

1704'n Bartolome Abasolo zan jaube.

1745'n Juan Bta. Alegria.

1796'en Jose Ituarte.

Amabost urte geroago Pedro Alzaa.

Onen agerpenetan, amazortzi anega gari artzen zituen urtean.

Orain Ramon Zabala'ren izenean dago jaubetasuna eta emazte eta seme alaba bi eta ama zarra bizi dira bertan.

5 Hektareako ingurua dauke.

Merkaturako Lekeiotio'rako joera dauke.

# SUSTAETA



Toki askotan errez ikusten da baserria.

1704'n Juan Bta. Kataegi zan jaubea.

1745'n Domingo Laka, eta Lakatarrak jarraitu 1796 eta 1810'n be. Azken urte onetan 22 anega gariren kontuak egiten eutsezan erriko zergak ordaintzeko.

Orain Juan Aldazabal'en izenean dago, eta senar-emazte zarrak, senar-emazte gazteak eta curen ume bi bizi dira.

19 Hektarea.

10 bei, 8 txal, 5 auntz, eun oillo, untxi eta abar.

Izenak egia ba diño, isuts tokia da, au da, erderazko Retamal izango litzake etxe onen izeneko abizenaren esan naia.

# URRESTI



Aierdi eta Eleizpuru artean.

1704'n Maria Trotiaga zan jaubea eta berbera bertan bizi, alargun.

1745'n Julio Urresti, eta *bere* aitagaz bizi zan.

1796'n Felipe Elustondo.

1810'n be berbera.

Urte orretako agirietan igarten da etxe au lotura asko eta estutasunak igaroa zala. 18 anega gariri jagokon errenta ipinten eutsen erriko ordairiak egiteko. Au da, 904 errial irabazten zitun lez garitan eta mendietan beste 60. Baiña Peñafiorida kondeari 4 anega gari emon bear eutsazan aletan, eta ba eukan berari kendutako dirutzen bateri erantzun bearra be, bai eta Ondarroa'ko ospitalari be, eta beste norbaiteri.

Beraz neke, lan eta izerdi ugari igarotako baserria, etxea aurra atarateko alegirietan.

Orain Jose M. Gojenola'ren izenean dago.

16 Hektarea daukaz.

# ZELETA



Edo Zeleta barri.

1704 urtean Lukas Olazarra zan bertako jaube.

1745 urtean, Mutriku'ko monjak eta beste batzuk.

1810'ko agerpenak egitean, orduko liburuetan irakurten da, Jose Laka zata bertako errenterua, eta onek esan ebala zortzi ane-ga gari ordaintzen eutsezala Franzisko Arnegi, mutrikuarrari, eta Pasai'ko beste andra bateri.

Gaur jaubetasun agiriak, Juan Kalzakorta'ren izenean dagoz.

5 Hektarea.

2 bei, txal bi, asto eta abar.

Plazakola'rik Oleta'ra duan bideko aldatzik gorenean lekututa dago baserri áu.



Otzandola  
Ugalde  
Zabala...

Baserrien neke ta odola  
ekin eta ekin etxe alde  
ta azkenean berapen argala

# ERRIZ EZ, BAINA ELEIZAZ BAI...

Ila dagoz emen he, erri legez bertako izan -czarren, eleiz lcl;cz edo nienhtasunez I erriatua'n sartzen diranak, cta zela ala gure erri onegaz lotura artzen dabenak, hft.cz be curen egon -lekua crucndik errezago egiten dalako, curen erri burutik baiño.

Ara eurak:

Erriz Amoroto eta parrokiz i3erriatua'ko:

Ikaran Errota.

Beko Errota



Markiña erriz, eta parrokiz Berriatua'ko:



Ataun bckoa



Ataun goikoa



Ixela



I, abct xc



Yluzu torre



Torre mutxu





Torretxu



t: rrijate, eta Errose deunaren bertako ermita.

# ASTERRIKA AUZOA

Edo ta Asterrika'ko Kofradia. Artibai ibaiaren ezkerraldian eta itxas gainea. San Lorentzo goietan eta Gardotza'ko Andra Maria beietan.

Emen be baserri batzuk ustu dira, kalearen tengadaz edo piñuen indarrez: Alipasolo, Arriaga, Kurut ze, Olabarrieta, Orueta, Solozarreta... Beste batzuk erdi ustu...

Edozetara be inguru onetan sartzen diran baserriak oneik dira, batzuk istorirako galduta, besteak eusten:

Aldeko  
Alipasolo  
Allukiz  
Ariakabe  
Andra Mari  
Arriaga  
Asterrikakua  
Bekoetxe  
Burgafia  
Eguren  
Ergaiz  
Errerrentarikua  
Etxano  
Gardotza bekua  
Gardotza goikoa  
Garro




*San Lorenzo*

Ibarguen bekua  
Ibarguen goikoa  
Ikatza  
Itola  
Konde Etxebarri  
Kurutze  
Olabarrieta  
Orueta barri  
Orueta zarra  
Sagarmintza  
Santana  
Serotetxe  
Solozarreta  
Telleria  
Urkiaga bekua  
Urkiaga goikoa  
Zelaikoa



*Gardotza ko kanpai torrea*

# ALDEKO



Agrietako dcitura osan: Aldekoa.

Lengo denporetan abadc etxc izana.

Parrokiz, Ondarrba'koaren mcnpcko.

1704'n Juan Retolaza zan jaubea.

1745'n, Domingo Anakabe.

1796'n, NikolaS Arrixatc.

1810, berbera.

Urte onctan 915 errialcko urteko emaitza czarten eutsen, bai-ña ba eukazan zentzu eta ordaindu bear batzuek.

1818 barriztu eben.

12 Hektarca inguru. 6 piñadietan, besteak sagarrondo, zclai eta soloetan.

Jose Maria Aranzeta'ren izenean daga.

# ALIPASOLO



Etxe zarra.

1693 urtean, bertako seme zan Antonio Ganbokorta Lekeitio'n il zan, 13 urtedun, eskola ikastera an bizi zala. Eta zazpi urte geroago, lengoaren anaia zan Domingo, toki bardiñetan eta era be-rean egoala

1729'n bertako nausi zan Juan Laka il zan.

1745'n Jose Egurrola agertzen da jaube lez, baiña tarte bi lenago il zan.

1796'n Joseph Egurrola.

1810'n Antonio Garramiola ondarrutarra agertzen da etxe onen jaube lez, bai eta Itola, Oianguren eta Zametiz etxeen jaube be.

Urte onetako agirietan ikusten danez, ogei anega gari artzen zitun urteko.

# ALLUKIZ



27 hektarea.

Pedro Gil eta M.T. Solano jaubeak.

1704'n Domingo Zelaia zan jaubea; 1745'n Martin Egurrola; 1796'n J. Gojenola eta 1810 urtean Jose Kalzakorta.

Gari eta beste aleetan 880 errialetan emaitza baliatzen eutsen eta mendietatik beste 30.

Ganadutzan entzute ona euki eban, 1906 eta 1907', sari batzuk irabaziaz. 1829 urtean, emengo nausi zan Jose Kalzakorta'k eztabaida bat euki eban Parrokiagaz, eleizako ofrenden goraberan. Ontaz liburu onetako San Gregorio eta olatak atalean zerbait esaten da.

# ANAKABE GOIKOA



Baseri zarra.

Ziarrotzako Kolegiataren menpetasuna eukia.

Eleizaz, Ondarroa'ko parroko.

Piñadi ugari. Sagarrak be bai.

1704 urtean, Pedro Anakabe zan jaube.

1810 urtean Domingo, Jazinto eta Joseph anaiak agertzen dira jaube lez. Ba dago Anakabe bekua deitzen dautsen etxe bat, Lekeitio'rako bide nagusian. Etxe onetako ormako arrian 1869 urtean egiña dala esaten da eta «Lurgorria» deitura dauka. Orain utsik.

# ANDRA MARIA. GARDOTZA



Jaubea J.M. Solano.

Julian Argoitia eta F. Elordi, eta Julian'en aizta bi bizi dira.  
Danak zar sarituak, jubilatua.

1796'ko paperetan irakurten da: Ermita eleiz-atearena dala,  
eta Domingo Lersundi bizi zala ermitak alboan eukan etxean.

Tolarea dago.

2, bei, 2 txal, 20 oillo...

Azken gerratean, etxetik kanpora bizi izan ziran sei illabete-  
tan.

1814 urtean Manu Etxano bizi zan bertan eta 260 errialeko  
kapitala dirutan eta amar anega gariren emaitza urteko eta beste  
13 artotan uste izaten eutsen.

# ARRIAGA



Berriatua eta Ondarroa arteko muga etxe onetatik zear igaroten da. Oríxegaitik asarre eta eztabaida sorleku edo inguru izan zan lengo denporetan.

**1525** urteko konponketa naietan esaten da etxe au Patxi Ibarra'ren ondorengoena zala eta konponketa egiteko aukeratu ziran gizon on biak esan eben, euren ustez etxe au eta *bere* ingurua, Idoibaltzaga'n itxasoagaz bat egin arte, Ondarroa'n sartu bear zala, baiña geroagoko batzarretan bertan bera itxi zan irizpide ori.

1704 eta 1745'ko erroldetan, etxe ko jaube lez Alzaga abizen-dunak agertzen dira. 1796'koan au irakurten da: «Es de un maio-razgo que reside en Azpeitia». Orain utsik.



# ASTERRIKAKUA



Ondarroa'ko parrokiko jaiotzetako liburuak 1550 urtean asten dira eta lenengo agertzen dan abizena (apellidua) Pedro Asterrika da.

Eleiz erakundez Ondarroa'ko parrokian sartzen da.

1745'n Domingo Urkiaga.

1796'en Santiago Abaroa.

1882'en Jose Elordi.

Gaur Luis, Rosario eta J.M. Goenaga'ren izenean dago.

Tolarea egon zan, sagardaua egiteko.

# BEKOETXE



Asterrika auzoan.

Eleizaz, Ondarroa'ko parrokiko.

1704'n Domingo Deustu zan jaube eta Juan Zelaia errenterua.

1745'n Jabier Arra jaube eta Domingo Zelaia errenterua.

1796'n Andres Gelalsolo jaube.

1810'n Esteban Aranburu bizi zan bertan.

Orain Iñazio Antxustegi da jaubea.

9,6 Hektarea daukaz.

# BURGAÑA



Asterrika auzoan.

12,7 Hcktarea daukaz.

1704 urtean Juan I3ta. Garrantiola zan jauhc eta bertan bizi zana.

1745 urtean YIariatiarratuioia, eta bere gurasockaz bizi zan.

1794 urtean frantzetararak erre egin eben, Asterrika inguruan Ikatza be erre eben lez.

Gaur bizitza bitan banatuta dago baserri etxea, baten 6 Iaguii bizi dirala eta bestean bost.

# EGUREN



Egiguren geiago irakurten da lengo itai>cretau.

1704'n Andres Gabiola zail jaube ta berbera bizi.

1745'n jatibe berbera, baina F. Azkaiturriaga eukan errenteru lez.

1746 urtean Eguren andia eta Eguren txikia deituraz agertzen da. Jaubea bardiña biena, ait da, Pedro Gabiola, haiña errentern lez batean F. Goiogana eta bestean I3ta. Egurrola.

Arantzibia torrearen zordun zan. Ma ikasten da 1810 urteko erroldan. Arantzibia torrean 4 anega gari enlaten eutsozan, hai eta ^Jendexa'ko eleizagaz he eukan dira aurrerakuntzaren bat.

Gaur Eguren andia utsik daga.

Donosti'ko I3arruetatarreu izenean dagoz etxe biak.

Juan Luis Angoitia eta emaztea eta curan seme Patxi'ren familia bizi dira. Danetara, zar eta gazte, 7 lagun.

3 bei, txal bi, asta, auntz, antxi...

I3aserri biczn artean 30 Hektarea.

Eguren andiak eskudo ederra dauka.

# ERGAITZ



Lengo agrietan Argaitz be irakurten da.

1745 urtean, Jose Antonio Mugartégi agertzen da jaube lez.

1796 urtean Sebastian Zumaran.

1810 urtean Ojangoiti agertzen eta bardin 1823'ko erroldan be, jaube bardiña. Urte onetako paperetan Ergaitz irakurten da. Bere inguruari ezarten eutsen balioa 440 errialeri egokiona da.

Utsik dago.

# ERREMENTARIKUA



Asterrika auzoan.

Eleizaz, Ondarroa'ko parrokiaren menpeko.

1704 urtean jaube lez Ana Mari Izquierdo, alarguna, agertzen da.

1745 urtean, Elgoibar'ko monjak.

1796 urtean, bardin.

1810 urtean, irabazien agerpena egitean, bertako erreteru zan Jose Urberuagak jakin erazi eban urtean sei anega gariren errenta ordaintzen eutsela Elgoibar'eko nionjaei.

1823 urtean Manuel Arano agertzen da zerga ordaintzalle lez, beraz jaubea zala dirudi.

Gaur lagun bi bizi dira, eta Petra Argoitia da jaubea.

# ETXANO



Asterrika auzoan.

Lurrez eta eleizaz I3erriatua.

Oraingo etxe jaubeak lekeitiarrak dira.

1704 urtean Nikolas Latorre zan jaubea.

1745 urtean, Tornas Laka.

1796 urtean Santiago Abaroa eta bardin 1810 urtean, eta bardin 1823'ean. 1810 urteko zergak ordaintzeko, 25 anega gariri egokiona ordaindu eragiten eutsen.

# GARDOTZA BEKUA



1704 urtean, Domingo Gardutza zan jaubea eta bertan bizi zana.

1745'n Martin Izagirre, eta 1796'en Pedro Izagirre.

1810'ko eta 1822'ko zerrendetan, Pedro Izagirre'k jarraitzen dau.

Orain etxea 37 eta 38 zenbakietan banatuta dago.

Baten Jose Mari Aldazabal eta bere senideak bizi dira.

Bestean, Jose Mari Eizagirre ta beste anai arrebak. Berria-tua'ko beste etxe asko lez, Gardutza edo Gardotzak XV garren gi-zaldian be ezagutzen ziran.

Gaur etxe onen egalean gintza zokodi (poligonoa) gero ta he-tingo igarten da.



# GARDOTZA GOIKUA



Santos Aldazabal jaubea. Emazte eta beste seme bi bizi dira.

1704'n Madalena Mugartegi, alarguna, zan jaube.

1745'n Leioa'ko Josefa.

1796'en Juan Koskorrotza,

1810'en, Gregorio Koskorrotza. Urteko zerga-neurri lez, kentzekoak kenduta, 700 errialeri egokiona ordaindu eragiten eutsen.

1823'ko zerrendan Jose Aldazabal agertzen da jaube lez.

1983'ko urioletan, kalte andiak euki zituen makina eta niotoretan.

1936'ko gerratean, baserriko tresnak Orueta'n itxi eta Lekeitio'ra aldatu ziran.

Ingurukoak lez, Gardotza'ko Amaren eguna, Iraillean, konbidautza eguna ospatuten eben, kofradi onétako beste baserriak egi-ten eben antzera.

# GARRO



1704 urtean Peñafiorida'ko kondea agertzen da baserri onen jaube lez.

Bardin 1745, 1796, 1823'ko erroletan, Munibe'ko kondea esaten da. Orain sei urtetik, Justo Larrinaga da jaubea, onek Solano-tarrei erosita.

20 Hektarea daukaz inguruak.

Etxe bizitzak 250 metro lautu.

Oraingoak aste buruan bakarrik joaten dira bertara. Baiña 6 zaldi eta bost auntz daukez bertan. Eta 200 sagarrondo eta 30 melokotoe.

Etxea erosi ebenean, lurrean eskutatuta, lapiko bat diruekin billatu eben. Guztira 56 peseta moneda txikietan.

1540 urtea ezkerro ba dago liburuetan etxe onen ezaugarria.

# IBARGUEN BEKOA



Ondarroa'tik Berriatua'ko bide nagusiaren egalean.

Arantzibia torre ezagunaren aurrez-aurre.

Etxe bizitza bitan bananduta dago. Jaubea Jabier Bustindui da.

Bideari begira egiña dala dirudi etxeak.

4 Hektarea daukaz inguruak.

Aldi baten sagardau ona egiten zan entzutea eukan.

Gerratean bertakoak etxea utzik laga bear izan eben, alderdi bietako armadunen artean geratzen zalako

# IBARGUEN GOIKOA



Antxiñako etxea da, oraintsu barriztatua.

7 Hektarea.

Orain Teresa Aranbarri da etxe jaube.

1695'n Tomas Irueta zan, bertako jaube lez agertzen zana.

1704'n Anton Iturralde.

1745'n Lekeitio'ko monjak.

1796, 1810 eta 1823'eko erroletan, Tomas Idoeta bizi zan bertan jaube lez.

Etxean arasa zar bat gordeten dabe eta eun eta irurogetak urte daukazala diñoie eta berreundak urtetik gora orduari batek.

# IKATZA



Goimendi auzoan, Aстерrika bidean.

Eleiz menpetasunez Ondarroa'ko parrokian sartzen da.

6 Hektarea daukaz. Piñadietan bi.

10 bei, 11 txal, 4 auntz, asto, oillo eta abar.

1693'ko eleiz liburutetan, Domingo Iturriaga agertzen da etxe jaube.

1704'ti Domingo berbera eta 1745'n Francisco Iturriaga.

1794 urtean erre egin eben frantzetarrak, Berriatua'ko beste baserri batzuekin batean eta Ondarroa ia osorik erre ebenean.

1828'n Domingo Guenaga zan jaubea.

Orain Jose A. Eizagirre eta Nati Urriolabeitia'ren izenean dago.

# ITO LA



Asterrika auzoan.

Gaur ganadu korta biurtua.

Jaubea, Juan Belaustegi.

1704'n Juan Laka agertzen zan jaube lez.

1745 eta 1796'en Jose Egurrola.

1810'en Antonio Garramiola, ondarrutarra, Alipasolo, Zamitiz eta Oianguren eta etxe onetako jaube lez, eta ogeí anega gari artzen zirala esaten da agerpen baten.

1822 urtean be Garramiola berbera zan jaube eta orduan urteko 300 errialen irabaziari egokion zerga ordaindu eragiten eutsep.

XV garren gizaldian ezaguna zan baserri au.

# KONDE ETXEBARRI



.\stcrrika auzoan.

Eleiz- nichen )ctastncz, Ondarrua'ku l ru'rukilu).

•( („,r l,i i- .\rria iu du eixe,iaubr.

27 11c1uarca 4 llektarca i)ĩñadictan.

17 brit l 5 t xal ria altar, kOri a t i aria dFatd<a.

Azken crrraican en-eta icralu zan, eta barriztu cIen. Eiztarien Huki atse2itla da bere ins;nruu, it xaS Laii)ck() aize eta ikitSpegiakaz.

tiagardaua CLilrkO IuIarea aLan zan.

I\ncdc I;i xcharri k aurrez aurre daukaz Ikctza buru, l. 'rka- ntru(li, l'rkixumendi. .Astularru, (;arabiundu. Bere sul() ta zclaic- tan, Oludi, Sailbarri, i;txcaurrc, Etxcuz;)í, KOsta, 'iadariondua, I3idc|>c, .\itzburtt, l'rez hc aberats da::Arrixaku-erreka, Url<ixaku- rrrcl<a, .Aitzburul<u ix)tsua, (iorostiku it urri eta abar. l,ta hrc (>i- ñetan erre; i dcan ain hildur; ;<trri dan .Atxazi)i.

# KURUTZE



Asterrika auzoan.

20 Hektareako inguru.

Jaubea, Kalzakorta Aranzeta anaiak.

Gaur utsik dago.



# OLABARRIETA



Arantzibia'ren aurrean.

Bear ba da euren ibillera eta joaldien lekuko.

1704'n Martin Txopitea zan jaubea.

1745'n Juan Ubegi.

1796'n Juan F. Urberoaga.

1810'n Migel Idoeta. 310 errialen irabazia emoten eutsen, urteko zergak bailo orreri buruz ordaintzeko.

1822 urtean jaun berbera agertzen da jaube lez, baiña irabazi gitxiago ezarten dautse.

1945 urtean Markiñako Urlo baserrikoak ziran jaube eta ge-roago Legazpia'ko Irizartarrak erosi eben.



Noiz egiña dan ba dakigu: 1709 urtean.

1745'n Domingo Izagirre ezagutzen da bertako jaube.

1796'n Santiago Abaroa, lekeitiarra.

Bardin 1810 eta 1822 urteetan.

Orain Jabier Elu da bertako jaubea.

Baserritxikia, 4 Hektarea. Gaur lau lagun bizi dira bertan.

Eleizaz Ondarroa'ko parrokiaren menpeko.



Asterrika auzoan.

Eleizaz, Ondarroa.

XV garren gizaldian ba dagoz bertako ezauak.

1704'n Domingo Urizar zan jaubea.

1745'n Roberto Orueta.

1796'n Sebastian Urizar. Bardin 1810'en. Baiña 1823'en jaube barri bat agertzen da: Pedro Alegria.

Ondarroa'ko parrokiari, amarrenet.an, amar «kuarta» gari eitto ten eutsazan eta zortzi otzara arto.

Ordez, Berriatua'n, erri zergaetarako, 600 errialeko irabazia emoten eutsen, baiña erantzunbiarrak kontuan eukita, ia ordaindu bear barik geratzen zan.

Gaur utsik dago. Sagardau toleara euki eben.

# SAGARMINTZA



Edo ta Sagarminta, askotan agertzen zan lez.

1704 urtean Mateo Ikaran zan jaubea.

1745'n Juan Sagarminta.

1796'en Santo Domingo'ko Bizkondea.

1810 eta 1822'en berbera.

Gaur Rufino Ituarte'ren izenean dagoz jaubetasnn agiriak.

2 1/2 Hektarca.

5 bei, 4 txal, oillo...

Azken urioletan baserriko orma eten eta jausi egin zan.

Oraintsu barriztuta dago.

# SANTANA



Etetik laster egiten da Ondarroagazko muga.

Origaitik baserri onetako lurrak erri bien jaubetasunean banatzen dira.

Ala Txabolaldeko motia, Andramari soloa, Zelaibarra eta Bizkerra Barriatu'ko jaubetasunean sartzen ba dira be, Bekosolua, kamiño zarreko solozatia, Solobarria, Errekabarrena eta Goikosolua Ondarroa'ren lurretan dagoz.

Eleizaz Ondarroa'ko parrokiaren menpeko da. Etxea, ain zuzen, len ermita egoana barruan artuta egiña da.

7 lagun bizi dira bertan. Batzuk baserri lanetan, besteak kallean.

1828'ko erroletan peñaflorida kondea agertzen zan jaube lez, baiña 1828 ezkeroztik Arritzabalagatarrak dauke orain bertako jaubetasuna.

# SEROTETXE



Asterrika auzoan.

Eleiz erakundez, Ondarroa'ko parrokiaren menpeko.

Maria Argoitia da gaurko jaube.

6 lagun bizi dira. Batzuk kanpoan lan egiten dabe.

8 bei, 8 txal, asto, untxi, oillo eta abar.

15 Hektarea. Sagarrondotan 40 inguru. Piñadiak.

1823'ko erroletan, ez da agertzen jaubearen izenik. «Habitación Serotechea» bakarrik esaten da eta 100 errialeri egokiona ordaintzen eban zergatan.

1895 urtean barriztatua da.

Gaur «Serotetxe»ko deitzen diranak, bertara bizitzera aldatu baño len, «Etxe zarra»zi bizi ziran. Orain etxeko tresneri eta gordelekutzat erabilten dabe.

Irustatarren sorlekua da.

# TELLERIA



Gaur Teileria deitzen dana, izenak zerbait adierazo nai dau, baiña ez da agiri eta dokumentuetan billatzen.

Arantzibia'ko etxearen aurrean, .Artibai errekaaren ondoan, goiburuan Gardotzako Andra Mari daukala.

Ba dirudi Peiiafloridu kondearena izan zala, bere oñordeko diran Solanotarrak diralako bertako jaube. Gaur Gardotzako zokodiari salduta dago beronen lurraldea.

Oraín bizi diranak, Pedro eta Jose Mari Laka, erreteruak dira.

**3** Hektarea etxe inguruak.

2,40 metroraiño igo zan ura 1983'ko urioletan.

Bízi diranak zar-sarituak diranez, etxeko ortuaria bakarrik artzen dabe.

# URKIAGA BEKOA



Asterrika auzoan.

1692 urtean Bernardo Urkiaga eta Ana Alipasolo ziran bertako jaubeak.

1704'n urtean S. Arrasate; 1745'n Agustin Urkiaga, 1796 eta 1810'n Santiago Abaroa, lekeitiarra. Urte onetan, erriko zergak ordaintzeko, 28 anega gariren irabazia ezarten eutsen.

1822 urtean Ramon Arenaza agertzen da arduradun lez eta 620 errialeko irabazien arabera erriari ordaindu.

Azken urtetan Garramiolatarrak bizi ziran bertan, gaur, jaubeak, noiz-beinka agertzen dira.



# URKIAGA GOIKUA



Asterrika auzoan.

Eleiz erakundez, Ondarroa'ko parrokiaren menpeko.

8 lagun bizi dira gaur. Zarrak baserrian lan egiten dabe, gazteak kalean.

8 bei ta 9 txal. Eta piñadiak.

27 Hektarea daukaz inguruak.

1823 urtean Andres Arrasate *agertzen* da bertako jaube lez.

Orduan 700 errialetan Irabazien araberan ordaindu bear izaten eben erriko zerga.

Gaur, jaubea, Jose Mari Arrate da.

## ZELAIKOA



Asterrika auzoan.

Eleiz erakundez, Ondarroa'ko parrokiaren menpeko.

1704 urtean, Domingo Zubiaur zan jaubea.

1745'n Francisco Goigana.

1796'en Jose Kategi.

1810 urtean, Bartolome Aranbarri, debarra, etxe onetako umezurtzen arduradun lez agertzen zan.

1823'n Antonio Kategi.

1828'n Jose Inazio Usobiaga'ren izenean egoan.

1810 urtean esaten da, amasei anega gari artzen zirala bertan, baiña Ondarroa'ko parrokiagaz zor txiki bat eukala eta sepulturako gastu eta abar, ba eukan nun beratu irabazitza emoten eutsana.

## SOLOZARRETA

Gaur utsik.



# ERRIBERA

## SAN JUAN ETA AITA-KUTZEKO KOFRADIAK

Andonegi Etxebarri  
Altamira  
Altzalegi  
Antxiko  
Arania  
Arregikua  
Astuieta barri (Kakatza)  
Astuieta zarra (Kakatza)  
Azkartza Albizkua  
Azkartza lekoa.  
Bastarlotza bekua  
Bastarlotza goikua  
Berrikuetxe  
Bidebitarte (Bruno)  
Bustinzuria  
Egi bekua  
Egi goikua  
Elexalde eskolakua

Elexaldi txikia  
Errementarikaa  
Eskribanikua  
Etxebarri  
Etxe pintxu  
Ibarra bekua  
Ibarra erdikua  
Ibarra goikoa  
Kamintorre  
Kamiñutxu  
Kasadua  
Muniosolo  
Oianguren  
Patrokua  
Santa Kutz-kua  
Torre

Zubialde

Zubialdeko errota

Utsik dagozanak: Altzu, Argingua, GorriN...: I, landajuela



*San Juan kale barruan*



*Aita Kutz'eko ermita*

# ALTAMIRA



1704 urteko erroldan, esaten da, etxe au egoera txarrean egoala, noiz jausiko.

1796 urtean Bartolome Aranbarri agertzen da bertako gela bakar baten biziten.

1823 urtean Pedro Aranbarri agertzen da jaube lez, eta 140 errialeko irabazia emoten eutsen urtean, zergak orreri buruz ordaintzeko.

Gaur Eusebio Gandiaga bizi da, emazte eta familiagaz.

Hektarea bi daukaz inguruak.

Aita Kutzeko Kofradian sartua da.

Etxean bei bi, txal bat, oillo, untxi eta abar.

# ALTZALEGI



Uriolak kale asko eragindako etxea.

Azkenengo biak, 1953 urtekoak eta 1983'koak benetan bildur-garriak. Batean 2,80 igo ziran urak etxe barruan eta bestean 2,40.

10 Hektarea daukaz inguruetan. 8 1/2 piñutegietan, 1 1/2 ortuetan.

Tolarea euki eban.

Txakoliña be egiten zan bertan.

Azken gerratean, iru anai egozala, tiro bat sartu jakoen etxe barrura. 1704 urtean Maria Altzalegi zan jaubea. 1796'en Pedro Kaltzakorta, eta 1823'en Jose Kaltzakorta. Gaur Pedro Basterre-txea'ren izenean dagoz jaubetasun agiriak.

# ANDONEGI AURRE



Etxe zabala. Gaur Andonegi Etxebarri deitzen dautse.

Murgatarreua da jaubetasunez. Manuel Mnrgra'rcu izenean dagoz jaubetasuu agiriak.

3 hektarea iuguructan.

4 bei, idi bar, 3 txal, asto, untxi, nulo eta abar.

Ondarroa'ko merkaturako joera dauke, astean birritan.

Iru lagun bizi dira bertan. Juan Mugartegi, emaztea eta semea.

1983'ko urioletan, sukaldean metro bateraño eldu zan ura.

Gerratean, Ibarrangelu'ko Akorda'n egon ziran denporaldi baten.

San Juan Kofradian sartuta dago.



# ANTXIKOA



Baserri txikia, lurrez. Hektarea bat. Gaur Azkartzako soloak darabiz cuentan.

1704 urtean eta 1745'an Mugartegi zan jaubea. 1704'koan esaten da etxea noiz jausiko egoala.

1796 urtean Sebastian Zumaran, Eibar'en bizi zana agertzen da jaube lez, eta bardin 1810 urteko zerrendetan. Urte aretan esaten zan garirik ez zala artzen bertan.

1823 urtean Ojangoiti agertzen da jaube lez.

Gaur Mari Carmen Aranbarri'ren izenean dagoz agiriak.

1983'ko urioletan, 1,15 metro igo zan ura etxe barruan, eta kalte andiak eragin.

1981 urtean barriztatu eben etxe au, gaur dagon erara.

# ARANIA



Antxiiietako etxea.

1704'n Pedro Arano agertzen da jaube lez.

1745'n Juan Bta. Arana. 1796'en Migel Arana eta berbera 1823 urtean be.

1810 urtean, mendi eta etxeko frutuen emaitza 830 errialetan baliatu eutsen, sepulturako ogi eta argizaria kenduta.

1823 urtean 640 errial irabazien balioa emoten eutsen, gauza bardiñerako.

Gaur etxe bizitza bitan banatuta dago.

Bata Arana «Justa» deitzen dautsena. Jaubea. Iru lagun bizi dira.

10 Hektarea inguruan.

4 bei, 5 txal, txarri, mando ta abar.

San Juan Kofradiakoak dira.

Beste etxe bizitzan I. Garate da jaube.

10 Hektarea. 3 lagun bizi dira, Maguregi-Etxenotarrak.

Bei bi, txal bi...

San Juan Kofradian sartzen dira beste oneik.

# ARREGIKUA



1704 urtean Pedro Kataegi zan jaube. Obeto esanda, bere seme txikiak ziran jaube eta Martin Burgaña abadearen ardura-pean bizi ziran,

1745 eta 1796 urtean Olabariatarrak agertzen dira jaube lez eta etxeko gozamina (usufrutua) Clara Plaza'k eukan, eta 200 dukaten errenta bat eukala agertzen eban.

Azken urioletan, 1983 urtean, metro bi igo ziran urak kortan.

Orain Agustina eta Adrian Elordi dira jaubeak.

Berriatuatik igaroten diranak arrituta geratzen dira etxe onen inguruan ikusten diran lora eder eta ugariekin.

Lengo denporetan egon zan Arregitxu deitzen eutsen gela bakardun etxe txiki bat inguru onetan.



Edo Kakatza barria.

1796 urtea ezkerro, Jose Lersundi agertzen zan bere jaube.

Eta iru anega ta erdi gari artzen eban lez ordaintzen zitun  
erriko laguntzak.

Gaur Iñazio Gorostola Gandiagaren izenean dago eta bost la•  
gun bizi dira bertan.

5 hektarea daukaz.

4 bei, iru txal, txarri bat, astoa, oilloak eta abar.

Merkaturako Ondarroa'rako osterea egiten dabe egunero.

Ba dirudi Kakatza izena, len bide zarra ingurutik igaroten za-  
nean, mandoak bertan geratu eta euren ondokiñetatik datorkiola.



Beste deitura batez KAKATZA. Bai eta ALKOAKUA be.

Gaur Jose Andres Goikoetxea da bertako jaube.

Lau lagun bizi dira bertan.

3 Hektarea.

4 bei, lau txal.

Kofradiaz, San Juan.

Merkatuz, Ondarroa'ra joaten dira.

1823 urtean Jose Barinaga zan bertako jaube eta lau anega  
gari artzen zitun kontuan ordaintzen zitun erriko zergak.

Azken gerratean emengoak Ereño'ra joan ziran.

# AZKARTZA



Azkartza Albizkua, obeto esanda.

1820 urtean, bertako errenterua Franzisko Zabala zan eta etxea Jose Maria La Madrid'en oñordekoena.

11 anega gari artzen zitun kontuan ordaintzen zitun urteko zergak, baiña enfiteusis zorra eukan Antonio Murgagaz eta orregaz gaiñera intxaurrak eta kapoi bi emon bear eutsazan berari. Orrela bere irabazia ia kittutan lagaten eban. Ba dirudi Azkartza Ormaetxea be deitzen eutsela.

Orain Angel Hermosa'ren izenean dago, baiña etxe utsa bakarrik. Soloak lengoen jaubetasunean jarraitzen dabela.

# AZKARTZA LEKOIA



Antxiñako baserria.

XV garren gizaldian agertzen dira bertakoen ibillerak.

XVIII garren gizaldian Santo Domingo Bizkondearen jaubetasuneko izan zan.

Gaur Jose M. Gojenola da jaubea.

8 hektarea daukaz: 5 piñadietan, eta 3 soloetan.

Baserri onetan metal ura sortzen da.

4 bei, 3 txal, auntz bat, 40 untxi, 20 oillo eta abar.

Txakoliña be egiten dabe.

Esnea, beste askoren antzera, zentral bateri emoten dautse.

# BASTARLOTZA BEKOA



Antxiñako etxea, nai ta barriztuta egon.

XV garren gizaldian ezagutzen ziran batzarretan Basterrolatztatarrak.

Gaur etxe bizitza bi.

Batean Petra Laka. Etxeari be izena emona.

Bera eta bere seme alaba Bilbaotarrak bizi dira bertan, eta Al-dazabal tarrekaz ezkonduetako ondorenak.

Amar anega gari artzen ebenaren kontura ordaintzen zituen lengo gizaldian curen zergak.

Beste bizitzan Varona-Gojenolatarrak bizi dira eta curen lan seme alaba.

Baserri bizitza eta kale bizitza daroez.



# BASTARLOTZA GOIKOA



Gasparrenekua deitzen dautse gaur.

Lengo paperetan Bazterrolatza.

55 urte dira barriztu ebela.

Gaur iru etxe bizitza dagoz bertan. Senitarteak banatuak.

Etxe lez San Juan kofradian sartzen da.

Baserri lez 4 hektarea daukaz inguruak.

6 bei, txal bi, 100 oilo, 15 untxi, 12 auntz...

Azken gerratean Amоротora joan bear izan eben bertakoak, baserri au balaz asko zigortua izan zalako.

Elustondo-Kalzakorta, sendia bizi da, bai eta Arrizabalaga Elustondo familia be bizitza baten; bestean Goiogana-Elustondotarrak eta bestean Arrasate-Elustondotarrak.



1704'ko erroldan, Julio Lezaola zan jaubea.

1745'n eta 1796 koetan, Domingo Olabarria.

1810 urtean, Jose Olabarria. 550 errialen irabaziei buruz ordaintzen zitun errikozergak.

1823'en Domingo Olabarria, eta 9 anega gari artzen zitun lez egiten zitun erri goraberako ordaintetak.

Gaur Pedro Erkiaga'ren izenean dago.

11 Hektarea.

6 bei, 5 txal, txarri bi, 23 untxi...

Gardotza'ko Kofradian sartuta dago.

## BIDEBITARTE (BRUNONEKUA)



Gaur Brunonekua izenagaz ezagutzen da etxe au.

Felipa Kalzakorta'ren izenean dago.

Luzaroan ezagutu genduzan emengo zarrak, goizaldetan, baserririk baserri esnea batzen ibiltzen eta gero Ondarroa'ko plazara esne ori saltzera eroaten. Gaurko «zentzalen» aitzindari izan ziran.

3 Hektarea daukaz etxeak.

Kofradiz, San Juan'goan sartuta dagoz.

Berriatua'ko sarreran egiten da etxe au, errepide nausi eta alboko bideen artean.

Bear ba da, urteetan atzera joan ezkerok, beste izenen bat euki-ko eban len. «Bidebitarte» izenekorik ez da agertzen lengo gizaldietan.

# BUSTINZURIA



Beste deitura batzuk: ELEXALDE NAGUSI, edo AI3ADIENA, eta baita PATXIKOLIN'O.

1704 urtean Juan Bta. Ibaseta zan jaube, eta Mateo Ibaseta abadea bizi zan bertan.

1745 urtean irakurten da: «Casa que llaman del Cura». Eta bertan Jose Bustinzuria abadea bizi zan.

Gaur Francisco Bustindui'ren izenean dago jaubetasuna, eta onen aittitta «Patxikolino» zan lez, ortik beste deitura ori.

7 Hektarea daukaz. Euretatik bi soloetan.

4 bei, 3 txal, 30 untxi eta abar.

Esnea zentral baterI emoten dautse.

Kofradiz San Juan eta Aita Kurutzekuan sartuta dago.

Tolarea dauka.

# EGI BEKUA



Oraintsu barriztutako baserria. Lau urte.

166 urte dira erre zala.

Anbrosio L'namunzaga da jaubea eta emaztea eta lau seme-alaba bizi dira.

8,5 hektarea.

Kofradiz Madalena eta San Juanen sartuta dago.

4 bei, bost txal, txarri, oillo eta abar.

Merkatura, Ondarroa'ra joaten dira.

Azken gerratean Arteaga'ra joan ziran bertakoak. Ambrosio'ren ama sukaldean egoala, bonba bat lertu ta ainka bat zauritu eutsan.

1704 urtean Maria Egia, ezkongaiá, zan jaubea.

1745'n Bartolome Egurrola.

1796'en Gabriel Barinaga.

1823'n 9 anega gari artzen eben kontura ordaintzen zituen zergak.

# EGI GOIKUA



Berriatua eta Markiña bitarteko muga bertatik igaroten da.

Etxe bizitza bi.

ALFONSO. Alfonso Galdos, jaubea. Senar emazte eta seme alabak bizi dira.

1,5 hektarea.

Bei bi, asto bat.

San Juan Kofradian sartuta dago.

«JAIXO»

Etxe jaubea Maria Osoro, Ondarroa'ko Antigua'koa da..

Jose Mari Arrieta, emazte eta iru alaba bizi dira Bolibar'tik etorriak.

1,5 hektarea.

Bei bi, txal bi, asto eta abar.

Egi etxea XV garren gIzaldian agertzen da beste baserrien artean.

# ELEXALDE ESKOLAKUA



1704 urtean Ibaseta osagillearen jaubetasuna zan.

Ba dirudi gure gizaldiaren asieran, 1900 urte inguruan, txokolatea egiten zala bertan. Ortik beste izen bat be: TXOKOLATEROKUA.

Baiña ez da izen orregaz bakarrik amaitzen etxe onen ezaupidea: ERREMUN ZEZTERUA\IA eta KAMINERUANIA be deitzen dautsez.

Gaur Jose Arriola da jaubea eta emazte eta alabak bizi dira.

San Juan Kofradian sartzen da.

Sei milla metro lautu inguru daukaz etxe inguruak. Sagar, melokotoe eta abar.

Beste ia orrenbeste, belardi, urratxa eta intxaurretan.

1920 urte inguruan etxe bizitza bi ziran bertan.

# ELEXALDE TXIKIA (ATXUA)



1704 urtean Juan Bta. Kataegi'ren izenean egoan etxe au.

1796'n Colmenares'en eskuetan.

Bardin 1823 urtean.

Gaur Leon Argoitia'ren izenean.

Idoeta-Argoitia familikoak bizi dira bertan.

Iñaki; bertako semea, aringalarien artean Euzkadi'ko txapel-dun geratu zan 1981 urtean.

Emen bizi ízan zan Arano jauna, Arano motza deiturakoa. Apostu bakanak egiten zalea. Lau arru lepoan eukazala plazatik urten eta Txindurri mendi goraiño ordu betean egin eban.



# ERREMENTARIKUA



Len baserri lanetan eta errementari lez bizi ziran bertakuak.

Gaur, aste buruetarako erabilten dabe oraingo jaubeak.

Len Justo Bermeosolo izan zan jaube, baiña etxea saldu bearean aurkitu ziran bertakoak, eta Pedro Mari Arriola'k erosi.

Gaur, orain zazpi urtetik, Salome Zubikarai'ren izenean dago etxea eta bera ta senarra aste buruetan joaten dira. Etxea barriztu eta egokitu egin dabe.

Hektarea bi daukaz.

Azken gerratean emen bizi zan Antolin Arriola, bertako sernetxoa, uretara joiala, tiro bategaz zaurituta geratu zan.

# ESKRIBANIKUA



1704'n Pedro Kalzakorta zan jaube.

1745'n Pedro Mugartegi.

1796'n Balentin Mugartegi, eta 1823'en Mugartegi'ren alargu-  
na.

240 errialeri egokiona ordaintzen eban erri zergaetan.

Izenak berak adierazoten dau eskribaduen bat biziko zala ber-  
tan.

Gaur, Adrián etxea Andres Elordi'ren izenean dago.

2,1 hektarea daukaz, euretatik piñadietan bat eta bestea ortu  
eta landetan.

Santa Kutz eta San Juan Kofradietan sartuta dago.

Gerratean Arnoroto'ra aldatu bearra euki eben eta etxera biur-  
tu ziranean, etxea errekisauta egoan iragarkia billatu eben atean.

# ETXEBARRI



Urepel izenagaz be ezagutzen da ingurutan etxe au, bere alboan ur-epela sortzen dan toki berezi bat daukolakJ.

1745 urtean Santo Domingo Bizkondearena zan eta Iñigo Zabala ebaketari edo zauri osatzaillea bIzi zan bertan.

1796 urtean Sebastian Zumaran'en jaubetasunean agertzen da.

Orain Jose Iñazio Ojangoiti da bere jaube.

5 Hektarea daukaz piñadietan, eta beste bost c., , rtan.

Etxean 3 bei, 2 txal, asto bat, oilloak eta abar.

Bere jaube dan Zumaran'ek, bereak zitun 1823 urtez, Pertika, Kaltzakorta, Ergaitz, iru Bastarlotza eta abar, eta Etxel:9. rri onetan 18 anega gari artzen zitun agerpena egin eban.

Ikurdi edo eskudo ederra dauka etxeko orman.

# ETXE PINTXUJA



Berriatua'n sartu edo bertatik igaroten diranak, danak gertzen dira etxe onen bakantasunari begira.

Bere ormetan daukazan margo andi eta zabalak, lengo gizaldi-ko artistaren baten ausardia eta esku ona ikusteko a\_ukera emoten dabe.

Liburuetan be, Berriatua'n dagozan etxeetako ikurdi (eskudo) ederrak agertzean, onen irudia be goratu nai izaten dabe.

Etxe au len Gerrikabeitiatarrena zan. Urte bete inguru da bertako errenteru ziranak erosita daukela.

# IBARRA BEKUA (ALTZU)



Gaur Altzu izenagaz ezagutzen danarren, bere izen jatorra Ibarra bekua da, agirietan, eta Altzu deitzen dautse izen orregaz ezagutzen zan abade bat bertan bizi zalako.

Erriberan. Aita Kutzeko, Andra Mari Gardotzako eta San Juan kofradietan sartua.

10 hektarea, 7 piñadietan, beste 3 landatan.

1704'n Migel Ibaseta zan jaube. Geroago, 1745'n Anton Zabalá, eta 1796 urtean Jose Pagoaga. 1823'en be berbera agertzen da. Gaur Jose Antonio Gerrikabeitiaren jaubetasuneko da eta bertan errenteruak bizi dira, ama zarra, senar emazteak eta iru seme alaba, liburu au egitean bertako jaun dan Joseba Arregi bertsolaria eleiz-ateko alkate dala.

Gitxi, baiña txakoliña be egiten dabe.

# IBARRA ERDIKOA.



1704 urtean Juan Bta. Aleasoio zan jaubea.

1745'n berbera.

1796'n Juan *J.* Ibaseta.

Orain Karmen Antxustegi Arregi'ren izenean dago jaubetasuna.

Andra Mari eta Aita Kutz'eko Kofrاديetan sartuta dago.

Azken urioletan, 1983'koan, 2,50 metrotara eldu zan tira.

Gerra denporan Munitibar'era aldatu bearra euki eben bertakoak.

Lur gitxiko baserria. Lengo gizaldian, Juan Jose Ibaseta'k egindako agerpenetan ikusten danetz, baserriak urteko irabazi lez 286 errial emoten zitun, baiña Etxebarriko eleizeagaz 120 errialen zorra eukan eta beste 80 Xemein'go Amallobieta etxeari. Bera 66 errialetan irabaziari egokiozan zergak ordaindu bear, au da, iru errial.

## IBARRA GOIKOA (JUSTO)



1704 urtean asi eta 1823 urte bitartean egin ziran erroldetan (zentzuetan) Santo Domingo Bizkondearen izenean ikusten da etxe onen jaubetasuna.

Lengo denporetan baserri au errementari lez ezagutzen zan, eta bertan egiten ziran aizkora, atxur eta beste burdin tresnak «Espino» ezaugarriagaz saltzen ziran.

Azkenetan Bermeosolotarrak euki eben. Jose Domingo'ren ondasunak bost lobak artu zituen, eta iru lobaen soloak Udaletxeari saldu eutsezan.

Gaur utsik dago.

# ICAMINO -TORRE



1704'n Manuel Ibarra'rena zan. Elcizgizoua. Bertan bizi zan.

1745'n bardin. 1796 urtean bere ondorengocna:

Geroago be, 1810, 1814 eta 1823'ko erroldetan, izen bardiña-gaz jarraituten eban.

Izenak diñon lez, torrea izana.

Aurreko orman, arrizko kurutza dauka, eta lengo denporctan, ibildeiinak (prozesiioiak) egitctan, kurutza orren aurrean geratzen ziran otoi egiteko.

4 Hektarea daukaz inguruetan; 3 basoetan eta 1 ortuctau.

Kofradiz, San Juan'cn sartzen da.

Gerratean Amoroto'ra joan ziran bertakoak.

1886'ko paperetan irakurtcn danez, erriari 1495 errial aurre-ratu eutsazan urte orretan, cuncko bian.



# KAM INUTXU



Edo Kamiñu txikia. Orrela agertzen da lengo paper zarretan.

1796 urtean Santo Domingo Bizkondearen izenean agertzen zan bere jaubetasuna. Bardin 1810 eta 1823'eko erroldetan.

1810 urtean bost anega gari artzen zitun, eta 1823'n bere errenta 110 errialetan baliatzen eutsen.

Len, bide barria egin aurretik, emendik ibiltzen ziran burdi eta garraioak.

20 Hektarea; 12 piñuetan eta 8 ortuetan.

3 bei, 3 txal, asto, oillo eta abar.

Ondarroa'ko merkatura joaten dira astean birritan.

Azken gerratean bertakoak Ispaster'era aldatu ziran.

Kofradietan, San Juanen sartuta dago.

# KASADUA



3 Hektarea.

Lengo paperetan KASADUA lez agertzen da.

Batzuk KAZAKUA deitzen dautse, bai eta KABANEKUA.

1704'ko erroldan Domingo Atxa zan jaube.

1796'koan Domingo Lariz.

1810 urtean Juan Bautista Lariz, eta 14,5 anega gariren irabazien araberan ordaintzen zitun erri zergak.

1823'koan etxe bi agertzen dira: Bata Kasadua eta bestea Kasadua barri, biak jaube batenak, Jose Amallobietarenak, eta batak 11 anega gari eta besteak bat eta erdiren araberan ordaindu eben.

Gaur utsik dago.

Jaubea Jabier Urresti.

# MUNIOSOLO



Muninsolo, Muninsolo beko eta Muninsolo goiko agertzen dira lengo agirietan. Danen jaube Mugartegitarak. Baiña 1796"ko erroltzean esaten da; «se advierte que las tres Casas están aplicadas a una Obra Pía».

1823'eko zerrendak, oraindik jaube berbera ezagutzen da, baiña etxe bakar lez.

Gaur Etxanobe'ren alarguna da jaubea. Bertan bizi diran Udzarbarrena-Argoitia familikoak errenteruak dira, Etxe onetan jaioa zan Jesus Aranbarri musikalaria ospetsuaren ama.

3 Hektarea daukaz inguruak.

Etxeko ondasun lez, 5 bei, 4 txal, auntz bat, txarri, oillo eta abar eta ortuariak.

# OIANGUREN (OIJEUN)



1704 urtean, Katalin Txopitea, zan jaube.

1745'n Jose Garramiola, eta berbera 1796 urtean. 1823'ean be bardin.

Gaur, jaubea, Manuel Epalza da, eta Soraluze-Gisasola senar emazteak bizi dira bertan.

Garramiola len jaube zan ondarrutarrak, bereak zitun Alipasolo, Itola eta Zamitiz etxeak be.

6 anega gariren ondasun lez ordaintzen zitun zergak (kontribusiñoiak).

Len ermita izan zala esaten da.

2 Hektarea daukaz ingurutan.

# PATROKUA



1704 urtean Joan Andonegi'ren izenean.

1745 urtean Jabier Murga'renean eta geroago be, 1823 arte beintzat, Murgatarrak jarraitzen eben bertako jaube lez.

Astapotxa lez ezagutzen dabe batzuk. Ba dirudi izen ori astopotsu bat bertan egon zalako, izan leikela. Kontuan euki 1915 urtean errirako urak batu ta bideratzea erabagi zanean, inguru onetan bakarrik egoala uren potzu edo arka esaten zana, beste urak zabal ebiltzalako.

Gaur Juan Mugartegi bertsolaria, emaztea eta seme alabak bizi dira.

1/2 H. etxe inguruan, 1/2 H. solo arestizar eta 1 H.solo barri deitzen dautsenetan.

# SANTA KUTZEKUA



1704'n Francisco Ibarra zan jaubea.

1745'n Migel Ibarluzea eta berbera bizi bertan.

1796'n Jose F. Ibarluzea abadearena zan.

1810 urtean abade berbera bizi zan bertan.

Gaur Kepa Bustindui'ren izenean dago jaubetasuna.

Bertakoak diñoenez, denpora asko dala, Valladolid'etik ildako bat ekarri eben bertara, eleizkizuna egitera, eta gero Ziarrotza'ko iltegian lur emon.

Gizaldi onen asieran luzatu eben baserri etxe au. Gaur iru famili bizi dira bertan.

Baserri lez 8 hektarea daukaz, eta 3 bei, 3 txal, txarri, oillo eta abar daukez,

Kofradiz, San Juangoan sartuta dagoz.

# TORRE



1745 ko paperetan irakurten da utsik geratu zala eta Mugar-tegi'rena izan zala, eta bere saillak Jose Barbarias'ek erabilten zitula.

Orain 10 urte barriztatua da etxe au.

Gaur Santi Urrutia'ren izenean dagoz jaubetasunak, eta bere familia bizi da bertan.

Babestutako aterpe andi bat dauke. Bertako ortuariekin Ondarroa'ra joaten dira.

Etxeko kortan 5 bei, 4 txal, txarri bi, antxi (koneju) eta abar.

# ZUBIALDE



Zubialdeko Zubiaur etxea, esaten da lengo paperctan.

1704 urtean Jose Kataegi zan jaube eta Ursula Mugartegi bizi zan bertan.

1745'n Jose A. Mugartegi agertzen da jaube lez, eta lau neska ezkongai bizi ziran, bakarrik.

Orain Santos Odriozola Elgeta'k dauka jaubetasuna eta anai arreba bi bizi dira bertan.

2,5 hektarea pitiadietan daukaz. Beste 2 ortuetan.

5 bei, 5 txal, asto bat, 10 untxi, oillo eta abar.

Merkatura Ondarroa'ra joaten dira.

1983'ko urioletan 1,10 metro igo zan ura etxe barruan.

Azken gerratean Amoroto'ra joan ziran, emen alde bien bitarteko utsunea egon zan artean.

Bertakoen ustez etxe onek 800 urte inguru euki leikez.

Orain zortzi urte barriztu eben.



# ZUBIALDEKO ERROTA



Reste batzuk Zubiaur errota.

Errota au XVIII garren gizaldian, Santo Domingo Bizkondea-rena zan.

Ba dirudi beste errotak, Obekola, Andonegi eta abarrek ba eukela euren izen berezia eta oneri Berriatua'ko errota deitzen eutse-la.

Gaur Bolin'enekoa deitzen dautse.

Azken uriolak ezkerro, etxe eta errota ondatuta geratu ziran, eta ordutik utsik dago.

Orain 15 urte arte, Mereludi, Asterrika eta Erribera kale eta besté iru baserriei argia emoten eutsen bertatik.

Azken denporetan, errotako turbínak etxerako erabilten zi-tuen.

Lukas Galdos da bertako jaube eta senar emazteak bakarrik bizi dira.

GORRIKOA



I k.NDAXUELA

Etxe zarrak, kondairaz eta izerdiz betak,  
Jatorrak, denporen eragiñez eta nekez  
zaartu, okertu eta lotu ziranak.



ARGI\GOA



BASTARLOTZA BARRI

*Utsik egonarren ez ete dabe artuko bizi barririk?*

# AURKIBIDEA

|  |     |
|--|-----|
| Sarrerako azalpena .....                     | 5   |
| Egoera .....                                 | 7   |
| Izena .....                                  | 9   |
| Berriatua'ko etxeak 1704 urtean .....        | 11  |
| Ziarrotza'ko Kolejiata eta Berriatua .....   | 18  |
| Erri begiz .....                             | 26  |
| Urte garratzak .....                         | 33  |
| Eleiz begitik .....                          | 37  |
| Gernika'ko Batzarretarako ordezkariak .....  | 42  |
| San Gregorio,eta eleizako olatak .....       | 47  |
| Berriatua'ko Txanbolin .....                 | 50  |
| Iñoren begitik .....                         | 53  |
| Txikikeri andiak .....                       | 5:  |
| Jai eta erromeriak .....                     | 65  |
| Erri kontuak lengo gizaldian .....           | 78  |
| Urte itzalak .....                           | 87  |
| Akilla'tik Astobitza'ra .....                | 94  |
| Errotak eta burdiiio'lak .....               | 100 |
| Kaleko etxeak 1824 urtean .....              | 105 |
| Erriko morroiak .....                        | 106 |
| Eieiz lliburuak eta beste jakingarriak ..... | 107 |
| Lana eta langilleak .....                    | 110 |
| Sagardauari agurra .....                     | 113 |
| Ikurdiak - eskudoak .....                    | 116 |
| Gaur .....                                   | 118 |
| Inguruko mapa .....                          | 120 |
| Auzorik-auzo, baserririk baserri .....       | 121 |

|                           |     |
|---------------------------|-----|
| MADALENA 1170A .....      | 122 |
| Akillia .....             | 124 |
| Alliri zarra .....        | 125 |
| Arant zadi .....          | 126 |
| A ran t zibi a Laka ..... | 127 |
| Arantzibia Ezkerra .....  | 128 |
| Arantzibia Torrea .....   | 129 |
| Ilidegorri .....          | 130 |
| I3trgoa .....             | 131 |
| Egiluze .....             | 132 |
| Etxctxtt .....            | 133 |
| Gazttiru .....            | 134 |
| Goitiniz .....            | 135 |
| Irantategi barri .....    | 136 |
| Iramategi zarra .....     | 137 |
| Iturrin() .....           | 138 |
| Kategi .....              | 139 |
| Obekola .....             | 140 |
| Obekola cuota .....       | 141 |
| Olactxca .....            | 142 |
| Olaso .....               | 143 |
| °rubia Azpikua .....      | 144 |
| ()rubia nagusia .....     | 145 |
| Orubia Gojeaskoa .....    | 146 |
| i'ertika .....            | 147 |
| Urdinoleta bekoa .....    | 148 |
| Urdinoleta .....          | 149 |
| Zamitiz .....             | 150 |
| Kalzakorta .....          |     |
| Legarregi .....           |     |
| Olabe .....               |     |
| Urkiaga baso .....        | 151 |

|  |     |
|--|-----|
| SAN BIXENTE KOFRADIA. Mereludi auzoa ..... | 153 |
| Aiardia .....                              | 154 |
| Andonaegi .....                            | 155 |
| Andonaegi Torrea .....                     | 156 |
| Astobitza .....                            | 157 |
| Atxurra .....                              | 158 |
| Eizmendi Altzanekua .....                  | 159 |
| Eizmendi bekoa .....                       | 160 |
| Eizmendi (Olabena) .....                   | 161 |
| Elexpuru erdikoa .....                     | 162 |
| Elexpuru Ibarreta .....                    | 163 |
| Elexpuru nagusia .....                     | 164 |
| Goikoetxea .....                           | 165 |
| Ikaran ezkerre .....                       | 166 |
| Ikaran goikua .....                        | 167 |
| Iram teta .....                            | 168 |
| Laka beko .....                            | 169 |
| Laka goiko .....                           | 170 |
| Lekoia bekoa .....                         | 171 |
| Lekoia goikoa .....                        | 172 |
| Mereludi (Milloi bekoa) .....              | 173 |
| Oriosolo .....                             | 175 |
| Solabarrieta .....                         | 176 |
| Sustaeta .....                             | 177 |
| Urresti .....                              | 178 |
| Zeleta .....                               | 179 |
| Otzandola                                  |     |
| Ugalde                                     |     |
| Zabala .....                               | 180 |
| <u>Erriz ez baitu eleizaz hai...</u>       | 181 |

|                             |     |
|-----------------------------|-----|
| ASTERRIKA auzoa .....       | 185 |
| Aldeko .....                | 186 |
| Alipasolo .....             | 187 |
| Allukiz .....               | 188 |
| Anakabe goikoa .....        | 189 |
| Andra Maria. Gardotza ..... | 190 |
| Arriaga .....               | 191 |
| Asterrikakua .....          | 192 |
| Bekoetxe .....              | 193 |
| Burgaña .....               | 194 |
| Eguren .....                | 195 |
| Ergaitz .....               | 196 |
| Errementarikua .....        | 197 |
| Etxano .....                | 198 |
| Gardotza bekua .....        | 199 |
| Gardotza goikua .....       | 200 |
| Garro .....                 | 201 |
| Ibarguen bekoa .....        | 202 |
| Ibarguen goikoa .....       | 203 |
| Ikatza .....                | 204 |
| Itola .....                 | 205 |
| Konde Etxebarri .....       | 206 |
| Kurutze .....               | 207 |
| Olabarrieta .....           | 208 |
| Orueta barri .....          | 209 |
| Orueta zarra .....          | 210 |
| Sagarmintza .....           | 211 |
| Santana .....               | 212 |
| Serotetxe .....             | 213 |
| Telleria .....              | 214 |
| Urkiaga bekoa .....         | 215 |
| Urkiaga goikua .....        | 216 |
| Zelaikoa .....              | 217 |
| Solozarreta .....           | 217 |

|   |     |
|---|-----|
| ERRIBERA auzoa.                           |     |
| SAN JUAN eta AITA KUTZEKO Kofradiak ..... | 219 |
| Altamira .....                            | 221 |
| Altzalegi .....                           | 222 |
| Andonegi aurre .....                      | 223 |
| Antxikoa .....                            | 224 |
| Arania .....                              | 225 |
| Arregikua .....                           | 226 |
| Astuieta barria .....                     | 227 |
| Astuieta zarra .....                      | 228 |
| Azkartza .....                            | 229 |
| Azkartza lekoa .....                      | 230 |
| Bastarlotza bekoa .....                   | 231 |
| Bastarlotza goikoa .....                  | 232 |
| Berritxuetxe .....                        | 233 |
| Bidebitarte .....                         | 234 |
| Bustinzuria .....                         | 235 |
| Egia bekua .....                          | 236 |
| Egi goikua .....                          | 237 |
| Elexalde eskolakua .....                  | 238 |
| Elexalde txikia .....                     | 239 |
| Errementarikua .....                      | 240 |
| Eskribanikua .....                        | 241 |
| Etxebarri .....                           | 242 |
| Etxe pintxua .....                        | 243 |
| Ibarra bekua .....                        | 244 |
| Ibarra erdikua .....                      | 245 |
| Ibarra goikua .....                       | 246 |
| Kamiño torre .....                        | 247 |
| Kamiiiutxu .....                          | 248 |
| Kasadua .....                             | 249 |
| Muniosolo .....                           | 250 |
| Oianguren .....                           | 251 |
| Patrokua .....                            | 252 |
| Santa Kutzekua .....                      | 253 |
| Torre .....                               | 254 |
| Zubialde .....                            | 255 |
| Zubialde errota .....                     | 256 |
| Argingoa .....                            |     |
| Bastarlotza barri .....                   |     |
| Gorrikoa .....                            |     |
| Landaxuela .....                          | 257 |



